



40 URTEAK ELKARREKIN OSPATZERA
Arrasateko AED euskara elkarteak herri bazkari batekin emango die amaiera 40. urteurrenaren ospakizunei / 8

Arlo ezberdinetako AEDko kideak, astelenean, Kultureteko klaustroan ateratako argazkian. XABIER URZELAI

"Ez dugu nahi adinekoekin negoziarik egiterik, horregatik egingo dugu greba"

ELENA MOLINA ETA ITXASO ELKOROBARRUTIA
ETXEZ ETXEKO ZAINZAILAK / 2

Debagoieneko kaleak morez jantziko dira bihar, zapatua, indarkeria matxista gaitzesteko / 4

Urretxindorrek taldea omenduko du Bergarako Bandak, Santa Zeziliako kontzertu berezian / 42

SINADURAK



Elena Molina eta Itxaso Elkorobarrutia. I.A.

BLACK FRIDAY

2mó 199€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA "Denon bizitzak erdigunean" jarri eta "guztion ardura den zaintza sistema publiko eta komunitario" baten aldeko greba feminista orokorra da azaroaren 30erako Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu duena: "Pribatizazioaren eta merkantilizazioaren aurka, zaintza lanetan eta sektore feminizatuetan baldintza onartezinetan bizi garen emakumeon eskubideen alde, egungo sistema mantentzen dutenei ardura eta erantzukizuna exijitzeko".

Azken hilabeteetako prozesuan zehar Herri Akordioa landu dute mugimendu feministaren eta bestelako eragile sozial eta sindikalen zaintza eskubide kolektiboaren aldeko aldarrikapenekin, eta tartean daude jasota, besteak beste, zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea, zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea, nahiz pribatizazioaren amaitzea, etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea edota gizonak interpeltzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura hartu dezaten.

Aretxabaletan zaintza lanetan dabilzan bi dira Itxaso Elkorobarrutia (Eskoriatza, 1976) eta Elena Molina (Vallecas, 1962). Elkorobarrutia ikasketez urritasun psikikoa duten pertsonen hezitzailea da eta, Molina, berriz, psikiatriako osasun laguntzailea, eta biek daukate etxeko zerbizuko profesionaltasun ziurtagiria –zortzi hilabeteko ikastaro homologatua-. Hurrenez hurren, 23 eta 24 urte daramatzate Gizadi enpresan –Aretxabaletako Udalak zaintza zerbizua emateko kontratatutako enpresa– lanean etxeko zaintza

Zaintza, A-30eko grebaren ardatz

Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitutako greba feminista orokorraren harira, Debagoienera etxeko zaintza lanetan dabilzan bi emakumerekin hitz egin du GOIENAK grebaz nahiz zaintza sektoreaz



Elena Molina eta Itxaso Elkorobarrutia, eguaztenean, Aretxabaletan. I.A.A.

**"ADINEKOEKIN
NEGOZIORIK EGITERIK
EZ DUGU NAHI"**

**"25 URTE
DAROATZAGU LANEAN
ETA BORROKAN"**

**"ZAINZAILERIK ASKOK
EZ DUTE GREBA
EGINGO"**

ELENA MOLINA, ETXEO ETXEO
ZAINZAILERIK

**"ONDORENGOEN
BALDINTZA HOBEAK
IZATEA NAHIKU NUKE"**

**"MUNDU GUZTIAK DU
ZAINDUA IZATEKO
ESKUBIDEA"**

**"JASATEN ARI GARENA
IKUSARAZTEKO BIDE
BAKARRA DA GREBA"**

ITXASO ELKOROBARRUTIA, ETXEO
ETXEO ZAINZAILERIK

zerbitzuan, eta adierazi dute une honetan enpresa horretan zaintza lanak egiten dituzten guztiak emakumezkoak direla. Halaber, biek aitortu dute bokazioz direla zaintzaileak, eta oso harro daudela lanbide hori izateaz.

Zaintza publikoaren alde

Bat egiten dute Herri Akordioan jasotako puntuekin, eta argi utzi dute euren aldarrikapenetako bat dela zaintza sistema publikoa izatea. "Mundu guztiak dauka zaindua izateko eskubidea, eta horretarako, zaintza sistema publikoa behar da. Ez daitezela enpresak aberastu gaixoen diruarekin", dio eskoriatzarrak.

Honakoa gehitu du Molinak: "Enpresa pribatuak zerbitzu publikoetan ez sartzea lortu behar dugu. Gu ez gaude enpresa pribatuen kontra. Zuk zure enpresa sortu nahi baduzu, sortu, baina ez diru publikoarekin. Diru publiko horrek adinekoendako eta zaintzaile publikoendako izan behar du. Ez dugu nahi adinekoekin negozioa egiterik. Enpresa pribatuak perretxikoak bezala ari dira ateratzen

alde guztietan lana dagoelako; dena pribatizatzen ari da".

Zaintza sektoreko zaintzaile guztiak gogoan, euren kasuaz aritu dira soldatez eta lan-baldintzez hitz egiterako orduan. Etxeko zaintzaileek dituzten soldatez ere mintzatu dira, eta "balantza batean" bizi direla salatu dute. Izan ere, lanaldi osoko soldata izateko lau etxetara joan behar izaten dute: "Baina erabiltzaile bat hiltzen bada edo zerbitzuarekin jarraitu nahi ez badu, udalak ordezkapen hori esleitu zain egon behar duzu; eta noski, zure ordutegiarekin bat etorri behar du. Guk ez daukagu ziurtatuta hilaren amaieran zenbat kobratuko dugun, sekula". Gainera, 24 orduko prestasuna izan behar duela esan du Molinak, eta, hortaz, kontziliazioa kolokan jartzen dela dio. Halaber, arlo ekonomikoan probintzia hitzarmena sortzeko eskaera egin du, herri bakoitzak ezin duelako bere hitzarmena izan.

Erretiroan ere jarri dute azpimarra. Azaldu dute zaintzaile asko erretiro adinera osasun arazo larriekin heltzen direla, eta horretaz inor ez dela jabetzen. "Gainera, asko ez dira jubilatzen aurrez ezgaitasuna deklaritzen dietelako. Gainera, zenbait kasutan ezin duzu aurrejubilatatu".

A-30ean, greba

Biak batu dira A-30eko grebara, eta Molina ados agertu da Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba deitzearekin, baina iruditzen zaio berandu datorrela: "Zaintzaileak betidanik egon dira. Emakume migratzaileak zaintza lanetan hasi direnean ikusi da esplotazio handia dagoela, baina 25 urte daramatzagu lanean eta borrokan. Hobe

Goienakide izatea **%30 merkeago**

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehenetsuneko mezenasgo jardura izendapena jasoko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Goienakide zaren horri, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2023. urtean Goienari egin diozun ekarpenengatik. Horrenbestez, zure kuotaren %30 itzuliko zaizu errenta aitortpena egiterakoan.

Horretarako ezinbestekoa da zure datuak Aldundira bidaltzeko onespina ematea. Onespina ia ez emanda badaukazu, ez daukazu aurten berritoki eman beharrik. Onespina emateko bideak: <https://goiena.eus/datuenebabesa>.

Edo dei egiguzu: 943 25 05 05.

Epe-muga: 2023ko abenduaren 12an.

Okm: batzen gaituen distantzia

berandu inoiz ez baino. Greba gu kontuan hartzeko bada, ongi etorria izango da".

Halaber, argi daukate zaintza sektorean dabiltzan gehiengoa ez dela kalera aterako: "Gu, adibidez, enpresan 45 zaintzaile gara, denak emakumeak, eta hiruk egingo dugu greba. Uleretzen dut emakume atzeritarrek ere grebara atera nahi ez izatea. Askok oraintxe lortu dute lana, soldata baxuak dituzte, eta ulergarria da arriskurik hartu nahi ez izatea. Gainera, askok ezin izango dute grebarik egin zerbitzu minimoak bete behar dituztelako. Beldurra dago soldata eta kontratuak galdu ditzaitezulako, nahiz eta baldintzak eta eskubideak izan".

Itxaso Elkorobarrutiari iruditzen zaio greba egin behar dela eta iruditzen zaio bide bakarra dela jasaten ari diren guztia ikusarazteko: "Ni oso harro nago egiten dudana, gustura nago; baina gustatuko litzaidake nire atzetik datozenek beste baldintza batzuk izatea, nireak baino askoz hobek. Argi daukat nire lana bokazionala dela, baina ez daukat argi etorkizunean izan-

go ote dudana zainduko nauen norbait". Uste du egoerak aldatu egin behar duela eta gizarteak arazoaz kontziente izan behar duela.

Pandemiako aitortzaz

Pandemian "premiazkoak" ziren gremioak gizarteak erabat ahaztu dituela diote eta ez dakiela zein den euren lana: "Gure lana psikologikoa, fisikoa eta laboral da. Desegituratutako familiarak ditugu, zainketa paliatiboak, etxeak garbitu, erabiltzailea zaindu... Jendeak uste du gure lana adinekoak jantzi eta pasieran ateratzea dela. Horretaz aparte, gauza asko egiten ditugu".

Eskoriatzarrarentzat, pandemia garaian ez zen zaintzaileen lana baloratu: "Jendeak aho handiarekin esaten zuen txalotu egingo gintuztela. Politikariei, berriz, indarra ahotik joaten zaie". Gogorarazi du beraiek ere badutela familia, eta etxera "beldurrez" iristen zela: "Jendea hiltzen ari zen eta esaten nuen; horietako bat izan naiteke. Jendea ez da kontziente bizi genuen sufrimenduaz. Gizarteak hausnarketa egin behar du".

Azaroaren 30eko egitaraua

A-30eko grebak Debagoiengan ere izango du oihartzuna, eta herrietako talde feministek ekintza eta mobilizazioak antolatutako egun osorako. Mobilizazioei dagokienez, Arrasatekoa 18:00etan izango da; Bergaran, berriz, 12:00etan eta 19:00etan. Oñatin, 11:00etan kalejira-manifestazioa egingo dute zaintza guneetan geldialdiak eginaz, eta arratsaldean, 18:30ean egingo dute manifestazioa ohiko ibilbidea eginez. Antzuolan eta Aretxabaletan, 12:00etan egingo dituzte mobilizazioak. Bestalde, Aretxabaletako, Antzuolako eta Aramaioko mugimendu feministak Arrasateko manifestaziora batuko dira.

GOIENAK ere bat egin du A-30eko greba deialdiarekin, eta zerbitzu minimoak izango ditu egun horretan.



Debagoieneko EAJ-PNVko udal ordezkariak, astelehenean egin zuten bileran. EAJ-PNV

EAJ-PNVk zaintza eredu berri baten alde egin du

Alderdi jeltzaleak "benetako lankidetzak" bat defendatzen du, non euskal zaintza eredu "sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario" baten aldeko apustua egiten duen "zaintzaren inguruko herri-itun berri bat" lortzeko helburuarekin

Julen Murua Mesonero BERGARA

Zaintza ereduarena pil-pilean dagoen gai bat den honetan, Debagoieneko EAJ-PNVko udal taldeek zaintza-eredu berriaren ardatzak finkatzen dituen mozioa aurkeztu dute osoko udalbatzar bilkuran. Mikel Lete Bergarako EAJ-PNVko bozeramaileak adierazi du "sendoa, eraldatzailea, feminista eta komunitarioa den euskal zaintza eredu baten alde" egiten dutela. Gaineratu du "adostasunak eta akordio zabalak lortzeko gaia" eta "zaintzaren inguruko herri-itun berri bat lortzera eramango gaituzten zutabeak" izango direla.

Bergarako jeltzaleen ordezkariak dio akordioak lortzeko

"benetako lankidetzak" defendatzen dutela, eta uste dutela "gai hau funtsezkoa dela ados jartzeko, Euskadik, Gipuzkoak, Debagoienak eta Bergarak aurrera egiten jarrai dezaten. Bergararrok ere eragile konprometitua izan behar dugu zaintza ereduaren eraldaketan". Eraldaketa hori gertatzeko "borondatea" ezinbestekoa dela eta "hitx egiteko, zehazteko eta adosteko" prest daudela ere adierazi du.

Eraldaketa-ardatz bati jarraituz

Letek aitortu du "jauzi berri bat emateko beharrezko tresnak" dituztela, eta akordio batera iristeko asmoz, haien eskua luzatzen dutela "gure gizartea

zaintza eredu unibertsal, pertsonalizatu eta kalitatezko baterantz gidatuko duen akordio zabal batera iristeko". Hori lortzera bidean, EAJ-PNVk mozio bidez proposatu ditu eraldaketaren ardatzak.

Guztira zortzi ardatz proposatu dituzte jeltzaleek: pertsona zainketa-eredu berriaren ardatza izatea; zainketen profesionalizazioa; etxeko zaintza lehenesten duen sistema; sistema inklusiboa eta berdinzalea izatea; koordinazio soziosanitarioa areagotzea; komunitatea indartzea; zainketen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea, eta zainketen elkarlaneko gobernantza mekanismo berriak antolatzea.



Erabili meloia Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin

f t i www.kontsumobide.eus

kontsumOBIDE
KONTSUMOKO SUBAL INSTITUTUA
NETZURU BASKO DE CONSUMO

Euskadi, egokiena, bizi onena
EUSKAL JAIKIALARITZA
GOBIERNO VASCO

A25

Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten

Bihar izango da Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna, eta bailaran zenbait ekintza eta elkarretaratze antolatu dituzte; era berean, Bergaran indarkeria matxistaren biktimei arreta eskaintzeko II. protokoloa sinatu dute, aste honetan

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da bihar, eta mobilizazioak nahiz ekintzak antolatu dituzte egun horren harira. Halaber, Bergaran esaterako, indarkeria matxistaren biktimei arreta eskaintzeko protokoloa sinatu zuten astelehenean Bergarako Udalak eta herriko zenbait eragilek. Azaldu zuten, besteak beste, protokolo eraberrituak udalerriko emakume guztien segurtasuna eta ongizatea bermatzen lagunduko duela. Sinatzen den bigarrena da, eta agerraldian

aditzera eman zuten funtsezko hiru puntuak direla koordinazio eraginkorra, arreta integrala eta sentsibilizazioa nahiz prebentzioa.

Gatzagan, berriz, A-25ari keina egin eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari gabeko herria irudikatu dute autobus geltoki ondoko paretan Iban Urreta marrazkilariak eta Ane Zuazubiskar bertsolariak sortu duten muralarekin.

Kanpainak eta agerraldiak

Emakundek, EAEko hiru aldundiek eta EUDELe kanpaina

bateratua sinatu dute, eta *Pornoa emakumeen aurkako indarkeriaren eskola da* kanpaina jarri dute martxan; gizartea ohartarazi nahi dute gazteen sexu-hezkuntza pornografiaren esku uztearen arriskuaz.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak asteon egin duen agerraldian salatu du azken urtean lau emakume eta haur bat erailak izan direla EHN. Besteak beste, erakundeei dagokien ardura hartzeko eskatu eta gizonei "dagokien ardura" hartu eta "euren praktikak behin-goz aldatzeko" deia egin zieten.



Debagoieneko ospitalea. GOIENA

Aitor Montesekiko eraso salatu du Aramaioko Udalak

Euskararen erabileragatik beste eraso bat jasan izana salatu zuen sare sozialen bidez Aitor Montesek

Julen Murua Mesonero ARAMAIO

Joan den asteburuan ezagutarazi zuen Aitor Montesek, Aramaioren lan egiten duen medikuak, X sare sozialen bitartez, larrialdietako zerbitzuetako beste langile baten partetik erasotua izan zela. Montesek Arrasateko larrialdietako zerbitzuetatik dei bat jaso zuen, haren lana euskara ez zen beste hizkuntza baten egiteko exijitzen. Egoera ikusita, Montesek sare sozialen bidez "lanera joateko ezintasuna" adierazi, eta, era berean, horrelako eraso bat jasaten duen lehenengo aldia ez dela esan zuen.

Udalaren erantzuna

Aramaioko medikuak jasandako erasoaren aurrean, Aramaioko Udalak ohar bat argitaratu zuen egoera hori salatzeke asmoz: "Aramaioko Udalak salatu nahi du haren egoera eta gogorazari

zerbitzu publikoek euskararen erabilerari bide emateko bete-beharra dutela, eta ezin direla onartu tankera honetako jazarpenak gure berezko hizkuntza erabiltzeagatik. Udalak bere bideak jorratuko ditu Montesek erasotzeko, eta bat egingo du gertaera honen aurrean antolatuko diren ekintzekin".

Oraindik, eta egoera konpondu arte, Montesek ordezko medikua izateko lanean jarraitzen du Udalak. Horrez gain, gaur bilera bat antolatu dute Osakidetza zuzendaritzako kideekin, egoerari konponbidea emateko asmoz.

Babesa jaso du

Egoera ikusita, Montesek babesa jaso du bai sare sozialetan jasotako mezuen bitartez, baina baita eragileren baten aldetik ere, guztiek "irmoki salatu" baitute medikuak jasandako eraso.

Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du gaur eta bihar

Debagoienekoaz ez ezik, beste eskualde batzuetako janari bilketaz ere arduratzen dira Bergarako Elikagai Bankuko egoitzako kideak. Guztira 39 denda-tan arituko dira, eta horietako asko Debagoieneko herrietako saltokiak izango dira; gaur eta bihar bitartean arituko dira elikagaiak batzen. Elikagai Bankuko ordezkaririk batek dio "nor-

berak nahi duena" eman deza-keela, baina, hala ere, badaudela haiei batzea komeni zaien elikagai zehatz batzuk: "Guk gomendatzen dugu batzea leka-leak (dilistak, babarrunak edota garbantzuak, esaterako), olio, arraina kontserban, pasta eta arroza". Iaz batu zuten kopurua "negargarria" izan zela ere adierazi du ordezkaririk, eta, horri buelta emateko, aurtengo bilketan gizarteak prestutasun handiagoa izatea espero dute Elikagaien Bankuko kideek.

Azaroaren 25eko egitaraua

ARRASATE

Azaroak 25

- **12:00** Deba bailarako Itaiaren mobilizazioa, herriko plazan.
- **13:00** Mugimendu Feministaren mobilizazioa Seber Altube plazan.

BERGARA

Azaroak 25

- **09:00-12:00 / 15:00-18:00** Autodefentsa feminista tailerra Bergarako emakume gazteendako, Agorrosinen.
- **12:30** Marbxanterek antolatutako manifestazioa, Munibe plazan.
- **18:00** Topalekuak emakume migratuentzat: joskintza, migrazioan sendatzeko, Ehunduko lokalean.
- **20:00** Umeendako *Kalean uso, etxean otso* antzezlan, Seminarixoan.

OÑATI

Azaroak 25

- **12:00** Elkarretaratzea Olakua auzoan, urmaelaren ondoan.
- **13:00** Elkarretaratzea herriko plazan.

ARETXABAETA

Azaroak 25

- **11:00** Emakume sortzaileen azoka.
 - **14:30** Bazkari feminista.
 - **16:00** *Ez da kasualitatea* bertso-saioa.
 - **18:30** Mugimendu feministak deitutako elkarretaratzea plazan.
- Oharra: ekintza guztiak Iturrigorri pilotalekuan izango dira; elkarretaratzea izan ezik.

ESKORITATZA

Azaroak 25

- **19:00** Elkarretaratzea plazan.



Aurreko urteko elkarretaratzea. GOIENA

ANTZUOLA

Azaroak 24

- **18:00** *Akelarre* ikuskizuna Torresoroan.

Azaroak 25

- **19:00** Elkarretaratzea herriko plazan.
- **20:00** Bilau taldearen kontzertua Torresoroan.

ELGETA

Azaroak 24

- **18:00** *Genero indarkeriaren biktimarioa eta biktima ezagutzen* hitzaldia Ane Lekandaren eskutik, udaletxean.

Azaroak 25

- **12:00** Elkarretaratzea eta kazerolada herriko plazan. Ondoren, irakurketa plazan.

ARAMAIO

Azaroak 25

- **18:00** Mugimendu feministak eta Udalak deituta kontzentrazioa herriko plazan.

Azaroak 26

- **18:30** Zineklub feminista, *El acusado* filma.

"Enpresak erakarri nahi ditugu Bailara Elkartera"

DANIEL MIGUELEZ BAILARA INDUSTRIAL NETWORK-EKO LEHENDAKARIA
Bailara Elkarreak eta ISEA Kooperatiba Elkarreak jardunaldi bat antolatu dute hilaren 28rako. Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan antolatuko da

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA
Debagoieneko ehun sozial eta ekonomikoa indartzeko eta enpresa elkartuen irudia eta lehiakortasuna hobetzeko sortu dute Bailara Industrial Network Elkarrea. Bertako lehendakaria da Daniel Miguelez (Arrasate, 1963) eta berarekin izan da GOIENA, elkarrearen inguruan gehiago jakin eta antolatu duten jardunaldiaren helburuak ezagutzeko.

Zer da Bailara Industrial Network?
Bailara Debagoiengan kokatutako enpresa talde multisektorial bat besterik ez da, bertako kide diren enpresen irudia eta lehiakortasuna hobetzea helburu



Daniel Miguelez, Bailara Industrial Networkeko lehendakaria. J.M.M.

duena. Bost urteko ibilbidea dugu proiektua definitu baino lehen. Bost urte hauetan eskualdeko enpresa ezberdinak biltzen aritu gara, partekatzen ditugun beharrei erantzun nahian. Bakarririk, oso zaila da helburu jakin batzuk betetzea; taldean, berriz, errazagoa da.

Zergatik sortu zen?

Gu ezagutarazteko beharretik sortu zen, ikusgarritasun handiagoa izateko, lurralde mailan nabarmenagoa izateko, eta beste eskualde batzuetan zerbait egiten ari direlako eta gu ez. Baliabideak eta ezagutza batu nahi ditugu, negozio-aukera berriak sortzeko eta inguruko industria-sarea indartzeko.

Zeintzuk dira elkarrearen helburuak?

Bailara eztabaidarako eta lan-kidetzarako gune komuna izatea nahi dugu, ahots bakarrekoa, eta egunerokotasunean eragiten diguten erabaki estrategikoak hartzen ari diren tokietako bakoitzean entzunarazteko modukoa. Bailarako ikuspegiarekin lerrokatuta dauden enpresa guztiek parte hartu ahal izango dute; gure eskualdeko gizarte-eta ekonomia-sarea indartzeko

lan egin ahal izango dute, baita haien irudia eta lehiakortasuna hobetzeko ere.

Zein da egiten duzuen lana?

Lehenik eta behin, enpresak ezagutzen ditugu, eta, hortik abiatuta, guztiontzat baliagarriak izan daitezkeen ezagutzak eta kontaktuak partekatzen ditugu. Bailara da kontu batzuetan bakarririk lan egitea asko kostatzen zaien enpresei laguntzen ari den ibilgailua; horrela, elkarrekin, ahots bakarra dute erakundetara iristeko.

Zeintzuk dira antolatu duzuen jardunaldiaren helburuak?

Jardunaldiak helburu bat du: gizarteari, enpresei, industria-sareari eta Debagoieneko zerbitzuei jakinaraztea eskualdeko industria-sarea dinamizatzeko eta indartzeko helburua duen elkarre bat dagoela: Bailara. Elkar ezagutzeko eta ezagutzak trukatzeko elkarrekin jardun ahal izatea ere garrantzitsua da; baina, batez ere, ekitaldi honen helburua Bailara hedatzea eta enpresak proiektura erakartzea da. 16 enpresa gaude, baina honek funtziona dezan gehiago izan behar dugu.

PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA


Eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa bere eskuetan utzi.

azaroak

25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna



900 840 111
 DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Txinpantzeak eta bonoboak

Inon diren gorri, laranja, urdin edo more biziek ziprztindutako pintore baten paletan kabitzen ez diren berde tonalitate infinituek apaintzen ei dituzte Kongo ibaiaren ertz biak.

Bi ertz horietako bat txinpantzeen erreinua dugu. Animalia oldarkorra; arrik ahulena emerik indartsuena baino indartsuago denez, soilik arren hierarkian antolatutako taldeak dituzte. Ugalketarako arren borroka gogorak gertatzen dira emeak zeinek estali erabakian.

Ibaiaren beste aldea, berriz, bonoboen errepublika dugu. Bonoboa, primateen hippya... Bonobo arrik ahulena emerik indartsuena baino indartsuagoa ere bada, baina emeak sarean eratuta daude, eta, hala, arrik indartsuena baino indartsuago dira bonobo emeen sareak. Beraz, eme taldeek erabakitzen dute ze arrekin gurutzatu.

SOZIALIZATU, KALEAK HARTU, SARETU... EDO ISOLATU, BAKANDU, ETXERATU


Primateen adibide hori darabilt genero kontuak, berdintasuna, indarkeria, binarotasuna, ezbaian dauden hausnarketan erabiltzeko. Gure espeziara etorrita, emakumeak bakandu beharra indartzen duten bi datu historiko jarraian: emakumeen erlijio-erakundeek sorreran ez zieten etxe nagusi baten bueltan antolatzen uzten, enbor bakarraren adar gisa, gizonen kasuetan legez; etxe autonomoetan antolatu beharra zuten, bakandurik, elkarrengandik aparte. Bigarren ideia maisuki garatzen du Patricia Gonzalez Gutierrezek *Cunnus: sexo y poder en Roma* liburuan, non azpimarratzen duen erromatar inperioan izua ziotela emakumeen arteko solidaritateari. Noizkoa den gizonon izua!

Sozializatu, kaleak hartu, saretu... edo isolatu, bakandu, etxeratu. Emakumeak etxean egon zitezen aitzakia ezin aldrebesagoak erabili dira, ditugu, historian. Baina gizonok, emakumeak aspalditxotik ari zaizkigu bigarren bideari, saretzearenari, alegia, tiraka.

Beraz, epe ertainera ondorioa oso argia da: guk txinpantzearena egiten jarraitzen badugu, eta ari gara, emakumeek bonobotu egingo gaituzte.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Biziduna

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/IRITZIA/HITZ-ETZANAK/BIZIDUNA_2116775_102.HTML](https://www.berria.eus/iritzia/hitz-etzanak/biziduna_2116775_102.html)

"Ez dakiala ze pertsonaren irudia erabiltzen duten ikurtzat Reale Arenan Aitor Zabaleta herri harmailako Bultzada taldekoek?", galdetu zidan beste bertsolari batek.

Galdera egiteko moduak berak adierazten zuen erantzuna ez zela samurra.

Che Guevara aipatu nuen.

Ezetz.

Takefusa Kuboz gogoratuta, ekialdera jo nuen bat-batean.

Ho Chi Minh.

Irribarre maltzurra, eta ezetz.

Futbolera etorri nintzen.

Hau taileenetara.

Diego Armando Maradona.

Ez.

George Best, zeinak milioiak eta milioiak irabazi ondoren kiebra jo zuenean aitortu zuen diru asko xahutu zuela drogatan, alkoholetan eta sexuan... eta gainerakoa alferrik galdu zuela.

Ezetz, are irribarre maltzurragoaz.

Bertakoetara jotzea

erabaki nuen. Arconada.

Ez.

Xabi Alonso.

Gero eta hotzago.

Mikel Laboa ere aipatu nion, bere kantak abesten dituztela jakitun.

Hurbiltzen ari nintzela.

Baina "dando" etsi bat ahoskatuta ireki nion sorpresa eman ziezadan atea.

"Lazkao Txiki!", bota zidan nire harridura aurreikusiaz gozatuz.

Ez nuen han irudikatzen.

Ezta talde horren ikurtzat ere.

"Marrazki bizidunetako Lazkao Txiki", eman zidan azalpena. Hala behar zuen derrigor, taldekideen adina aintzat hartuta.

Eta jabetu nintzen jendarte hau interpretatzen oso dela zaila, nahiz aldaketa eta joerei adi egon.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.500 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Arizmendiarrietaren esanak erabilgarriak dira gaur egun"

LOURDES IDOIAGA ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Hilaren 29an 47 urte beteko dira Jose Maria Arizmendiarrieta hil zela, eta hori kontuan izanik, Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarteak jardunaldia antolatu du, urteroko legez. Eguaztenean egin ziren bi hitzaldi Goi Eskola Politeknikoan, eta hitzaldi horien inguruan eta elkartearen inguruan mintzatu da bertako lehendakaria den Lourdes Idoiaga (Oñati, 1951).

Hitzaldiak eskaini zenituzten eguaztenean Arizmendiarrieta oroitzeko.

Hala da, bai. Bi hitzaldi eskaini genituen: Gurutz Linazasoro aritu zen zahartzearen inguruan gizarteak dituen erronkei buruz, eta Apurva San Juan belaunaldiak elkarrengandik ikasteko dutenari buruz mintzatu zen.

Arizmendiarrietaren inguruko *Hazia* musikala orain paperera ere ekarri duzue.



Lourdes Idoiaga, Goienako egoitzan, 'Hazia' liburuarekin. LARRAITZ ZEBERIO

Bai. Alde batetik daukagu egin diren aurkezpenen zati idatziak, argazkiekin; beste alde batetik, musikaz osatutako disko bat ere badakar liburuak. Hala ere, garrantzitsuena USBa da,

Arriagan aurkeztu zen ekitaldiaren bideo osoa jasotzen duelako. Oso harrera ona izaten ari da. Arizmendiarrietaren ondare bat da, eta dagoeneko eskuragarri dago.

Elkarteari dagokionez, lehendakari berria zara. Zein norabide eman nahi diozu?

Ni pertsona bat naiz talde horretan, baina taldearen funtzionamendutik etorriko da etorkizuna. Talde oso indartsu bat dago. Ni lehendik nator eta zutabe ona geneukan, eta hortik aurrera proiektu pilatxo bat dauzkagu. Sortu ginenetik hona garapen aberatsa izan dugu, eta orain ere horretan jarraitzen dugu.

Arizmendiarrietaren balioek indarrean jarraitzen dute?

Askotan sortzen den galdera bat da. Guk esaten duguna da, ez paralelismoa egitearren, errespetu osoz, Gandhiren pentsamenduak ere antzinakoak direla, Arizmendiarrietaren garai ingurukoak; baina gaur egun erabiltzen dira.

Arizmendiarrietaren idatziak ere erabilgarriak dira, nahiz eta gaurkotu egin behar diren. Adibidez, Arizmendiarrietaren Lagunen Elkartearen barruan lantzen den esparru batean hori lantzen da, baina berak esan zuen gauza bat niretzat erreferentea dena: "Mundua ez zaigu eman kontenplatzeko, eraldatzeko baizik". Orduan, eraldatze horretan, gaur egun, Arizmendiarrietaren hainbat aipamen erabiltzen dira

egunerokotasuneko hainbat kontutarako.

Lan ildo nagusiak, gaur-gaurkoz, zeintzuk dira?

Bost ildo nagusi ditugu, eta horietako bat da, adibidez, Arizmendiarrietaren funts bibliografikoa gizarteratzea. Horretan diharduen lantalde bat badago, bibliografia hori hartu, sailkatu eta katalogatzen duena.

Zer nolako proiektuak bultzatuko dituzue?

Alde batetik, esan dudana, Arizmendiarrietaren funtsaren inguruko lanen digitalizazioa. Orain, baina, beste proiektu batekin hasiko gara; digitalizazio horrekin, eta adimen artifizialaren laguntzaren bultzadarekin, liburu bat argitaratzeko asmoa dugu. Horrez gain, Arizmendiarrietaren artiboaren eta funtsaren trataeraz gain, urte batzuk badaramatzagu lanean hezkuntza arloan, batez ere unibertsitateetan, konturatu garelako unibertsitateetako curriculumean ez daudela kooperatibak sartuta, eta gero eta interes gehiago sortzen duen enpresa eredu dela uste dugu. Aipatutakoez gain, Mondragonekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta beste bazkide batzuekin ere aurrera eramaten ditugu proiektuak.



Realaren eta Betisen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Betis norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida abenduaren 17an, 16:15ean, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: Abenduak 10.



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!





AEDko hainbat ordezkari elkartu zituen astelehenean GOIENA aldizkariak Kulturateko klaustroan. XABIER URTZELAI

Ospakizunentzako tokia ere badago

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak urteurren jaia egingo du abenduaren 2an, 40 urte hauetan egindako guztia ospatzeko helburuarekin: "AEDren oinarria herritarretan dago, bere baitan mugitzen den jendea; beraz, jende hori guztia animatu nahi dugu"

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Helburu bakarra izango du Uarkapen egingo duten jaiak: azken 40 urteotan egindakoa ospatzea. "Gure uste apalean, asko delako AEDk Arrasaten euskara biziberritzeko egindakoa, baita horretarako sortu dituen aukerak, zerbitzuak eta abar ere. Horren adibide dira Ekin Emakumeak Elkarteak, Txatxilipurdi edo Goiena Komunikazio Taldea", adierazi dute AEDko kideek.

Herritar guztiendako zabalik egongo den ospakizuna izango da. "Askotariko herritarrak dira AEDren inguruan mugitzen direnak eta aniztasun hori Uarkapen ikustea ederra izango da".

Ekitaldi nagusia, eguerdian Kulturateko areto nagusian egingo duten ekitaldiarekin abiatuko dute eguna, 12:00etan. "AEDren lorpenetako bat da 40

urtez boluntario soka luze bati eusteko gaitasuna eduki izana. Ehunka, agian milaka izango dira AEDn edota AEDtik sortutako elkarteetan lan egin duten pertsonak, modu boluntarioan gehienak, eta horiei guztiei esker ona adieraziko diegu. Hala ere, ez gara iraganera begira geratuko, harago joateko arrazoiak ez zaizkigu-eta falta. Euskararen kontrako neurri politiko-judizialak, oraindik euskalduntzeke ditugun lan munduko eremuak, transmisioaren beharrekada... Horri guztiari ere egingo diogu tokia. Gainontzean,

ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE ALDE ZAHARREKO BISITA GIDATUAN ZEIN BABA-JANEAN

ez dugu ezer aurreratuko, soilik ekitaldi polita izango dela, bere txikitasunean", azaldu dute.

Bisita eta bazkaria


13:00etan, besteak beste, alde zaharreko bisita gidatua egongo da, Anabel Ugaldere eskutik, eta AEDra deituta edota *kudeaketa@aedelkartea.eus*-era idatzita eman daiteke izena. 14:30ean, baba-jana egingo dute Uarkapen, eta tiketak AEDn, Iratin eta Monten eros daitezke, 15 euroren truke (haurrek, 10 euro). Umeentzako jolasgunea eta haiei jaten emateko aukera egongo da, doan.

Urteurrena borobiltzera

Urteurreneko ekintzek izan duten erantzunarekin "pozik" daude AEDko kideak (ikus eskuinteko argazkiak). Aipatzekoa da, gainera, urteurreneko erakusketa jarriko dutela jaian.



AED, 40 urte Arrasate euskalduntzen erakusketa jarri zuten Kulturaten. GOIENA



Ni ta nitarrak antzezlanaren estreinatu zuten Juan Arzamendi Musika Etxean. AED



Literatura emanaldi musikatu egin zuten, izen handiko kulturagileekin. GOIENA



Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte solasaldia egin zuten. AED

Harrera sarea, etorkinei iritsiera errazteko asmoz

Ekin Emakumeak Elkartek, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioarekin eta Ekai Center Taldearekin elkarlanean, nagusiki migratutako familiei etorrera errazteko helburua duen zerbitzu bat sortu du; webgune batean jaso dute informazio guztia



Ekin Emakumeak Elkarteko Laura Bueno eta Dunixen Royo, aurkezpenean. J.B.L.

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Harrera Sarearen helburua, Ekin Emakumeak Elkarteko kide Laura Buenoren esanetan, zera da: "Arrasatera heltzen den pertsona berri orok bide-orri bat izatea, jakiteko zer zerbitzu dauden erabilgarri errodari, osasun zerbitzuari, hezkuntzari eta beste edozein arlori dagokienez". Funtsean, *Ongietorriarrasatera.asmoz.org* webgunean oinarritzen da zerbitzua, atzetik lan prozesu luze bat dagoen arren. "Tresna hau, Arrasate ezagutzen ez duten pertsonen gain, elkarte, zerbitzu zein eragileentzat erabilgarria izango da".

Ekin Emakumeak Elkartea arduratzen da Arrasatera datozen etorkinei harrera egiteaz. "Ekinek urteetan esperientzia zabala eta sakona pilatu du. Bide horretan sortu dituen informazio, baliabide, tresna eta arazo ezberdinen ebazpenerako bideak ondo bilduta izan ditu urteetan.

Informazio hori guztia Asmoz Fundazioarekin eta Ekai Centerrekin elkarlanean sailkatu, digitalizatu eta analizatu dugu, aurrerantzean ere Ekinera bertaratuko diren migratuei erantzun egokia ematea automatizatzeko helburuarekin, horrela erantzun zehatzago eta azkarra eman ahal izango ditugulako", nabarmendu du.

Asmoz Fundazioaren eta Ekai Center Taldearen lana, funtsean, informazioa sistematizatzea eta pertsona migratuekin elkarlanean aritzea izanda, "benetan haien beharretatik sortutako erreminta bat gauzatu ahal izateko", Buenoren esanetan.

Elkarlan aberasgarria

Ekai Centerreko proiektu kudeatzaile Errukane Aperribaik nabarmendu du gaia ikertzea eta hausnarketa bultzatzea izan dela haien lana, eta gaineratu du "oso aberasgarria" dela Ekinekin elkarlanean aritzea.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Azaroa, hazil oparoa

Bikaina izaten ari da hil beltza. Emakume Txokoak 20 urte ospatzeko jardunaldi feministak, Onintza eta Ainhoaren hitzekin brodatuta, eta "Emakumeak fabrikatzen" hasi dugu azaroa.

Jesusiren omenaldiarekin ondu da herriko emakumeei zor zaien aitortza. Perlata neskei nire miresmena. Egunen batean denok beharko dugun zaintza ere bistaratu dute.

AEDk 40 urte. Topagunean adostutako euskalduntze aro berriko jardunbideari ere oratuko diogu. Eta azken festa, aspaldian elkar ikusteko gauden, artean Txatxilipurdi ez zeneko, begiraleen bilgune bilakatuko zaigu.

Emakumeen hileroko azokari begi-bistakoa da arrakasta handitzen doakiola. Inurrikoek emakumeak bertso kantuan *Tabuen kutxatik oholzara* dakarte. Eta *O Corno, Un amor* filmak... eta Irati Jimenez...

Azaroa=Hazila, hazia ereiteko garaia, feminismoz eta euskaraz hunkitutako hil emankorra izan dugu eta dugu oraindik gozagarri.

Argentinaren emakume bati entzun nion: "Ez dugu aukeratzen, hautatu egiten dugu". Arrazoi du, onik ezean, txarrena ez dena hautatzen dugula sarri, baina ez beti!

BLACK ARRASATE

AZAROAK 24



Estabizmeneko bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora

HERRIAN EROSIZ, ZURE KOLESTEROL-MAILA GUTXITU,
ESTRESA MURRIZTU ETA ZURE ANIMOA HOBETUKO DUZU...
BADA AUKERA HOBERIK?



Bibotea moztu aurretik, azken asteburuari begira

Hilabete osoko egitarauaren ostean, azken asteburuak dute aurretik Mondravember taldeko kideek; adierazi dutenez, orain artekoarekin pozik daude; izan ere, oraindik kontaketa zehatza egin ez badute ere, 9.000 euro inguru batu dituztela adierazi dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Oso arrakastatsuak eta parte-hartzaileak" izan dira egin dituzten ekintza gehienak, Mondravemberreko kide Iban Arroia-beren esanetan. "Pozik gaude egitarauak izan duen erantzunarekin. Bazkari solidarioa, adibidez, bertan behera utzi behar izan genuen, jende askok ez zuelako izenik eman, baina joan den asteburuak erabat arrakastatsua izan zen. Garagunekoekin elkarlanean, 95 bat poltsa banatu genituen eta erosteko aukerarik ote zegoen ere galdetu ziguten askok. Halaber, gure txosna jarri genuen Seber Altube plazan, bertako produktuen azokan, eta txorizo egosi pintxoak jarri genituen, euro baten truke. 180 pintxo zeuden eta guztiak saldu genituen; 200 bat pertsonarendako paella bat ere egin genuen. DJ Asierrek lagunduta, giro ederra sortu zen bazkarian eta mus txapelketa ere ondo joan zen, hogeitaz bat bikoterekin", gaineratu du.

9.000 euro inguru

Diru kontaketa zehatzak oraindik egin ez badituzte ere, 9.000 euro inguru batu dituzte orain arte, Arroia-beren esanetan. Diru kopuru hori, urtero moduan, CIC Biogunera bideratuko dute,



Mondravemberreko hainbat kide, Seber Altuben, zapatuan. IMANOL SORIANO

prostatako minbiziaren ikerketarako, hain zuzen.

Azken asteburuak geratzen zaie Bihar, zapatua, goizean mendi irteera bat egin ostean, talde argazki bat aterako dute Herriko Plazan, 13:00etan, eta Mondravemberreko kideek bazkaria egingo dute gero, Udalpe elkartean. Domekan, 10:30ean, Galarrako kobara bisita gidatua egingo dute, Feel Euskadiko Arantza Otaduiren eskutik eta, ostean, Meatzerrekako elkartearen mokadutxo bat ere egingo dute.

Datorren urtean, hamargarrena Datorren urtera begira, pentsatzen ari dira egitarau motzago bat egitea, hilabete osoko egitaraua egin beharrean. Era berean, hamargarren urteurrena dutenez, zerbait berezia egin gura dutela aurreratu du Arroia-ber. "Gainera, ideia berriak ere baditugu. Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleekin harremanetan jarri gara dagoeneko eta esku zabalik hartu gaituzte. Bestalde, garbi utzi gura dugu talde ireki bat garelako eta batu nahi duten guztiak zabalik ditugu ateak".

'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio musikatuak gaur

Emakume Txokoak antolatuta, *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatuak egingo dute gaur Amaia antzokian, 19:00etan hasita –sarrera doakoa da–. Ane Labaka, Ane Zuazubiskar, Maialen Akizu eta Uxue Alberdi bertsolariak izango dira protagonista, Amaia Agirrek jarritako gaiei erantzunez. Era berean, Gari Otamendik eta Ixak Arru-

tik jarriko dute musika. Inurri elkartearen eskutik, minbizia modu batera edo bestera jasan dutenei laguntzeko eta gizartearen sentsibilizatzeko asmoz jarri dute martxan *Tabuen kutxatik oholtzara* proiektu solidarioa, "gertutik bizitako esperientzien harira", eta Emakume Txokoak bat egin du proiektuarekin. Modu horretan, ikuskizunaren helburua da gaixotasunak inposatzen duen isiltasuna haustea, "mamuak zokoratu eta tabu diren gaiak azaleratzeko".

2.800 txokolate tableta banatuko ditu Ibai-arteak, doan

Beste urte batez, Black Arrasate ekimena jarri du martxan merkatarien elkarteak, erosketak udalerrian egitea aldarrikatzeko. Honako hau da lema: *Herrian erosiz, zure kolesterol-maila gutxitu, estresa murriztu eta zure animoa hobetuko duzu... bada aukera hobetuko duzu? Ekimen horren baitan, bidezko merkataritzako 2.800 txokolate*

tableta doan banatuko ditu aste osoan. "Arrasateko saltokietan erosketak egiteak sarria du. Herriko dendetan egiten den erosketak bakoitzak bidezko merkataritzako txokolate tableta bat jasoko du, baina erosketak esperientzia gozoagoa da une oro antolatzen ditugun ekitaldi, promozio, zozketa eta abarrei esker". Harreman gobernuz kanpoko erakundearekin lankidetzan gauzatutako proiektua da eta hark "izugarri" eskertzen du Ibai-arteak egiten dion ekarpena.

Mattin Aiestaran arkeologoaren hitzaldia eguaztenean

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatutako *Iragana astintzen* zikloaren baitan, *Irulegi, bidaia arkeologiko bat baskoien lurraldera* hitzaldia egingo du Aranzadi Zientzia Elkartearen arkeologo Mattin Aiestaranek, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. Irulegiko Eskuaz ariko da, besteak beste, indusketa hartako zuzendaria.

'Joyas sobre ruedas' topaketa solidarioa abenduaren 3an

Arizmendiarrrieta plazan egingo dute. 09:00etan hasiko dute izen-ematea eta 11:30ean ibilbideari ekingo diote. 14:00etan, bazkaria egingo dute (Centro Cultural Extremeño). 17:30ean, errepidean hildakoei omenaldia egingo diete, sari banaketari ekin baino lehen. Ohi moduan, janari ez galkorra batuko dute, elikagaien bilketara bideratzeko.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



Herbehereetan izan diren Saioa Karate taldeko ordezkariak. SAIOA

Munduko Txapelketatik brontzearekin etorri dira

Arrasateko lau borrokalari izan dira Herbehereetako txapelketan; Danel Izurrategik lortu du domina

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Munduko Kyokunshinkai Txapelketatik brontzezko dominarekin etorri da Saioa Karate Taldeko Danel Izurrategi arrasatearra. Aste bukaeran jokatu zuten txapelketa Herbehereetan. Irati Izurrategi, Aratz Ezpeleta, Aitor Madinabeitia eta Danel Izurrategi izan ziren Arrasateko ordezkariak.

Irati Izurrategi izan zen parte hartzen lehenengoa. "Lehenengo txandan, Kazakhstango borrokalaria izan zuen aurrean. Hasiera pattala izan zuen; Iratik erakutsi ohi duen mailatik apur bat beherago ibili zen, baina egoera horri buelta eman eta borrokaldi ona egiten amaitu zuen. Hala ere, puntuaketa orokorrean epaileek kontrarioari eman zioten garaipena", adierazi du Carlos Sanchez entrenatzaileak. "Ondoren etorri zen Aratz Ezpeletaren txanda. Ezpeletarendako ere lehenengo mundiala zen eta Poloniako aurkaria izan zuen lehenengo kanporaketan. Borrokaldi ona egin zuen, baina azken segundotan kontrarioak ostikada eman zion, eta horrek erabaki zuen garaipena. Hala, aurrerago brontzezko dominagatik lehiaztzeko aukera izan zuen, baina borrokalari ukrainarrak irabazi zion hor", gehitu du.

Finalaren atarira

Sanchez entrenatzaileak dio Danel Izurrategik txapelketa oso ona egin zuela: "Lehenengo txandan, Norvegiako kontrarioa izan

zuen aurrean, eta bi minutuko denbora agortu aurretik eskuan zeukan garaipena. Ondoren etorri zen Kazakhstango karatekaren kontrako borrokaldia. Lehenengo bi minutuetan berdinduta amaitu zuten, eta luzapenean etorri zen Danelen garaipena. Hain zuzen, hankatik bururako teknika batekin lortu zuen irabaztea, eta final-erdietarako txartela eskuratu zuen hor. Finalaren atarian, Ukrainako ordezkaria izan zuen aurrean – ondoren txapelketa irabazi zuena-. Hor, 25 segundo falta ziren arte, borrokaldi parekatua egin zuten, baina azken tarte horretan ukrainarra hobia izan zen, eta hura sailkatu zen finalera. Hala, Izurrategik brontzea eskuratu zuen hor".

Aitor Madinabeitiak Herbehereetako karatekaren kontra egin zuen lehenengo txandan, alegia, etxeko borrokalariaren kontra, eta hori ez da seinale ona izaten. Borrokaldi parekatua izan zen, eta bi minutuak agortu zituztenean epaileak etxeko borrokalariari eman zion garaipena. Bada, Danel Izurrategiren hirugarren postuarekin itzuli dira Arrasatera: "Klubean oso harro gaude; hilabeteak daramatzate txapelketa prestatzen".

FINALAREN ATARIAN, UKRAINAKO ORDEZKARIAREN AURKA GALDU ZUEN IZURRATEGIK

Abenduaren 16an estreinatuko dute 'Udalatx, ura eta atxa'

Besaide Mendizale Elkartek bultzatutako *Udalatx, ura eta atxa* dokumentala abenduaren 16an estreinatuko da; Bilboko Mendi Film festibalean estreinatzeaz gain, Arrasateko Amaia antzokian ere botako dute lana, egun berean. 18:00etan izango da lehen emanaldia, euskaraz; bigarrena, berriaz, 19:00etan, gaztelarazko apzituluekin.

2021ean ekin zioten lanari, Udalatx mendiari balioa emateko asmoz. "Udalatx mendiaren bueltan kokatutako herrietan mende luzez erabili eta ustiatu ditugu haren baliabideak, herri horien sorrera eta oparotasuna Udalatxi eskerrak ere gertatu baitzen, burdinaren, harriaren zein egurraren iturburua izan delako, besteak beste", diote elkarteko kideek. Eñaut Iturbe Besaide Mendizale Elkarteko lehendakari ohiak zuzendu du lana, Iban Ayesarekin batera.

Gabonetako campusa egingo du Ointxe! saskibaloit taldeak

Ointxe! saskibaloit taldeak Gabonetako campusa antolatu du. 2015ean edo lehenago jaiotakoei zuzendutako campusa izango da, eta bi txandatan egingo dute: abenduaren 26tik 29ra, 09:30etik 13:30era; eta urtarrilaren 2tik 5era, 09:30etik 13:30era. Txanda bakoitzak 45 euro balioko du. Izena emateko: 653 01 48 60 edo kirolzuzendaria@ointxe.eus.

Pilatatu Aurrezkoa

Azaroak
24
ostirala

Azaroak
25
larunbata

BEZa*

oparituko dizugu elikagaietan, freskoetan, drogerian, lurrindegian, parafarmazian eta maskotetan.

20 €-tik gorako erosketetan deskontu-txarteletan.

EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu

10€^{**} opari

Abenduaren 31ra arte baina ez!

* Euskadi, Nafarroa, Kantabria eta Málaga-ko EROSKI Hipermerkatuetan promoziora atxikitako sasetako BEZari dagokion zenbatekoa deskontu-txarteletan itzuliko dizugu. 2023ko azaroaren 27tik abenduaren 14ra arte egindako 50€-tik gorako erosketetan trukatuko ahalko dituzu deskontu-txartelak. Deskontu-txartel bakoitzak 10€-ko balioa izango du gehienez, irakzio birkonsumo, eta deskontua lortu ahal izateko gutxienezko erosketak 20€-koa izan behar du. Kontsultatu gainerako baldintzak zure hiki dendan. Baita supermerkadu.eroski.es webgunean ere.

** 2023/12/31ren aurretik lehen aldiz aplikazioa deskargatzen eta beren burua identifikatzen duten lehen 50.000 bezeroei aplikatuko zaie. Erosketetarako 10x50€-ko txartela aplikazioan agertuko da, aplikazioa deskargatu eta gehienez 7 egunera.

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

Belaunaldi desberdinak batzen dituen orkestra

Arrasate Musikalek 50.urteurrena borobiltzeko, Orkestra Sinfonikoaren kontzertua eskainiko du abenduaren 17an; 'Ametsak betetzen' izeneko kontzertuan, orkestrako kideak eta kide ohiak arituko dira; guztira, 100 lagun

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Arrasate Musikalen 50.urteurrena borobiltzeko, Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua egongo da abenduaren 17an, Uarkapen, 13:00etan. "Ametsak betetzen" izeneko kontzertuan, 100 bat kide eta izandako kide igoko dira lagunartean belaunaldi desberdinak batzen dituen kontzertu historikoa eskaintzeko"; hala adierazi du Edorta Ayastuik, Arrasate Musikaleko ekintzen arduradunak.

Lehenengoz 1976an igo ziren oholtzara orkestrako kideak, eta badira ordutik beraien instrumentua ukitu ere egin ez dutenak, Marta Izagirre Arrasate Musikaleko zuzendariak "ilusio handiz" hartutako proiektua dela aurreratu du: "Badaude asko, instrumentua ukitu gabe urteak doazenak, eta horiek ere animatu dira. Askok hasieratik eman ziguten baiezkoa, eta udan hasi zituzten entseguak, eta nahiz eta aspalditik instrumentua ukitu ez, ilusioz beterik daude kideekin elkartzeko".

"Kontzertu oso berezia" izango dela aitortu du Eli Auzamendi Orkestra sortu zeneko biolin-joleak: "Urteak pasa dira batzuk ikusi nituenetik; hasierako irakaslea izan nuen Andres Vazquez, eta biolina jotzen jarraitzen duen arren, urteak pasa dira elkarrekin egon ginen azken alditik". Batzuek musika munduan jarraitzen dutela adierazi du biolin-joleak, eta beste batzuek, aldiz, beste bide batzuk hartu zituztela, baina orain guztiak bilduko dira berriz.

Oholtza bete musikari

Orkestrara kideak eta kide ohiak batzeaz gain, bi gonbidatu berezi izango dira oholtzan gainean: Juan Arzamendiren alaba, Bea Arzamendi –gaur egun Madrilan dihardu lanean–, eta Unai Urrecho, Hego Koreako Suwon



Arrasate Musikalen Orkestra Sinfonikoaren prentsaurrekoa. IDOIA ARANBARRI

"HUNKIGARRIA IZANGO DA KONTZERTUA, BAI IKUSTEKO ETA BAITA JOTZEKO ERE"

Unibertsitateko orkestrako zuzendaria. Edorta Ayastuik erakutsi duten prestutasuna gorai-patu du: "Biak musikari oso onak eta ospetsuak dira gaur egun. Hala ere, hasieratik orkestran parte hartzeko izan duten prestutasuna ikaragarria izan da; espresuki datoz orkestra zuzentzera".

Bi gonbidatu bereziez gain, 100 musikari igoko dira oholtzara, eta asko kanpotik etorriak izango dira, Belgikatik eta Madrilatik, besteak beste. "Zenbaki polita da ehun, eta handia. Ondorioz hasieran Amaia antzokian egin behar genuen kontzertua lekuz aldatzea tokatu zitzaigun, ezin baikinaren eszenatokian horrenbeste sartu".

Kontzertu historikoa

Abenduaren 17ko kontzerturako, jadanik salgai daude sarrerak

herriko hainbat tabernatan: Monte, Kajoi, Ezkina eta Aterpen; JAMEN bertan ere eros daitezke; gainera, bazkide den orok 8 euroren truke eskuratu ahal izango ditu, eta gainontzekoek 10 eurogatik. 1.000 sarrera jarri dira salgai, eta guztiak agortzea espero den arren, saltzen ez direnak egunean bertan jarriko dira salgai Uarkapeko leihatilan.

Bai Arrasate Musikaleko zuzendariak bai ekintzen arduradunak herritarrak kontzertura joatera animatzen ditu; Edorta Ayastuik dio "kontzertu historikoa" izango dela, "hunkigarria bai ikusteko, bai jotzeko". "Ez da egunero 100 laguneko orkestra bat ikusten, gozatzeko izango da", gaineratu du Marta Izagirrek.

Santa Zezilia omenduz

Beste hainbat ekitaldi ere badiutze eskuartean; izan ere, Santa Zeziliaren omenez, Arrasate Musikaleko musikariak herriko kaleetara irtengo dira gaur: lehenengo, Arrasate Musikaleko Banda Gazteko kideek kalejira bat eskainiko dute (17:30), eta, ostean, Arrasate Musikaleko Gaiteroek (19:30).



Maiteder antzezlanean, Fabrice Jacob eta Amaia Hennebutte. KIRIBIL KONPAINIA

'Maiteder' familia guztiarendako antzezlana, Kulturaten

"Emozioz beteriko" bidaia bat egitera gonbidatzen duen antzerkia izango da gaur Kulturaten

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Lapurdikoko Kiribil konpainiak sorturiko *Maiteder* antzezlana egongo da gaur Kulturaten. Bi antzezle –Fabrice Jacob eta Amaia Hennebutte– baino ez dituen ikuskizunak bidaia bat egitera gonbidatzen du publikoak; hala adierazi du *Maiteder*-eko antzezle den Amaia Hennebuttek: "Antzezlan bat ikustean bidaia-tzea izaten dut helburu, eta zehazki antzezlan hau bidaia bati buruzkoa da".

COVID gaixotasunak sortutako pandemia eta etxean gertatzeko beharra ardatz hartuta, bikote batek, irudimenari esker, egongelan izanik munduan zehar eginiko bidaiak kontatzen ditu istorioak. Antzezlana bera gauza gutxiarekin egiten dutela aitortu du Amaia Hennebuttek: "Egunerokotasunean erabiltzen ditugun objektuak izaten ditugu antzezlanean; ez da inongo at-

trezzo ikaragarri izaten; beraz, arin bidaiatzen dugu".

Gainera, euskarazko antzerki bisuala izateak nornahik ikusi dezakeen antzezlana izatea dakar: "Nornahik ikusi dezake, oso bisuala denez, ez da zertan guztia ulertu".

Haur eta helduentzat

Sarrera doakoa den arren, Kulturatek aurretiazko izen ematea jarri du martxan. Hala, sarrera kontrolatu bat izango dute; izan ere, haurrentzat zuzenduriko ikuskizuna den arren, ez da txiki-kientzat, eta gurasoak ere gonbidatzen dituzte antzezleek: "Polita izaten da haurrek zein helduek gure ikuskizunaz gozatzeta, eta biziki polita momentu emozionalak bizitu eta partekatzea". Hori horrela, *Maiteder*-eko antzezleak guztiok elkarrekin emozio bat bizitzea espero eta bilatzen du.

OHARRAK

'All in da house' freestyle txapelketa

Gaur jokatu da Gaztetxean *All in da house freestyle* txapelketako hirugarren kanporaketa. Jaio, *Papaya*, *Muxker*, Aissa, Markel eta Izar egongo dira oholtza gainean.

Margolarien erakusketa, Kulturaten

Abenduaren 9ra arte ikusgai izango dira Kulturaten Arrasateko Margo Taldeko 18 kideren 104 obra.

Umorea eta opera, igandeko Gala Lirikoan

Ozenki elkartearen eskutik *Una noche en el teatro de la comedia* antzezlan lirikoa igandean, 19:00etan, Amaia antzokian.



Umeak, nagusiak eta Maitane Goñi, kaxekin jolasean. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Etxeko txikiak arte eszenikoetara hurbiltzen

Haziaraba in the Mapping jaialdiaren barruan 'Kutxak askatu' tailerra egin zuten eguaztenean kultura etxean. Haurrek eta nagusiek kartoizko kutxekin jolas egiteko aukera izan zuten proposamenean, imajinazioa eta sormena garatuz

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Etxeko txikiak arte eszenikoetara hurbildu eta imajinazioaren eta sormenaren bitartez jolas egiteko proposamenak aurkezten dituen programa da Haziaraba in the Mapping jaialdia. Paraiso Antzerkia taldea dago jaialdiaren atzean. Badira sei urte jaialdia antolatzen dutela, eta aurten ere jaialdiak geldialdia egin du Aramaion.

Hiru proposamen ekarri dituzte Aramaiora aurten. *Nomadak* ikuskizuna, *Minimach* animazio filmak, eta eguaztenean egin zuten *Kutxak askatu* tailerra.

Imajinazioa garatzen

13 familiak eman zuten izena tailerrean parte hartzeko, eta Paraiso Antzerkia taldeko kide Maitane Goñi ibili zen dinamizatzaile lanetan. "Gauza gutxirekin jolas egin daitekeela ikusiko dugu tailerrean. Kartoizko kutxa simple batzuk autoa, txakurra, itsasontzia... izan daitez-

ke", azaldu zuen Goñik tailerra hasi aurretik.

Sei urte baino txikiagoei zuzendutako tailerra izan zen. Nagusi batek lagunduta, kultura etxean jarritako eszenatokian jolas egin zuten, Goñik aurkeztutako kaxekin. "Hasiera batean, nagusiak ez dira asko egitera ausartzen; txikiak gehiago animatzen dira; baina, poliki-poliki, nagusiak ere animatzen joaten dira", gehitu zuen Goñik. Hainbat pertsonaia edo gauza imitatuz hasi ziren, eta, azkenik, kaxak margotu eta apaintzen amaitu zuten saioa.

Hazkuntzako tresna

Umeak arte eszenikoetara hurbiltzeak duen garrantzia nabar-

**EUROPAR
BATASUNeko 17
HERRIALDETAko 18
BAZKIDE DAUDE
PROIEKTUAN SARTUTA**


mentu zuen Goñik, artea eta kultura hazkuntzako tresna baliagarriak direla nabarmenduz. Haziaraba in the Mapping ikerketa artistikoko proiektua da, galdera irekiz betetako prozesua, eta ikus-entzule horien dimentsio estetiko eta esperientzia sensoriala mapatzera eraman behar dute. Haurtzaroren ideian arakatu behar dutela diote, ikusle garaikide gisa, eta ez bakarrik etorkizunaren ideian.

Aramaio Kultura zinegotzi Libe Ramila: "Aramaiora horrelako jaialdi bat ekarri ahal izatea aukera izugarria da. Txikiak ez dituzte kultur ekitaldi asko izatean, eta jaialdi honetan mimoz antolatzen dituzte euren dako proposamenak".

Mapping proiektua Europar Batasuneko lurralde osoan hedatzen da, eta Europako 17 herrialde eta 18 bazkide batzen ditu -horien artean dago Paraiso Antzerkia taldea-. 2024an ere proiektuari jarraipena eman nahi diote.

Etxahun Lekue, txapeldun

Barikuan jokatu zuten Aramaio IV. Kopla Txapelketa, eta parte hartu zuten hamar bertsolarien artean Etxahun Lekue izan zen onena. Klean egindako saioaren ondoren, eskolako jangelan egin zuten afaria eta bigarren saioa. Buruz burukora Lekue eta Maialen Akizu iritsi ziren. Bestalde, publikoaren saria Jon Mata antzuolarrak irabazi zuen.



ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Hainbat baso-lan egiteko laguntza eman du Aldundiak

Aramaio Udalak Foru Aldundiko Mendi Sailaren dirulaguntzak eskatu zituen baso sailei, pistei eta basoari lotutako urteko lan ezberdinak egiteko; eskatutako arlo guztietan jaso ditu laguntzak Udalak.

Ondorengo lanak egingo dituzte. Inausketak, sastrakak kendu eta garbiketa lanak, Zalgón, Lurgorri, Besaiden eta

Barrausen, 7.525,23 euroko dirulaguntza. Beitia Naturlanak enpresari esleitu zaio lana. Gastua, guztira, 15.050,45 eurokoa izango da. Ongarria bota, Besaiden, 579,60 euroko dirulaguntza, Beitia Naturlanak enpresari esleitu zaio lana. Gastua, guztira, 1.449 eurokoa izango da. Landaketak eta itxiturak, Lurgorri, 14.355 euroko dirulaguntza, Beitia Naturlanak enpresari esleitu zaio. Gastua, guztira, 15.950 eurokoa izango da. Ahalik eta azkarren egingo dituzte lanak.

A25

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeke, elkarretaratzea

Bihar izango da Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna; atzo, eguna, pornoa familian nola kudeatu hitzaldia egin zuten; bihar, elkarretaratzea egingo dute plazan, 12:00etan. Etzi, 18:30ean, *El acusado* filma eskainiko dute.

Mugikortasunari buruzko inkesta egiten ari da Aldundia

Foru Aldundia mugikortasun inkesta egiten ari da egunotan. Asmoa da Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Iraunkorren Plan berria egitea. Modu horretan, erabiltzaileek mugikortasunari eta hiri arteko garraio-sareari buruz duten pertzepzioa ezagutu nahi du Aldundia, eta zerbitzua hobetzen laguntzeko ideiak jaso.

Aramaio Udalak WhatsApp kanala jarri du martxan

Aramaio Udalak *Aramaio Bizi* WhatsApp kanala jarri du martxan. Herrian antolatzen dituzten ekintzen berri emateko kanala izango da; gaur egun Udalak duen *Aramaio.eus* atariari gehituko zaio. Sare sozial ezagunean izena eman besterik ez da egin behar kanala jarraitzeko. Komunikazioan aukera berria izango dela azaldu dute.

Bizente Goikoetxea abesbatzak domekan egingo du kontzertua

Azaroan 22an, eguaztana, izan zen Santa Zezilia eguna; bada, musikarien eguna dena ospatzeko kontzertua egingo du Bizente Goikoetxea abesbatzak domekan. 12:00etan meza esango dute Ibarrako elizan, eta ondoren egingo du kontzertua Aramaio abesbatzak. Anton Herrarte da abesbatzako zuzendaria.

Gida, zainketak denboraz planifikatzen laguntzeko

'Zuk jakitea nahi dut...' gidaren berri eman zuten atzo Gipuzkoako Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordeak eta Udalak; horren helburua da zaintzaren inguruan hitz egiten hastea, behar hori iristean norberaren nahiak errespetatuak izan daitezen

Mirari Altube ARETXABALETA

Pandemia sasoiari abiatutako hausnarketa baten emaitza da *Zuk jakitea nahi dut...* gida. Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordeak, Foru Aldundiarekin lankidetzan, egin du, eta helburua da zainketak errespetuz planifikatzen laguntzea.

Etika Batzordeko kide den Olaia Arana oretarrak aurkeztu zuen hori Arkupen, eta haren esanetan, zaintzaren gaia mahai gainean jarri behar da horien beharretatik libre ez dagoelako inor: "Argi dago gure bizitzako unerren batean behar-kor ditugula. Eta horien beharra iritsi aurretik aproposa izango litzateke hausnarketa eginda izatea eta etxekoen aurrean adierazita, zer eta nola jaso nahi ditugun, esaterako". Samurra ez dela onartuta ere, beldurra kendu eta normalizatzea gomendatu du; hala, pertsonak "bere bizitzaren burujabe eta protagonista izaten jarraitu" ahal izango du gaixotasun edo mendekotasun unea iristean ere. "Eta hori autozaintza ere bada, norberaren zaintzari aurrea hartu eta denboraz arduratzea".

"Eraldaketerako pausoa"

Udaleko Ongizate Sailak bidertatu zuen hitzaldia, eta Nerea Zubillaga zinegotziak adierazi du tresna interesgarria eta baliagarria dela gida: "Askotan, pertsona izaten da zaindua haren nahiak kontuan izan gabe, eta hau da tresna bat adostasun batera iristeko zainzailea eta zaindua. Gaur egun dauzkagun zaintza eredu batzuk eraldatzen hasteko pausoa ere bada". Gaineratu du gaur egungo ereduak, erakundeetatik sustatutakoak, ez dituztela pertsonen nahiak errespetatzen. "Horregatik tokian tokiko zaintzek garrantzi handiagoa hartzen dute, eta Udalak, gertuen dagoen erakunde publikoa izanik, zeregin berezia du".



Bi lagun Durana kaleko eserleku batean. GOIENA

Zaintza erronka handia da?



OLAIA ARANA ETIKA BATZORDEKO KIDEA

"Zaintzari dagokion lekua eman behar zaio"

"Bai, gure gizartea, gainera, Europako zaharrena da eta 2030ean %30 izango gara 65 urtetik gorakoak. Joan den astean, esaterako, horren gaineko kongresua egin zen, eta datorrenean, greba dago deituta. Zaintzari dagokion lekua eman behar zaio. Beti egon izan dira emakumeen kargu; ez zaie baliorik eman, ezta behar bezalako aitortzarik egin ere; isilpean egindako lana izan da. Dokumentu hau da beste pausoa bat zaintzari emateko dagokion lekua eta garrantzia".



NEREA ZUBILLAGA UDALEKO ONGIZATE ZINEGOTZIA

"Ardura ez dago era justu eta parekidean banatuta"

"Bai, eta erakunde zein norbanako guztiok dugu erantzukizuna erronka horren aurrean. Zaintzaren ardura ez dago era parekide eta justuan banatuta: emakumeek hartzen dute pisu handiena eta pertsona migratuak dabilta baldintza ez duinetan; eremu formalean dihardutenak ere langile prekarizatuak dira. Horregatik, tresna garrantzitsua izango da greba orokor feminista, zaintza erdigunean jartzeko eta kontzientzia hartzeko, hori guztiori lantzeko dagoelako".



OIHANA ELORZA

Merkatariak gertu Gabonetarako

Domekan grabatu zuten Gabonetako iragarkia, Urkulun, Aretxarteko merkatariek, Kepa Errasti eta AZ Gaubelak lagun hartuta. *Braveheart* filma hartu dute oinarri aurrean, erosketak herriko komertzioetan egiteko mezua zabalteko; *Ez duskue sekula gertutasuna kenduko* leloa erabiliko dute horretarako. Gabonetako kanpaina datorren astean aurkeztuko dute.

Mendi federazioaren aukerak aldatzeko epea zabalik dago

Murrukixoko mendizale elkarteak jakinarazi du bazkideetza eta mendi federazio aukerak aldatzeko epea zabalik dagoela. Euskal mendizale federazioaren informazio guztia, lizentziaren estaldurak eta prezioa, besteak beste, *Efm.eus* webgunean dago.

Aldaketak egiteko edo zalantzak argitzeko elkartera bertara jo behar da; horretarako, helbide elektronikoa bidez jakinarazi – *murrukixoko@outlook.com*– edo Mitarte kalean duen bulegora jo martitzenetan (19:00-19:30). Azken eguna abenduaren 5a da. Era berean, bazkideei eskatu diete norberaren helbide elektronikoa helarazteko hartu-emanak errazteko.

Aretxarte omenduko du UDAk domekako futbol partiduan

Ohorezko erregionaleko futbol taldeak Bergararen aurkako partidua du domekan (16:30), eta Aretxarte merkatarien elkarteak omenduko du partidu horretan UDAk. "Urteak darmatzate herriko elkartei laguntza eskaintzen eta guk eskertza bueltatu nahi diegu", adierazi dute UDAtik. Horretarako, 20 euroko 25 bonu zozketatuko dituzte bazkideen artean Aretxarteko komertzioetan gastatzeko; domekan bertan egingo dute zozketa hori, eta ondoren jakinaraziko diete irabazleei.

Aretxarteko hainbat komertzio, bere aldetik, *Egun urdinak* izenarekin hainbat beharpen dituzte aste honetan.

OHARRAK

Bertso musikatuak

Ez da kasualitatea saioa eskainiko dute Oihana Iguaran, Maider Arregi eta Ane Zuazubiskar bertsolariak bihar (16:00), Iturrigorri pilotalekuan. Azaroaren 25aren baitan antolatu dute.

Gaztaina saltzailea

Aretxartek gonbidatuta, gaztaina saltzailea izango da hilaren 28an, Mitarte kalean.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Aretxabaleta Abesbatzako kideak parrokian, martitzeneko entseguan. MIRARI ALTUBE

Askotariko kantuekin osatutako kontzertua etzi

The Beatles eta Nino Bravoren abestiak eta beste hainbat kanta ezagun eskainiko dituzte Aretxabaleta Abesbatzak, Leizarra musika eskolako abesbatzak eta hainbat bakarlarik, Frantzesena aita-emeek lagun eginda pianoarekin eta perkusioarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Azken entsegua egingo dute gaur, egubakoitza, eta domekarako prest izango dira. Aretxabaleta Abesbatza, Leizarra musika eskolako abesbatza eta hainbat bakarlarik elkartzeko dira, besteak beste, Maider Garai, Imanol Aizpurua, Mari Karmen Etxeandia, Javier Lizarazu, Lurdes Urkia, Ciriaco Sandoval eta Mariatxen Urkia. 50 abeslari horiei Jose Luis eta Unai Frantzesena aita-emeek lagun egingo diete pianoarekin eta perkusioarekin, hurrenez hurren. Hamalau abestirekin osatutako emanaldia 19:00etan izango da, Andre Mariaren Zeruratzea parrokian.

The Beatles eta Nino Bravo

Askotariko kantuak eskainiko dituzte; besteak beste, The Beatles taldearen hiru abesti, Nino Bravoren beste hiru eta beste hainbat kanta ezagun; aukeraketa horren arrazoia azaldu du Angel Barandiaran zuzendariak: "The Beatles aukeratu dugu azken urtean zeresana eman duen taldea izan delako. Eta Nino Bravo, haren heriotzaren 50. urteurrena betetzen delako aurretik". Horrez gain, Benito Lertxundiren *Bizkaia maite* ezagunaren bertsio bat ere abestuko dute.

Frantzesena aita-eme azpeitiarrak izango dituzte lagun, beste hainbatetan legez: "Abes-

batzak kantuan ekin zionetik dugu harreman estua Jose Luisekin. Organoa jotzera sarri etortzen da eta gure emanaldietan parte hartzen du; guk ere abestu izan dugu Loiolan, esaterako, haren bitartez".

Gabonetan, bi kontzertu

Gabonen bueltan ere emango dituzte kontzertuak; bi, hain zuzen. Abenduaren 17an, Frantzesenak organoa joko du eta Mariatxen Urkiak kantuan egin. Abenduaren 30ean, ostera, Aretxabaleta Abesbatzaren ohiko emanaldia izango da; lehenengo zatian, Mozarten *Koroatze meza* abestuko dute, eta bigarrenean, Gabonetako kanta ezagunak.

Abian da 'Egin ttap!' lehiaketa, taldean euskaraz aritzeko

Zazpi egunetan askotariko zazpi galdera erantzungo dituzte online 9 eta 12 urte arteko gaztetxoek

M.A. ARETXABALETA

Euskaltzaleen Topagunearen baitan sortutako Kukulaisi elkarteak *Egin ttap!* lehiaketa deitu du, eta Loramendik bat egin du euskaraz ondo pasatzea, *quizz* dibertigarri baten bitartez.

Azaroaren 24tik 30era iraungo du lehiaketak, eta egun bakoitzean zazpi galdera erantzun beharko dituzte partaideek, ahalik eta azkarren. Galderekin asko jorratuko dituzte, besteak beste, kultura, natura eta geografia.

Taldeka hartuko da parte; hurrekin eta helduekin osatutako bi eta bost lagun arteko taldeak izango dira. Hurrek 9 eta 12 urte bitartekoak izan beharko dute, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. maila artekoak, eta, gutxienez, heldu bat egongo da. Izena emandakoei egunero bidaliko diete esteka bat mugikorrera, jokatzeko; 18:00etan jasoko dute.

Puntu gehien lortzen dituzten hamar taldeek aurrez aurreko finala jokatuko dute. Abenduaren 3an izango da hori, kiroldegian.



UDA

Bola-joko denboraldiari agur

Lasturren jokaturako Euskal Herriko 33. Hiru Txirilo Txapelketaren amaierarekin bukatutzat eman du denboraldia UDAko taldeak. Eibarko Asola Berri elkarteak Sergio Rodriguezek irabazi zuen txapelketa, eta UDAko Jesus Mari Gorosabelek bederatzigarren postuan bukatu zuen; Isana Gorosabelek, bigarren; eta Nerea Letek, laugarren.

Durana
Hartz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Hiru eguneko egitaraua Euskararen egunerako

Eskoriatzako Udalak euskara ardatz hartuta hiru eguneko egitaraua luzatu die herritarrei; guztien gozamenerako ekintzak antolatu dira, eta urteroko 0km azoka ere izango da Euskararen Egunekeo egitarauaren baitan

Miren Arana Pagaldai ESKORIATZA Euskararen Eguna begira, Eskoriatzako Udalak hiru eguneko egitaraua zabala osatu die herritarrei. Hala, euskara ardatz hartuta, zenbait ekitaldi, emanaldi eta bazkariz gozatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek. Abenduaren batean ekingo diote, *GAITU, Batu ditzagun gure ahotsak* proiektuarekin; plazako karpan, 18:00etan hasita eta auzolan digitalean, Udaletik adierazi dute eskoriatzarren ahotsak jaso gura dituztela, makinek eta inteligentzia artifizialak euskara ulertu eta hitz egin ahal izateko.



Iazko 0km azoka, Ibarraundin. IMANOL SORIANO

Zapatu musikatu

Zapaturako, egun osoko egitaraua antolatu da, eta egunarekin lasteko Potx eta Lotx pailazoan *Aireportuan* emanaldia izango da, 12:00etan, Zaldibar antzokian eta dohainik. Plazako karpan, herritarren gozamenerako, Txalaparta taldea, Hanka Motx Bertso Eskola eta Lide Arregi eta Urko Egaña oñatiarren eskutik bertso-kalejira emanaldiak izango dira; eta, jarraian, 14:30ean kantu bazkaria. Sei Pistols & Trabuko Bat taldea izango da bazkariko gidari, eta 16 urtetik gorakoek 15 euroren truke, edo 15 urtetik beherakoek 12 euroren truke eskuratu ditzakete bazkariko txartelak; Urrestilla edo Inkernu tabernan izango dira, azaroaren 28ra arte.

Musikarekin jarraituko du egunak; Mugi Panderoaren eskutik dantzaldia izango da karpan arratsaldeko zortzietan, eta, gauean, 23:00etan, Inkernu tabernan, DJ Karapaixoren kontzertua egingo da.

Euskararen Egunean bertan egingo diren bi ekitaldirekin amaitu du Udalak egitaraua osatzen: urteroko zero kilometroko azoka izango da aurten egitarau honen baitan, eta abenduaren 3an egingo da, baita

"HERRIAN EROSI EZEAN, ARTISAUAK ETA BERTAKO MERKATUA DESAGERTUKO DIRA"

helduentzako *Ispiluak* ipuin kontaketa ere; Zaldibar antzokian izango da, 19:00etan.

Zero km-ko azoka

Urteroko 0km azoka aurreratu dute aurten; normalean abenduko zubiaren ostean Ibarraundin egiten den arren, aurten Herriko Plazan dagoen karpa aprobetxatuz, abenduaren 3an izango da azoka. Arantxa Unzueta Kultura teknikaria izan da antolaketa lanetan, eta azokan aldaketak datozela aurreratu du: "Lehen, Eskoriatzako artisauak izaten ziren, eta orain bailara osora zabaldu dugu gonbidapena; oraingo, bi ekoizle baiezatu digute, baina gonbidapenak bertan jarraitzen du".

Azokan bertan, Debagoienean egindako zenbait produktu erosteko aukera izango da: poltsak, ilarako gomak, haziz eginiko

lepokoak, xaboiak, olio esentzialak eta haziz beteriko zaku beroak, besteak beste.

Gizartearen kontra

"Azokaren helburua Gabonetako opariak erosteko aukera eskaintzea da, Eskoriatzan bertan egindako produktuen eskaintza egitea, baita bertako artisauak nolabait promozionatzea ere", adierazi du Kultura teknikaria. Gainera, gizartearen kontra, herriarriak hartzen ari den joerari "aurka" eginda, herritarrek bertako produktuak erostera animatzen ditu, "iraunkorrak" direlako: "Munduko beste puntatik ekarritako gauzak erosi beharrean, behin erabili eta ostean bota egiten ditugun gauza horiek erosi beharrean, azokan erostera animatzen ditut guztiak; bertakoari aukera bat ematea, eta eskuz egindako lanak balioan jartzea".

Arantxa Unzueta azpimarratu du "garrantzitsua" dela bertakoei erosi eta aipatutako aukera hori ematea: "Herriaren erosi ezean, artisauak eta bertako merkatua desagertu egingo dira; horregatik, guztiak gonbidatzen ditut azokara etortzera".

Itzartu Gazte Asanbladaren urteurren ospakizuna

Eingeike kultur taldearen alternatiba gisa sortutako asanbladak urteetarako lana du oraindik

Miren Arana Pagaldai ESKORIATZA Aurreko urteko azaroan sortu zuten eskoriatzarrek Itzartu Gazte Asanblada, "Eingeike kultur taldearen alternatiba gisa sortu genuen, buelta bat ematea zen ideia eta herriari bultzada bat ematea", azaldu du Leire Lezeta asanbladako kideak.

Orditik, buru-belarri aritu dira lanean gazteak, eta egindako lana "aitortzeko" ospatuko dute eguna: "Lehenengo, presoen aldeko manifestaziora etortzera gonbidatuko ditugu gazteak; gero, poteo musikatuarekin ja-

rraituko dugu, eta, amaitzeko, afaria egingo dugu Kultur Etxean".

Etorkizun oparoa

Izandako urtea ikusita, "esperantza" dute kideek Itzartu urte gehiago beteko dituela, eta aurrera begira jarriak dira: "Hilabetero bilerak egiten saiatuko gara. Behin urteko helburuak zehaztuta, eta horiek kontuan izanda, erabakiko dira hilero egingo diren ekitaldi eta dinamikak; batzuk talde barrurako izango dira eta besteak ez".

A25

Elkarretaratzea antolatu du Emakume Feministen taldeak

Hilaren 25ean, Emakume Feministen taldeak elkarretaratzea antolatu du: Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

Azaroaren 30eko grebarako deialdia ere egin du taldeak: bizitzan zehar zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidearen alde.

'Sex Sua' umore eta dramazko musikala, Zaldibar antzokian

Sex Sua umore eta dramazko musikala azaroaren 26an, domekan, izango da Eskoriatzako Zaldibar antzokian ikusgai. Emanaldia 19:00etan egingo da, eta jadanik sarrerak eros daitezke, bost euroen truke kiroldegian bertan edo *Bibe.me* webgunean.

Andoni Mutiloak sortutako musikalean, aktore bakarra arituko da oholtza gainean, eta ligatzeko aplikazioen ondorioz gure gizartearen sortzen ari diren harreman mota berriei buruzko hausnarketa izango du ardatz. Hala, ikuslea aktorearekin batera ilusio faltsuen bidean barneratuko da, umorez eta dramaz betetako bidaia egiteko.

Pirritx Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna, gaur

Gaur izango da, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren eskutik, *Ez gara jaitsiko* ikuskizunaren estreinaldia. 18:00etan hasita, ordubeteko ikuskizuna izango da, 2 urtetik gorakoei zuzendurikoa -2 urtetik beherakoek dohainik-, eta sarrerak 6 euroren truke eskuratu daitezke: kiroldegian bertan eta *Bibe.me* webgunean.

Euskarazko jolas eta jostailuen erakusketa, Kultur Etxean

Azaroaren 27, 28 eta 29an euskarazko jostailuen erakusketa egongo da Eskoriatzako Kultur Etxean; 17:00etatik 19:00etara izango da erakusketa. Egun horietan zehar, txapelketak antolatuko dira, eta bertaratzen diren haur eta gazteek jostailuak ikusi eta probatzeko aukera ere izango dute.

Euskarazko mahai jolasak eta jostailuak batzen dituen erakusketa izango da batez ere, baina izango dira ezaugarri gehiago dituztenak ere, adibidez oreka, azkartasuna edota beste nolabaiteko ezaugarriak lantzen laguntzen dituztenak; era berean, hitz egiteko beharrik ez duten jolasak ere izango dira.

KONTU KONTARI

Miren Arana Pagaldai

LEINTZ GATZAGA

Etxaustegi baserriko laugarren belaunaldiko kide bat izan da protagonista Goienako *Kontu kontari* saioan, Martzelina Aranburuzabala Uribe (Leintz Gatzaga, 1943); 1943ko irailaren 26an jaio zen, eta beteta dituen 80 urteetan bizia eman dio soloan aritzeak eta sutondoko epeltasunak.

Rosa Urreta Izeta Goienagusi kidea izan da Aranburuzabalarekin hizketan, eta argi esan dio ez lukeela baserria kaleagatik aldatuko.

Eskola garaia

Bide luzea egiten zuten ume zirenean baserriko eskolara: "Ordu erdiz ibiltzen ginen eskolara joateko; hiru-lau ume joaten ginen auzotik. Goizean jaitsi, bazkaltzeko igo, ondoren berriz jaitsi, eta 16:30ean eskola amaitzean berriz ere baserrira".

Neskak eta mutilak banatuta ikasten zuten arren, asko izaten ziren ikasgela bakoitzean; izan ere, Etxaustegi baserrikoak azaldu du garai hartan jende "asko" bizi zela Gatzagan: "Hogeitaz edo izaten ginen klase bakoitzean; orduan, herritar asko zituen Gatzagak, kanpotik jendea lan bila etortzen zen-eta, eta azkenean kuadrilla galanta egoten zen".

6 eta 14 urte bitartean ikasten ibili ostean, jardunaldi osoz lanean hasi zen Martzelina, gatz fabrikari: "Gatza gizonezkoek egiten zuten, eta emakumeok enpaketatzen aritzen ginen. Hala, zazpi urte aritu nintzen, 21 urte bete nituen arte".

"Jai potenteak"

Adramari jaiak izaten dira Leintz Gatzagako jai nagusiak, eta orduan ere halaxe izaten omen zen: "Familiarrak etortzen ziren herrira, lehengusuak eta guzti; etxea jendez beteta izaten genuen egun osoan zehar". Jai "potenteak" izaten zirela azpimarratu du protagonistak; orkestrak, dantzaldiak eta askotariko musika izaten zela: "Lehen-

**"ONDO MOLDATU
NINTZEN, BAINA EZ
NUKE BASERRIA
KALEARENGATIK
ALDATUKO"**

"Pertsona bakoitzari bere askatasuna eman behar zaio"

MARTZELINA ARANBURUZABALA

Etxean bertan, goxo aritu da Rosa Urreta Izarekin batera Goienako 'Kontu kontari' saioan. Askotariko kontuak ekarri dituzte gogora; umetakoak, esaterako

Martzelina Aranburuzabala, *Kontu kontari* saioiko protagonista. MARKEL ARRAYAGO

go frontoi zaharrean izaten zen musika".

Eskolan bezala aritzen ziren orduan ere, "neskak eta mutilak banatuta"; eta auzoa "urrun" geratzen zenez festa askotara joaten ez ziren arren, bizpahiru tokitan izaten ziren: "Orduan, Maulandan ere izaten ziren jaiak, eta bertaratzin ginen. Ama Maringoa izanik, auzoko Madalena jaietara ere joaten ginen".

Baserriko bizitza

Aranburuzabalak baserriko bizitza kalekoagatik aldatuko ez lukeen arren, urte batzuk bizi izan zituen Arrasaten; izan ere, bertakoa zen Joxe, senarra. Hura Arrasatetik etorri arren, "inor baino baserriaragoa" bihurtu zen: "Oso gustura izaten zen baserrian, eta ezkondu eta gero ere, astebururo igotzen ginen". Urkulu aurretiko garaiaz ari da Martzelina, ura baserriko kalera jaitsi behar zen garaiaz: "Orduan zapatutan ere lan egiten zen, eta lanaren ostean igotzen ginen baserrira; domekan bueltatzen ginen, ura eta guzti hartuta. Ura zen garrantzitsua".

"Desberdina izan zen aldaketa, baserriko kalera; urte batzuk egin nituen, eta ondo moldatu nintzen, baina nahiago dut baserria, ez nuke kalearengatik aldatuko", dio Martzelinak. Gaur

egun, baina, ez da "erreza" baserriko bizitza: "Beharbada, beste moduren batean, soldatarekin edo laguntzarekin, baina ezin liteke bizi baserriko ematen dizunetik, edo oso zaila da". Hala ere, baserriko bizitzak beste "lasaitasun" bat ematen duela aitortzen du protagonistak.

Hasieran, zazpi kide ziren Etxaustegi baserrian, Martzelina bera, anaia, ama eta aita, osaba-izebak eta aitona; eta orduan ere soldata bat zeukaten etxean: "Oso gaztea nintzen aita hil zenean, 16 urte nituen. Beraz, soldata bat sartzen zen etxean; osabak gatz fabrikari egiten zuen lan, eta beste guztia baserriko ateratzen genuen". Gaur egun, baserriko laugarren belaunaldia eta ondorengo biek ere bertan dihardute; Martzelinaren alabak eta bilobak.

Auzotarrak familia

Lau etxek osatzen dute auzoa, eta, orain gehienak kanpoan diren arren, 10-17 artean izatera iritsi ziren: "Hemen, auzoan, denok bata besteari laguntzeko egon gara, familia moduko bat izan da". Izan ere, Martzelinak egunero telefonoz aritzen direla aitortu du, "zer moduz dauden jakiteko bada ere". Esaterako, goizero-goizero deitzen diote elkarri Marilu bizilagunak eta Martzelinak, "lagunarteko" kontua omen da hori.

Etorkizuneko belaunaldiak

Baserriko kalera eta kaletik baserrira ibili da Martzelina; alabak eta bilobak haren pausak jarraitu dituzte, eta orain "oso gustura" daude baserrian. Joxekin egin bezala, Arrasatetik baserrira igo ditu alabak senarra eta biloba, eta zergatia jakin ez arren erabakia beraiena izan dela aitortu du.

Baserrian bizi ala ez, gaur egungo gazteei ere aholku bat eman die Etxaustegi baserrikoak: "Ikusi eta ikasteko aukera gehiago dituzte, eta aukera horiek aprobetxatu egin behar dituzte. Baina askatasun osoz hartu behar dituzte erabakiak; izan ere, pertsona bakoitzari bere askatasuna eman behar zaio".



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Goienakide 2024 paretako egutegia

Debagoiendarron egutegi osatuena



Debagoieneko argazkilariek ateratako argazkiak.

+ Neurri egokia, tokia jantzi dezan traba egin barik: 245 x 368 mm.

+ Argazki-bueltazurria, edozein paretatan ondo eman dezan.

Debagoieneko egun seinatatu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu **lehenengoz**, eta aste honetan jaso dute **Golenakideek** etxean.



2 ale Golenakide bakoitzak

Bi ale jaso ditu bakoitzak. Horrela, ale bat oparitu ahal izango diote nahi duenari.

Maiatza Loraila

	1	2	3	4	5	
	6	7	8	9	10	11
	12	13	14	15	16	17
	18	19	20	21	22	23
	24	25	26	27	28	29
	30	31				

Hil-izena, euskalkian.

Efemerideak.

Debagoieneko herrietako eta auzotako jaiak.

Egun bereziak.

Esaera zaharrak.

Euskal Herriko jalegunak.

Ilargiaren aldiak.

Tenporak.

Aurreko eta osteko hilen egutegia.

goiena kide

Eta jarrai dezatela

+ Barruan, Debagoieneko lanbideen gaineko 10 orrialdeko erreportajea.



goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



PUBLIZITATE GEHIGARRI BEREZIA

KOOPERATIBAK



Bestelako eredua

Komunitate berdinzaleago baten alde egiten dute lan kooperatibek, lana eta berrikuntza oinarri, askotariko sektoreetan jardunez



Debagoieneko kooperatibak eta euren jarduteko era, gertuagotik ezagutuz

Konfekoop-ek emandako datuen arabera, 105 kooperatiba daude Debagoienean. Askotarikoak dira dituzten lan jardunak, eta baita jarduteko erak ere; alabaina, denek dituzte kooperatibismoaren oinarriak gogoan. Parte hartzaile ezberdinen ahotik, proiektuetako batzuk gertuagotik ezagutzeko aukera dago datozen orrietan

Jose Maria Arizmendiarrrieta euskal apaizak eman omen zituen lehen pausoak kooperatibagintzaren arloan. Mondragon Korporazioko enpresa kooperatiboen sustatzailea izan zen, eta, orduetik, hainbat dira Debagoienean zabaldu dituzten kooperatibak, euren proiektuari bide ematera ausartu diren ekintzaileak.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Kooperatiben Kontseiluak emandako azken datuen arabera, 3.616 kooperatiba daude guztira hiru lurraldeetan, eta Patxi Olabarria presidentek nabarmendu du "indartsu" dagoela "euskal kooperatibismoa". Haren arabera, "enpresa egiteko" beste modu baten ezaugarriak baloratu dira COVA-19az geroztik, eta, gainera, "kalitatezko enplegua" sortzeaz gain, "berrikuntzan" inbertitzen dutela uste du. Bada, tartean dira Debagoieneko kooperatibak ere.

Konfekoop Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak bildutako datuak aintzat hartuz gero, bazkide dituzten 1.400 kooperatibetatik 105 dira bailarakoak: Antzuolan, hiru; Aramaion, bost; Aretxabaletan, hamabi; Arrasaten, berrogei; Bergaran, hamahiru; Elgetan, bi; Eskoriatzan, sei; eta, Oñatin, 24. Industria, irakaskuntza, osasuna, zerbitzuak... askotarikoak dira dituzten lan jardunak, baina helburu berdintsuak dituzte, Kooperatiben

Kontseiluaren arabera, sei baitira balio kooperatiboak: autolaguntza, autoerantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitate eta elkartasuna.

Bailarara jauzi

Finantzak, industria, banaketa eta ezagutza dira Mondragon Korporazioa aritzen den eremuak, baina banaketak du pisu gehien: %55. Guztira, 68.743 pertsonak osatzen dute korporazioa, eta horietako bat da Ander Etxeberria Mondragon Korporazioko Hedapen Kooperatiboaren arduraduna. Bada, azaldu duenez, Arrasateko Kooperatibagintza Esperientzian dabilta jardunean egun, munduan "asko" direlako proiektuaren berri izan nahi dutenak: "Beraien begiz konprobatzera datoz. Kontuan izan Mondragon 'ezinezkoa' dela; enpresa egiteko modu tradizionalei desafioa da". Alabaina, nabarmendu du ez dela horrela,

eta euren eredia dela horren adibide: "Jabeak langileak dira, eta bakoitzak boto bat dauka batzar nagusian: ordainsari diferentzia haien artean txikia da, beste enpresa batzuekin konparatuz, eta lana sortzea da helburu nagusia, horrela gizarteari ekarpena eginez. Gainera, kooperatibek beraien artean indarrak batuz, izugarri ahaltzua den sistema osatzen dute".

Bada, badago Mondragonen esperientzia kooperatiboa jorratzen duenik ere: esate baterako, Lanki, Mondragon Unibertsitateko kooperatibismoaren ikerteria. Bertako kidea da Ainara Udaondo, eta kooperatibismoaren gainean ikertzen eta hezkuntza ikastaroak ematen dihardu, lantaldeko kideekin batera, ikerketa, aholkularitza eta hezkuntza baitituzte oinarri. Hori gogoan, adierazi du hiru direla euskal kooperatibismoan azpimarratzen diren ideiak, "kan-

potik" begiratuta. "Aniztasun kooperatiboa, lan elkartuko kooperatiba kopurua eta interkooperazioaren praktika". Are gehiago, erantsi du kooperatibak "erakunde sustraituak" direla inguruotan, eta "gizarte eraldaketarako bokazio argia" dutela.

Eroski Taldea

Mondragon Korporazioko parte da Eroski Taldea ere. 29.000 langile baino gehiago ditu egun, baina 610 frankizia-denda baino gehiagotako langileak gehitu behar zaizkio. 8.800 inguru dira langile bazkideak, eta 64 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz. Rosa Carabel da zuzendari nagusia, eta azaldu du "bizi kalitatea, osasuna eta kontsumitzaileen ongizatea hobetuko dituzten ondasunak eta zerbitzuak gizarteari eskaintzea" dela taldearen egitekoa. Haren arabera, kooperatiba izaerak "indartu" egiten ditu euren balioak,

"elkartasunarekin eta lankidetzarekin" lotuak: "Bi alderdi nabarmenduko nituzke: gure izaera kooperatiboa eta jendearengandik gertu egoteko obsesioa". Era horretan, erantsi du lau direla Eroskiren eredu kooperatiboaren bereizgarriak: "Justua dela, demokratikoa, berdintasuna eta aniztasuna bultzatzen dituela eta ekitatez banatzen duela aberastasuna".

Laboral Kutxa

Eroskiren eran, Mondragon Korporazioko partaide da Laboral Kutxa ere, eta Joseba Barandiaran da Finantza Plangintza zuzendaria, Jasangarritasun arloko ardurak ere badituen arren. Azaldu duenez, hasierako helburuei heltzen die: "Komunitate aberatsagoa, berdintzaleagoa eta jasangarria lortzea, kooperatiba kultura sustatuz". Haren arabera, langileak, bezeroak eta gizarte "zaintzea" dute erronkatzat, eta berrikuntzan ere arreta dute jarrita. Hain justu, beste finantza erakunde batzuekin alderatuta izan ditzakeen ezaugarriak aipatu ditu. "Gizarte konpromisoa eta gobernantza aspaldi berri genuen, Mondragoneko esperientziaren baitan. Orain, ingurumen alorrean ere aurrerapausoak eman nahi ditugu. Txikiak gara, baina ez eskasak". Azpimarratu duenez, besteak beste, Leintz Bailarako Ekiolako kide dira, eta produktu sorta "oso eta berri bat" eskaini nahian dabilta, hala nola "aseguru jasangarriak edo erantzukizun sozialeko Konpromiso funtsa". "Gure negozioa bezala, Lur planetak ere jasangarria behar du izan".

Fagor Taldea

Hor da Fagor Taldea ere. Zortzi kooperatibaz osatuta dago, eta "indartsu eta osasuntsu" daudela diote. Automozioa, makinaren erreminta, ostalaritza eta

"INDARTSU DA EUSKAL KOOPERATIBISMOA; ENPRESA EGITEKO BESTE MODU BATZUK BALORATU DIRA"



PATXI OLABARRIA
KOOPERATIBEN
KONTSEILUA

"LANGILEEN PARTEHARTZEA LURRALDEKO EHUN EKONOMIKO ETA SOZIALAREN INDARGUNEA DA"



EIDER MENDOZA
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

"LANGILEEN ETA INGURUNEAREN BEHARRAK GARATU ETA SENDOTU NAHI DITU ULMAK"



IBON CALVO
ULMA TALDEA

"JENDEARENGANDIK GERTU EGOTEKO OBSESIOA ETA IZAERA KOOPERATIBOA DIRA PUNTU NABARMENAK"



ROSA CARABEL
EROSKI TALDEA

sukaldaritzako ekipamenduak, aeronautika, eguzki energia eta jabetza industrialak sektoreetan ari da lanean, eta Joxean Alustiza da presidentea. Haren arabera, 2013an entzun zen "kooperatibismoaren amaiera" izan zitekeela Fagor Etxetresnak-en itxiera, ez zirela gai izango gertatutakoari aurre egiteko, baina uste du buelta eman ziotela egoerari. "Izan genuen gaitasuna eta abiadura erantzun bat emateko, eta baita ondorioei irtenbide bat emateko ere".

Hamar urte igaro dira ordutik, eta hainbat izan dira Fagor Taldeak eginiko aldaketak. Are gehiago, erronkak ere ez dira duela hamarkada bateko berberak, eta, hain zuzen, horren berri eman du Aritz Otxandiano Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak. Fagor 2030 izeneko iraunkortasun estrategia dute eskuartean, bost ardatzetan banatuta: negozioa eraldatzea, gobernantza eredu demokratikoa hobetzen jarraitzea, enpresa kultura aurreratu bat garatzea, ekoiztutako produktuek ingurugiroan sortzen duten inpaktua murriztea eta eragin nahiko luketen lurraldeak iraunkorrak izatea. "Gu, batez ere, Debagoienan gaude kokatuta, eta gure ekarpena, bereziki, eskualde honetan da. Askotariko eragileen arteko lankidetzan sinesten dugu, eta komunitatearen autoeraketan".

Ulma Taldea

Ulma Taldean ere gogoan dute jasangarritasuna, Ibon Calvo lehendakariak nabarmendu duenez. Haren arabera, "gero eta garrantzi gehiago du" jasangarritasunak, eta "gai garrantzitsuenen artean" ageri dira, besteak beste, auto elektrikoa, CO2 aztarna, energia berriztagarriak, mugikortasun jasangarria eta enpresen taxonomia berdea; bada, hori aintzat har-



tuta, jakinarazi du euren bezeroek, finantza erakundeek eta hornitzaileek jasangarritasunean dituzten "ekintzen berri zehatzak" jasoko dituztela. "Erronka honi ere erantzun aproposa emateko lanean dihardugu. Jasangarritasunaren ikuspuntutik, Ulma Taldearen proiektu kooperatiboaren berrikusketa egin ondoren, jadanik bagenekienaz ohartu gara". Zehazki, nabarmendu du Ulma Taldearen proiektuak "langileen eta ingurunearen beharrak garatzeko eta asebetetzeko helburu nagusia" duela, eta hori erdiesteko "epe luzeko proiektu jasangarri garatu eta sendotua" behar dela. "Ulma Taldearen proiektua inoiz baino gaurkotuago eta indartsuago dago".

Horren berri izateko, datuak eman ditu taldeak. Gaur-gaurkoz, bederatzi enpresa ditu, 5.600 pertsona dabilta lanean, eta 81 herrialdetara zabaldua du bere merkatua. Mundua aldatzen ari dela uste du Ulma Taldeak, eta aldaketa horien parte izan nahi duela, "betiere, gizartearekiko konpromisoarekin eta hobetzen jarraitzeko grinarekin". Hala, enplegua sortzea, berrikuntza bultzatzea eta Debagoieneko "aberastasun ekonomiko eta soziala lagunduko duen enpresa eredu" ditu oinarri nagusiengatik batzuk.

Langileen parte-hartzea

Askotarikoak dira enpresa ereduak eta jarduteko erak, baina Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiaren hitzetan, langileen parte-hartzean jarri behar da arreta. "Lurraldeko ehun ekonomiko eta industrialaren indargune handi bat da. Errealitate horrek garrantzi handia du orainaldian, baina, batez ere, etorkizuneko balio garrantzitsua du, gure ehun ekonomiko eta industria fisikoa bultzatzen laguntzen baitu". Haren arabera, beharginen parte-hartzeak "enpresen lehiakortasuna" hobetzen du, "enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa" sortzen du, eta, gainera, "funtsezko tresna da konpainien errotzea areagotzeko". Horretarako, ordea, erakundeetan partaidetza kultura ere gogoan izan du. "Sakondu egin behar dugu, egungo munduak planteatzen dizkigun eraldaketei berme handiagoz aurre egin ahal izateko".

"ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZAN ETA KOMUNITATEAREN AUTOERAKETAN SINESTEN DUGU"



ARITZ OTXANDIANO
FAGOR TALDEA

"KOOPERATIBEK BERAIEEN ARTEAN INDARRAK BATUZ, SISTEMA AHALTSUA OSATZEN DUTE"



ANDER ETXEBERRIA
MONDRAGON TALDEA

"URRATSAK EGIN NAHI DITUGU INGURUMEN ARLOAN ERE. TXIKIAK GARA, BAINA EZ ESKASAK"



JOSEBA BARANDIARAN
LABORAL KUTXA

"BAILARAN ERAKUNDE SUSTRAITUAK DIRA KOOPERATIBAK, ERALDAKETA BOKAZIOAREKIN"



AINARA UDAONDO
LANKI



Patxi Olabarria.

"Gazteak kooperatibismora erakarri behar ditugu"

PATXI OLABARRIA KOOPERATIBEN KONTSEILUKO PRESIDENTEA
Goren Kontseiluak lau hamarkada bete ditu enpresa eredu bat bultzatzen: jasangarria eta pertsonarengan zentratua

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, KOO-**PERATIBEN KONTSEILUA**k, bere 40. urtemuga ospatu du. Euskal enpresa kooperatiboa indartsua delako uste sendoa du. Gaur egun, 2.000 kooperatiba aktibo baino gehiago daude, eta zuzeneko 60.000 enplegu baino gehiago sortzen dituzte; Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %10, 12.000 milioi eurotik gorako fakturazioarekin. Pertsona kooperatibistei dagokienez, milioi eta erdi baino gehiago direla kalkulatu da, eta euskal biztanleen %70ek badu loturaren bat kooperatibismoarekin.

Zein unetan sortu zen Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua 1983an?

Duela 40 urte sortu zen, Euskadiren autogobernuaren hasieran, euskal erakundeak sortu eta egituratzen hasi zirenean. Lehen euskal legeetako bat izan zen Kooperatiben Legearen ondorioz sortu zuen, kooperatiben sareak industrian, kontsumoan, irakaskuntzan edo nekazaritzan zuen garrantziagatik.

Eta zein zen hasierako helburua?

Kooperatibismoak ez zuen Administrazioarekin mintzatzeko egitura antolaturik. Sortu zenetik, Kontseiluak bultzatu zuen kooperatiben erakundetzea federazio sektorialak sortuz. Horretarako, ACI edo Nazioarteko Aliantza Kooperatibora batu zen, esaterako, Oinarri eta Elkarlan proiektu eta elkarte instrumentalak bultzatuz, eta, ondoren, federazio guztien organo integratzaile berri bat bultzatu zuen, hala nola Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. Gaur egun, enpresa kooperatiboen ordezkariak erakunde horretan dago.

Zergatik da bakarra Espainiako eta Europako kooperatiben munduan?

Bere berezitasuna izaera publiko eta pribatua datza, baina batez ere Eusko Jaurlaritzarekiko eta erakundeekiko independentziagatik. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, euskal unibertsitateen eta KONFEKOOPen ordezkariak osatzen dute Kontseilua.

Zer bilakaera izan du azken lau hamarkadetan?

Hasieran, kooperatibak batu eta ordezkatzeko funtzioa izan zuen. KONFEKOOP eratu ondoren, Kontseiluak bi eginkizun nagusi

ditu: batetik, kooperatibismoa sustatu eta zabaltzea, eta, bestetik, administrazio guztiei aholkularitza edo laguntza ematea kooperatibismoarekin zerikusia duten alderdi guztietan.

Zein da euskal kooperatibismoaren egungo egoera?

Euskal kooperatibismoa indartsu dago. Are gehiago pandemiaren eraginez, enpresa egiteko beste modu baten ezaugarriak baloratu zirelako. Gaur egun, sektore askotan aitzindari diren euskal kooperatiba asko daude, kalitatezko enplegua sortzen dutenak eta berrikuntzan inbertitzen dutenak. Azken hamarkadan, ia 2.000 kooperatiba-enpresa berri sortu dira, eta horrek erakusten du kooperatiba-formula edozein jardura-sektoretara egokitzen dela eta ekimen kolektiborako aukera ona dela.

Nola aldatu dira kooperatibak Kontseilua sortu zenetik?

Erreferentea munduan

2023. urtea funtsezkoa izan da euskal kooperatibismoarentzat, ez bakarrik KOO-**PERATIBEN KONTSEILUA**ren 40. urteurrenagatik, baita Donostia izan delako ekonomia sozialaren hiriburua ere. "Donostia eta Euskadi gizarte-ekonomiaren eta kooperatibismoaren epizentroa izatea ez da kasualitatea", dio Patxi Olabarriak. Goren Kontseiluko presidentearen arabera, "euskal kooperatibismoa nortasun propioa duen kooperatibismoa izan da eta da, hainbat sektore ekonomiko hartzen baititu. Gainera, mundu mailako erreferentia da industria-erloan, bai eta lan elkartuko kooperatibismoan ere". Donostia egin den konferentziak sektoreko 600 aditu inguru bildu ditu, batez ere europarrak. Hainbat bisita egin dira bertako gizarte-ekonomiako enpresetara.



40 urte hauetan, kooperatiba-entrepresa eraldatu egin da, eta, nor-tasun-ezaugarriak, printzipioak eta balioak galdu gabe, ekonomia, teknologia, gizarte, ingurumen eta berrikuntza erronketara egokitzen jakin du. Euskal kooperatiba-mugimendua ez dago errealitate ekonomiko berritik kanpo. Ekonomia digitalean, energia-trantsizioan eta indarra hartzen ari diren sektore berrien arloetan, adibidez, aukera berriak sortu dira entresa egiteko beste modu bat garatzeko, jasangarriagoa eta pertsonarengan zentratuagoa.

Euskal gazteak izan daitezke ekimen kolektiboko aro berri baten bultzagileak?

Argi uste dut euskal gazteria inoiz baino hobeto prestatuta dagoela, eta kooperatibismora erakarri behar dugula. Entrepresa kooperatiboa da gazteen ekin-tzailetzaren asmoei ondoen erantzuten dien forma juridikoa, erabat demokratikoa baita, non pertsonak, jabe izateaz gain, beren entpresa-proiektua auto-kudeatzen baitute.

Zein dira Goren Kontseiluaren egungo erronkak?

Gazteei begira gaude, etorkizuna baitira. Inkestek esaten digute kooperatiba dela gazteek hobekien baloratzen duten entpresa. KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN lana da kooperatibismoaren ezagutza eta hurbiltzea sustatzea euskal gazte-riaren artean.

"KOOPERATIBAK ERALDATU EGIN DIRA 40 URTE HAUETAN, PRINTZPIOAK GALDU GABE"

"GURE ELKARTEA BEREZIA DA EUSKO JAURLARITZAREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO INDEPENDENTZIAGATIK"

"INKESTEN ARABERA, KOOPERATIBA DA GAZTEEK HOBETIKEN BALORATZEN DUTEN ENPRESA"



1. Rosa Lavin, KONFEKOOPEko lehendakaria; Eneko Goia, Donostiako alkatea; Bakartxo Tejeria, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria; Patxi Olabarria, KOOPERATIBEN KONTSEILUko lehendakaria; Iñigo Urkullu, lehendakaria; Nicolas Schmit, Europako Enpleguaren eta Gizarte Eskubideen komisarioa; Eider Mendoza, Gipuzkoako diputatu nagusia; Joaquín Pérez Rey, Estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko idazkaria, eta Belen Alberdi, KOOPERATIBEN KONTSEILUko idazkari teknikoa.
2. Patxi Olabarria, KOOPERATIBEN KONTSEILUko lehendakaria.
3. Nicolas Schmit, Enpleguaren eta Gizarte Eskubideen Europako komisarioa, eta Patxi Olabarria.
4. Patxi Olabarria, Nicolas Schmit eta Iñigo Urkullu, lehendakaria.
5. Fernando Velazquezek zuzendutako Euskadiko Orkestrak interpretatu du Sinfonia Kooperatiboa. Goikobalu Arrasateko Abesbatza, lubilo Bilbao Abesbatza eta Txorbela Otxotea abesbatzek hartu zuten parte.

Denon Artean Saria Europako Batzordeari

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONTSEILUAK, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, Europako Batzordeari Denon Artean Saria eman zion 40. urteurrenaren ospakizun-urteari amaiera emateko, aintzatespen horren hirugarren edizioan, oro har gizarte-ekonomiaren eta, bereziki, kooperatibismoaren alde egindako ekarpenagatik.

Sari honek aitortzen du pertsonak eta erakundeek beste entpresa-eredu baten alde egiten duten lana: sozialagoa,

aberastasuna hobeto banatzen duena, bidezkoagoa eta zuzenagoa. 2018an, lehen aldiz banatu zen saria. Orduan, Jose Maria Arizmendiari. Eta 2021ean Nazioarteko Aliantza Kooperatiboari (ACI).

Nicolas Schmit Europako Enpleguaren eta Gizarte Eskubideen komisarioak Europako Batzordearen izenean jaso zuen saria Donostiako Kursaalaren egindako ekitaldian, eta Iñigo Urkullu lehendakaria ere han izan zen.

Ekonomia sozialak "oparotasuna, berrikuntza eta elkartasuna" bermatzen dituela azaldu zuen Nicolas Schmit-ek. Hala, ekonomia eredu honetan lanean ari diren pertsonen ehunekoia igo beharra dagoela gehitu zuen, "entresa ehun indartsu bat" sortzeko.

Milatik gora lagun

Milatik gora lagun batu ziren azaroaren 13an egindako euskal kooperatibismoaren jaira; besteak beste, kooperatiba-entresen,

Europako agintarien, autonomia erkidegoetako ordezkarien eta Estatuko eta Europako kooperatiba eta gizarte-ekonomiako erakunde garrantzitsuenen ordezkariak zabala bertan zen. Amaieran, Sinfonia Kooperatiboa interpretatu zen. Sinfonia hori *Humanity at music* kultur proiektuaren parte da. Mondragon Korporazioak KOOPERATIBEN KONTSEILUari utzi zion, "kooperatiben munduko balioak transmititzeko eta ospatzeko".



Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendoza, Chillida Lekuko Zabalegi baserrian asteazkenean egindako Partaidetzaren Egunean parte hartu zutenekin batera.

8 22 pertsona –558 gizon eta 264 emakume– Gipuzkoako 116 enpresaren jabeagoan sartu ziren joan den urtean, Aldundiaren pizgarri fiskalen laguntzarekin, eta ia 6,4 milioiko inbertsioa egin zuten horretarako. Orain arteko zifrarik altuenak dira, bai langileei dagokienez, bai konpainia kopuruari dagokionez, 2016an parte-hartzea sustatzeko Foru Araua onartu zenetik, eta %34ko igoera izan da onuradunen kasuan aurreko urtearekin alderatuta, orain arteko errekorra gaindituz. Zerga-araudi hori indarrean egon den zazpi urte-tako emaitza metatuei erreparatzen bazaie, 548 enpresa dira, 3.172 pertsona, eta horiek 39,1 milioi euroko inbertsioa egin dute guztira.

Zerga pizgarri horien balantzea Chillida Lekuko Zabalegi baserrian Aldundiak antolatzen duen Partaidetzaren Egunean hirugarren edizioaren baitan egin da asteon. Eider Mendoza diputatu nagusiak eta Ane Insausti Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatuak foru erakundeak alor horretan egindako apustua eta

822 langile 116 enpresaren jabetzan sartu ziren 2022an, Foru Aldundiaren zerga-pizgarriek lagunduta

Partaidetzaren Eguna antolatu du asteon Gipuzkoako Foru Aldundiak Chillida Lekuko Zabalegi baserrian. Eider Mendoza diputatu nagusiak azpimarratu du langileen parte-hartzea "lurraldeko ehun ekonomiko eta industrialaren indargune handi bat" dela eta, batez ere, "etorkizunerako balio bat"

bere politiken emaitzak partekatu dituzte bertan lurraldeko enpresa-, politika-, sindikatu- eta gizarte-ordezkariekin. Sabin Azuaren ponentzia ere izan da jardunaldian, *Pertsonen komunitateak. Abantaila lehiakorrek sortzen* izenburupean. Ondorengo mahai-inguruan, berriz, Smartlog, Sutargi eta Mondragon Corporation enpresek partaidetzak talentu iraunkorrerako funtsezko elementu gisa jotzen duen papera jorratu dute.

Pizgarri fiskalez gain, Aldundiak urtero bideratzen ditu laguntzak Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Siletik, lurraldeko enpresetan parte hartzeko proiektuak sustatzeko, ezagutza sortzeko, tresnak sortu eta garatzeko, esperimentatzeko eta partaidetza-kultura zabaltzeko. Aurten, guztira, 23 ekimen babestu dira, eta 736.000 euroko dirulaguntza jaso dute. Azken 6 urteetan, 680 enpresatara eta 16.900 langiletara iritsi da; %85, 100 pertsona baino gutxiagoko enpresetara bideratu dira eta %42 industriara, eta, guztira, 6,1 milioi euroko laguntzak eman dira. Era berean, enpresa jabeagoaren eskualdatze



prozesuak babesteko beste laguntza-ildo bat ere badago: 22 konpainia onuradun dira aurten, eta 323.000 euroko foru-inbertsioa.

Ildo beretik, Aldundiak hogeitatu bat proiektu esperimental sustatu zituen beste horrenbeste enpresatan Etorkizuna Eraikiz dinamikaren barruan, eta 2016az geroztik finantzaketa-tresna bat du, Elkargirekin garatutakoa, langileak kapitalean sartzea finantzatzeko. Abalen bidez, 2,1 milioi euroko maileguak dituzten 7 proiektu lagundu dira aurten. Guztira, zazpi urte hauetan, kopurua 9 milioitik gorakoa da. Neurri horiek foru erakundeak hamarkada batez baino gehiagoz hedatutako estrategia integral baten parte dira, enpresan parte-hartzea sustatzeko, dela kudeaketaren esparruan, dela erabakiak hartzerakoan, dela kapitalean. Jens Lowitzsch irakasleak -arlo horretako aditu ezagunetako dena- praktika aurreratu erreferentzial gisa aitortu zuen Gipuzkoa 2021ean, eta *Europa Sozial berri baterako partaidetza finantzarioa* izeneko azterlanean jaso zuen.

Asteazkenean izan zen jardunaldiaren hasieran, Eider Mendoza diputatu nagusiak adierazi zuen langileen parte-hartzea "lurraldeko ehun ekonomiko eta industrialaren indargune handi bat" dela. "Errealitate horrek garrantzi handia du orainaldian, baina, batez ere, etorkizuneko balio garrantzitsua du, gure ehun ekonomiko eta industria fisikoa bultzatzen laguntzen baitu". Ildo horretan, Mendozak gogorarazi zuen parte-hartzea bultzatzeak "enpresen lehiakortasuna" hobetzen duela, "enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa" sortzen duela, eta, gainera, "funtsezko tresna" dela "konpainien errotzea areagotzeko".

Horregatik guztiagatik, Mendozak "oso positiboki" baloratu zuen "Gipuzkoak esparru horretan egindako ibilbide kolektiboa", bai eta "hori bultzatzeko abian jarritako neurrien emaitzak ere. Gero eta berritzaileagoa, mundura irekiagoa, iraunkorragoa den enpresa-eredu bat defendatzen dugun bezala, erakunde partaidetza-kulturaren sakondu behar dugu, egungo munduak planteatzen dizkigun eraldaketei berme handiagoz aurre egin ahal izateko". Diputatu nagusiak konpromisoa hartu zuen "ahalik eta gehien sakontzeko Aldun-

Langileen parte-hartzea enpresatan

Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Enpresa kopurua	Inbertsioa (eurotan)
2016	40	107	147	40	2.066.104
2017	49	163	212	48	3.104.610
2018	91	289	380	58	4.291.215
2019	110	310	420	86	7.036.604
2020	167	412	579	87	9.447.053
2021	175	437	612	113	6.795.314
2022	264	558	822	116	6.390.351
Guztira	806	2.276	3.172	548	39.131.252

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

diaren zerga-eskumena, eta laguntza-programetan Gipuzkoa partaidetza bere antolaketa- eta enpresa-kulturaren integratzeko egiten ari den ahaleginari jarraipena emateko, bai eta belaunaldi-errebokoko egoera baten

"LURRALDEKO EHUN EKONOMIKOAREN INDARGUNE BAT" DA LANGILEEN PARTE-HARTZEA

ZERGA ARAUDIAREN BIDEZ, ZAZPI URTETAN 548 ENPRESATAN SUSTATU DA PARTE-HARTZEA

EKIMENAREKIN, "ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATE HANDIAGOKOA" SORTZEN DA

edo zuzendaritza-aldaketa baten aurrean bere enpresatan parte hartzea erabakitzen duten langileen ahalegina babesteko ere".

Bestalde, Ane Insaustik gaineratu zuen "kultura parte-hartzailea funtsezko eraldaketa-prozesuei ekiteko palanka bat" ere badela enpresetan, "hala nola kontziliario erantzunkideari, berrikuntzari, barne-ekintzailetzari edo talentuari. Azken horri dagokionez, enpresa-proiektu erakargarriak behar ditugu talentua fidelizatzeko eta erakartzeko. Eta enpresa osatzen du-

tenen hazkundea eta inplikazioa bultzatzen duen proiektua beti izango da erakargarriagoa, horretarako aukerak ematen ez dituen baina".

Haren esanetan, "badugu tradizio bat, kultura bat esparru

PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO ENPRESEK KRISI SASOIEI HOBETO ERANTZUTEN DIETE

ENPRESA-PROIEKTU ERAKARGARRIAK BEHAR DIRA TALENTUA ERAKARTZEKO

IA 40 MILIOI EURO INBERTITU DITU ALDUNDIAK, LANGILEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO

honetan, indargune nabarmena dena. Badugu lan ona egiten duen akonpainamendu ekosistema bat. Badugu ibilbide luze bat egin, Europa mailan aitortua izan dena, arrakasta-kasugisa. Baditugu apustu garrantzitsuak egiten dituzten enpresak eta pertsonak, etorkizunaren alde, eta epe luzeko ikuspegiarekin. Baina ziurgabetasunez betetako testuinguru bat ere badugu, erantzunak baino gehiagoko galderak planteatzen dituen. Esperientziak erakusten digu partaidetza-ereduetan oinarritutako enpresek hobeto erantzuten dietela krisiei eta ziurgabetasun-garaiei. Baina ezin gara konformatu. Urratsak ematen jarraitu behar dugu, apustuak egiten, eta elkarrekin ikasten, elkarlanetik abiatuta".

Fiskalitate aitzindaria

Langileen partaidetza sustatzeko araudia 2016ko abenduan onartu zen, eta urte horretako urtarriaren lehen jarri zen indarrean, atzeraeraginarekin. Halako eragiketetan parte hartzen duten bi aldeentzat ditu abantailak. Eroslearentzat -hau da, enpresan parte hartu nahi duen langilearentzat- %15eko kenkaria dakar PFEZn, gizonetako bada, eta %20koa emakumea bada, enpresaren jabetzan sartzen den pertsonaren alde. Kreditu fiskala 6.000 eurokoa da gizonetokoztat eta 8.000 eurokoa emakumeentzat. Pizgarria lau urtean aplikatzekoa da, eta urteko mugak 1.500 eurokoak dira gizonentzat eta 2.000 eurokoak emakumeentzat. Saltailearen adin muga 65 urtetik 60 urtera murriztu zen, eta salmentaren ondoriozko ondare irabazia salbuesita geratu zen (ez, ordea, kanpoko operadore bati salduz gero).

Duela zazpi urte, foru araua onartu zenean, hauek ziren helburu nagusiak: enpresak lurraldean finkatzea eta, hala, erabakiak hartzeko guneak bertan ainguratzea, deslokalizazioei aurre egiteko; langileak kudeaketan eta erabaki estrategikoak hartzeko prozesuetan sartzea, enpresaren lehiakortasuna indartzeko; langileek enpresa proiektuarekin duten konpromisoa indartzea; eta talentuari eustea. Horrekin batera, araudian genero ikuspegi sartu zen, enpresagintzaren arloan dauden desberdintasunak murrizten laguntzeko.

Industria indartu

Foru arauaren helburua da, pizgarri fiskalen bidez, "Gipuzkoako ehun industrialari eustea eta deslokalizazioak saihestea". Arauak ahalbidetzen du enpresen ugazabek saltzea jabe goaren zati bat eta langileek erostea zati hori.



Erroka demografikoak, teknologia berriak, gero eta kontzientziatuago dagoen gizartea... mundua aldatzen ari da, gero eta azkarago gainera, eta ULMA Taldeak aldaketa horren parte izan behar du. Betiere, gizartearekiko konpromisoarekin eta hobetzen jarraitzeko grinarekin.

Ziurgabetasun eta aldaketa garaietan, ezinbestekoa da elkarrekin joatea eta Balio Kooperatiboetan oinarritzea. ULMA Taldeak egungo erroka gaindituko dituen enpresa eredu soziala defendatzen du. Enplegua sortu, berrikuntza bultzatu eta Debagoieneko aberastasun ekonomiko eta soziala lagunduko duen enpresa eredu. Hori da gure erantzukizuna aurreko belaunaldiekiko eta konpromisoa etorkizuneko pertsonetikiko.

2.000 enplegu inguru Debagoiengan

Aldaketa demografikoak gure gizartearen erroka handienetako bat izango dira. Mundu aldakor eta gero eta lehiakorrago batean, kalitatezko lanpostuak eta sare sozioenpresarial sendo bat sortzea eta mantentzea funtsezkoa da etorkizunerako.

Debagoieneko enpleguaren aldeko konpromiso hori oso presente egon da ULMAn betidanik. Tokiko enpresa batzuen beharrei erantzuteko eta beste batzuen itxierak sortutako beharrei erantzuteko sortu zen ULMA. Enplegua sortzearen aldeko apustu kooperatiboa da.

62 urteko ibilbidean, ULMAk lanpostuak sortzen jarraitu du, bere jatorrizko negozioak hedatuta eta jarduera berriak sortuta, gaur egun ULMA Taldea osatzen duten 9 negozioetara iritsi arte. Guztira, 5.600 langile baino gehiago ditu, eta horietatik 2.000 inguru Oñatiko lantokietan dabilta. Kooperatibaren jarduerak etengabe hazten jarraitzen du. Horren erakusle dira ULMA Agricolak Garibain duen lantegi berria eta ULMA Packaging-ek Zubillaga auzoan duena handitu izana.

Hala ere, enpleguaren aldeko konpromiso horrek inoizko erroka handienetako bat du gaur egun: talentua erakartzea eta geratzea, hain zuzen. Horretarako, ULMAren eredu kooperatibo, sozial, ireki, dina-



ULMA Taldeak etorkizunera begira bere oinarri diren enplegua, berrikuntza eta gizartearekiko konpromisoa berresten ditu.

Konpromisoa eta hobetzeko pasioa, ULMAren etorkizunerako bidea

Kooperatibismoaren oinarriekiko eta ingurunearekiko konpromisoa; garapen jasagarriarekiko ardura; berrikuntza; eraldaketa; lana; pertsonak... ULMA Taldearen berezko ezaugarriak dira; etorkizuneko erroka errazago erantzuteko lagungarri

miko eta ekintzailea balio segurua da. Pertsonetan oinarritutako proiektu berritzaileen bidez lan aukerak eskaintzen dituen eredu.

Aipatzekoa da, halaber, genero-berdintasuna ere ULMAren balioen parte dela, eta, horregatik, taldea osatzen duten negozio guztietan, berdintasun-planak eta ekimenak lantzen dira, industria-sektorean emakumeen talentua balioetsi eta ikusarazten dutenak, eta berdintasunaren, normalizazioaren eta hizkuntza ez-sexistaren inguruko prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzen dutenak. Lan hori Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea aitortu berri da, non Euskal Kudeaketa Aurre-

ratuaren erakundeak eta Emakundek ULMA nabarmendu zuten, zehazki Packagingeko negozioa, berdintasunaren arloan jardunbide egokiak dituzten hiru enpresetako bat den aldetik. Zehazki, emakumeek

"TALDEKO KIDE SENTITZEN NAIZ, ETA NIRE IDEIAK ETA IRITZIAK KONTUAN HARTZEN DIRA"



JON ARRIARAN
ULMA
CONSTRUCTION

industria-sektorean duten bokazio teknikoak ikusarazteko egindako lana.

Berritzeko grina

Aurrerapen teknologikoen ha maika aukera sortu dituzte, baita erroka ere. Berrikuntzaren abangoardian egoteak eta lehiakorrak izateko aukera berriak bilatzeak modu etikoan jardutea du erroka.

ULMA, berritzea eta lehiakorrak izatea Debagoiengan eragin positiboa izatearekin lotuta dago. Beti izan dugu ikuspegi hori. 60ko hamarkadako lehen aldamio modularretatik eta ontziratzeko makinetatik abiatu, eta jardura berriak garatzen laguntzeko

sustapen jardueren inkubagailu bat bultzatzeraino. Ekimen horren arrakastaren adibide da ULMA Embedded Solutions. Sustapeneko jardura gisa abiatu zen, eta, gaur egun, ULMA Taldearen barruko beste negozio bat da.

Enpresa sustapenerako eredu horrek bere fruituak ematen jarraitzen du, eta ULMA esparru erabat berrian sartzera eraman du: osasunarenean. ULMA Medical Technologiesen eskutik, irudiak antzemateko ekipoz, datu medikoen plataformaz eta adimen artifizialeko hainbat algoritmoz osatutako soluzioak garatzen dira. Eta horiek guztiek erraztu egiten dute oftalmologiako gaixotasunen diagnostiko medikoa eta detekzio goiztiarra egiten.

Berrikuntza horiek, gainera, gizartearen eragin positiboa izatea bilatzen dute, egungo asistentzia prozesuak eta pazientearentzako asistentzia kalitatea hobetuz. Esate baterako, ULMA Medical Technologiesen eta Miranza Talde Medikoaren arteko lankidetzak ahalbidetu ditu erretinako patologien detekzio goiztiarreko kanpainak, eta baita Abre sus Ojos GKEarekin batera behar handiena dutenei arreta oftalmologikoa errazteko egindako lankidetzak ere.

Debagoienarekin aurrera goaz

Gero eta kontzientziatuago dagoen gizarte honetan, modu etiko eta arduratsuan jardutea legea betetzetik haratago doa.



ENPRESAK

9

NEGOZIO

ULMA AGRICOLA
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS
ULMA CONSTRUCTION
ULMA CONVEYOR COMPONENTS
ULMA EMBEDDED SOLUTIONS
ULMA FORGED SOLUTIONS
ULMA HANDLING SYSTEMS
ULMA PACKAGING
ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

URTEAK

62

URTE MERKATUAN

LANGILEAK

5.600

PERTSONA LANEAN

SALMENTAK

1.050

MILIOI EUROKO SALMENTAK

MERKATUA

81

HERRIALDETAN

"ULMA FUNDAZIOAREN LAGUNTZA FUNTSEZKOA DA GURETAKO"



JAVIER IGARTUA
DEBAGOIENENKO
GURUTZE GORRIA



ULMA Embedded Solutions. Aholkularitza eta ingeniari-tza zerbitzuak produktu elektronikoen bizi zikloan espezializatuak.



ULMA Packaging. Ontziratze soluzio eta lerroen diseinuan eta fabrikazioan espezialista.

Horregatik, ULMAk, bere Fundazioaren bidez, Debagoienaren garapen ekonomiko eta sozial-lean laguntzen du. Azken 5 urteetan, ULMAk 4 milioi euro baino gehiago bideratu ditu proiektu sozial eta asistentzia-letara, garapen kooperatiboa, ikerketa, ingurumena eta pertsonen zaintza sustatzeko helburuarekin.

Azpirarratzekoak dira hauek: ACNUReko errefuxiatuei laguntzeko ekimenei emandako laguntza; Euskadiko etorkinen osasun laguntza hobetzeko Medicos Mundiren bidez emandakoa; edo Bizkai-ko eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuekin lankidetzan aritzea, elikagaiak alferrik galtzea

saihesteko eta gehien behar dutenei emateko. Konpromiso hori Caritas eta Gurutze Gorria erakundeetara ere iristen da, esaterako, eta laguntza ematen da horien proiektu eta ekintzetako batzuk mantentzeko eta bultzatzeko.

Gainera, elkartasuna eta garapen kooperatiboa batu dira Mundukide GKEarekin lankidetzan, ULMAko bazkide batek, Lurrik Gabeko Langileen Mugimenduarekin (MST) batera, bere ezagutza eta esperientzia kooperatiboa helarazteko Brasilgo tokiko komunitateei.

Fundazioak egindako ekintza ugarien arteko beste adibide batzuk ere baditugu: kontsumo arduraturako kontzientziatio

kanpainak, eta ULMAko pertsonen arteko lanerako mugikortasun jasangarria sustatzen duen Ekokilometro programa, desplazamendu jasangarri bakoitza erregistratu eta saritzen duen app baten bidez. ULMAko 500 pertsona baino gehiago daude izena emanda.

Kirola gizarte osasuntsuago baterako funtsezko zutabe gisa ere oso presente dago Fundazioaren lanean. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, kirol ez-profesionala sustatzea Kirolgi Fundazioarekin batera, edo tokiko kirol talde eta ekitaldiei laguntza eta babesletza ematea; esaterako, Aloña Mendi txirrindularitza taldeari edo Oñatiko Mendi Martxari.



IBON CALVO
ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

Jasangarritasuna, oinarrian

Azken urte hauetan, jasangarritasuna gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela begi bistan dago, eta ez Europa mailako araudi aldaketetan bakarrik, gizarteko arlo guztietan baizik.

Auto elektrikoa, energia berriztagarriak, CO2 azterna, mugikortasun jasangarria eta enpresen taxonomia berdea, besteak beste, gai garrantzitsuenen artean agertzen dira gaur egun.

Laster, gure bezeroek, finantza erakundeek eta hornitzaileek jasangarritasuneko arloetan ditugun ekintzen berri zehatza jasoko dute.

ULMA Taldea gara, eta, gure historia luzean egin dugun moduan, erronka honi ere erantzun aproposa emateko lanean dihardugu.

Jasangarritasunaren ikuspuntutik, ULMA Taldearen proiektu kooperatiboaren berrikusketa egin ondoren, jadanik bagenekienaz ohartu gara, hau da, ULMA Taldearen proiektuak langileen eta ingurunearen beharrak garatzeko eta asebetetzeko helburu nagusia duela. Eta helburu hori lortu ahal izateko, epe luzeko proiektu jasangarria garatu eta sendotu behar dugula; beste modu batera ezinezkoa litzateke.

Beraz, azkenengo 60 urteetan bizi dugun ULMA Taldearen proiektua inoiz baino gaurkotuagoa eta indartsuagoa dago. Benetan berri pozgarria. ULMA Taldean bagoaz aurrera!



LKS NEXT kooperatibaren egoitza nagusia Arrasaten.

Teknologia, adimena eta negozioa, Debagoienetik

Lan jarduna aholkularitza profesionalari eskaintzen dion erreferentziako enpresa da LKS NEXT. Arrasaten dago kokatuta. Kooperatiba da. Eta zerbitzua eskaintzen die enpresa multinazionaleri zein aurre-aurrean dabilzan bertako enpresei

Askotan, gure garapen profesionalari erreparratzen diogunean informazioaren eta komunikazioaren teknologien –IKT– edota negozio-adimenaren esparruetan, edota esparru juridikoan, beti uste dugu Madrilen, Bartzelonan edo Bilbon dauden aholkularitza etxe handiei edo bulego handiei buruz ari garela.

Eta, ostera, esan beharra dago Arrasaten daukagula aholkula-

ritza profesional handienetako bat. Espainiako Estatuko lehenengo 100 aholkularitza-enpresa teknologikoen artean lehena dena; enpresa handientzako eta korporazioentzako proiektuak lantzen dituen talde aholku-emaldea dena; 30 urtetik gorako ibilbidea duena, eta multinazional handientzat lan egiten duena, hala nola Mercedes Benz, Bridgestone, Arcelor, Elecnor..., baina baita aurre-aurrean da-

biltzan bertako enpresa handientzat ere: Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Ulma Taldea...

Zerbitzu osoa

Gure artean jaioa, DNA kooperatiboa duena eta taldean 720 pertsona baino gehiago dituena. Erakunde handiei laguntzen die eraldaketa digital eta iraunkorrean; Euskadiko Osasun Plana garatu du, edota Lanbideren Diru-sarrerak Bermatze-

ko Errentaren kudeaketa bezalako proiektu handiak ditu bere gain, eta erreferente da arlo soziosanitarioan. LKS NEXT da enpresa hori. Kooperatiba bat da. Eta beti dago talentuaren bila. Bere jarduera asko hazi da azken urteotan. Hala, 2022an, %2ko hazkundea izan zuen aurreko urtearekiko. Eta ze talentu hobe, etxe ondoan duguna baino.

Askotariko enpresei eskaintzen dizkie teknologia eta zerbitzuak LKS NEXT kooperatibak. Izan aholkularitza juridiko integrala; izan enpresa transakzioak, analisiak eta finantza berregituraketa arrakastatsuak...


LKS NEXT-EK ERAKUNDE HANDIEI LAGUNTZEN DIE ERALDAKETA DIGITAL ETA IRAUNKORREAN



JOSEBA SANABRIA

ARRASATEARRA, 48 URTE. INGENIARI INFORMATIKOA ETA MASTERRA ENPRESA ZUZENDARITZAN. LKS NEXT-EN 2008TIK

"LKS NEXTek garapen profesionalerako aukera ematez gain, Viralgen taldearekin eta antzeko enpresa handiekin lan egiteko aukera ere eman dit".



BEÑAT SALABERRIA

ARETXABALETARRA. 43 URTE. ABOKATUA. LKS NEXT-EN 2004TIK.

"Nire lan-ibilbidea LKS NEXT LEGAL enpresan garatu dut. Horri esker, bezero garrantzitsuekin lan egiteaz gain, alde pertsonal zein profesionalen bikaina den lantalde bateko kide izateko aukera izan dut".



GARAZI LARREA

ARRASATEARRA. 25 URTE. EKONOMIALARIA. LKS NEXT-EN 2021ETIK

"Sustraiak Arrasateko kooperatibetan ditut. Duela urte bi, talde berezi batean sartu nintzen, bai pertsonalki bai profesionalki, enpresa kooperatibo handi batean, eta aukera hori bat dator nire balioekin. LKS NEXTen oso lan interesgarria daukat, era guztietako erakundeei beren estrategia definitzen laguntzeko".

"Kooperatiba izateak indartu egiten ditu EROSKIren balioak"

ROSA CARABEL EROSKI TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIA

"Bizi kalitatea, osasuna eta kontsumitzaileen ongizatea hobetuko dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea gizarteari". Horixe da EROSKI Taldearen egitekoa

Rosa Carabel (Coruña, 1966), 2021eko uztailetik da EROSKI Taldeko zuzendari nagusia. 17 urte daroatza taldean. EROSKI Taldeak 64 milioiko irabaziak izan zituen 2022an. 29.000 langile baino gehiago ditu; 610 frankizia-denda baino gehiagotako langileen kolektiboa gehitu behar zaio kopuru horri. Langile bazkideak 8.800 inguru dira.

Zer ezaugarri nagusi ditu EROSKI Kooperatibak?

Bizi kalitatea, osasuna eta kontsumitzaileen ongizatea hobetuko dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea gizarteari: horixe da gure egitekoa. Horretarako, kalitaterik, informazioz eta preziorik onenak eskaini behar ditugu, eta konpromisoa hartu kontsumo jasangarria bultzatzeko. Hala, *Zurekin* gure eredu komertzialak, osasuna eta jasangarritasuna ditu oinarri, eta baita tokiko produktuak eta aurrezpena ere. Gainera, EROSKI langileek ere garrantzi handia dute, enplegu jasangarria eta kalitatezkoa sortzea baitugu helburu. Lanean dihardugu

lortzen ditugun etekinek aukera eman diezaguten aberastasun handiagoa lortzeko eta aberastasun hori elkartasunez banatzeko, eta konpromiso handia dugu gizartearen osasuna eta ongizatea zaindu eta gizartearen garapen jasangarria bultzatzeko, eta baita etengabeko berrikuntza sustatzeko ere.

Zuk zeuk esana da EROSKI kooperatiba ez balitz ez legokeela gaur egun dagoen tokian. Zergatik?

Horrekin esan nahi dut egokitzeko gaitasuna dugula, malguak garela eta elkartuta gaudela. Kooperatiba batek horrela egiten die aurre egoera zailei. Finen, erresilientzia esan nahi du horrek, eta horren osagarri, bazkideok heldutasunez eta gardentasunez hartzen ditugu erabakiak, nahiz eta erabaki horiek zailak eta konplexuak izan diren zenbaitetan. Koopere-

"OINARRIZKOAK DIRA BIZI KALITATEA, OSASUNA ETA KONTSUMITZAILEEN ONGIZATEA"

ratiba izateak indartu egiten ditu gure balioak, elkartasunarekin eta lankidetzarekin lotutakoak: elkarrekin, eragin positiboak ugariagoak dira.

Benetan ere, EROSKI eredu arrakastatsua da. Zein dira gakoak?

Bi alderdi nabarmenduko nituzke: gure izaera kooperatiboa eta jendearengandik gertu egoteko dugun obsesioa. Gure eredu kooperatiboaren bereizgarria zera da: justua dela, demokratikoa, berdintasuna eta aniztasuna bultzatzen dituela eta ekitatez banatzen duela aberastasuna. Halaber, EROSKIIn, pertsonak dira gure jardueraren oinarria. Izan ere, langileak eta kontsumitzaileak erabaki organoetan sartzen dituen banaketa talde bakarra gara.

Ez da ohikoa banaketa sektorean kooperatibak aurkitzea, eta are ezohikoagoa da EROSKIren tamainako kooperatibak aurkitzea...

Hala da, bai. Gure proiektuaren izaera eta forma bakarrak dira, eta hiru baldintza biltzen ditu: banaketa enpresa bat da, kontsumitzaileen erakunde bat ere bai, eta baita proiektu kooperatibo bat ere, eta proiektu horre-



Rosa Carabel.

tan kontsumitzaileek eta langileek protagonismo eta subiranotasun bera dute. Kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituen txikizkako lehen banaketa taldea gara Espainian, eta erreferentziatzko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Er-

"KONPROMISOA DUGU GIZARTEAREN GARAPEN JASANGARRIA BULTZATZEKO"

kidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan.

Zertan inbertitzen du EROSKI?

EROSKIek ekarpena egiten dio komunitatearen ongizateari, eta aberastasuna ekitatez banatuz, haren garapen sozialean, kulturean eta ekonomikoan eragiten du. Bost arlotan aritzen gara: elkartasuna, ingurumenaren zaintza, bizi ohitura eta elikadura osasungarriak sustatzea, kontsumo jasangarria eta kontsumitzaileei ematen zaien informazioa eta formakuntza sustatzea.



Gure kooperatiba-kultura gizartearen eragin

positiboa

sortzen duten ekimenak sustatzeko motorra da



Berrikuntza sustatzen dugu kontsumo arduratsua sustatuz, jasangarritasunaren, irisgarritasun ekonomikoaren, elkartasunaren, eta tokiko ingurunearekiko errespetuaren irizpideei jarraituz

www.eroski.es



"Askotariko eragileen arteko lankidetzan sinisten dugu"

ARITZ OTXANDIANO KANPO FAGOR TALDEKO IRAUNKORTASUN ARDURADUNA

Euskal Herriko industria kooperatiba talde handiena da FAGOR, eta onartua du Fagor 2030 izeneko iraunkortasun estrategia. Enpresa eredu berri baten aldeko apustua da

FAGOR Taldeko organo nagusiek 2021ean onartu zuten Fagor 2030 iraunkortasun estrategia. Erronka esanguratsuak markatzen ditu, eta horiei erantzuna emateko urrasetan dira kooperatiban. FAGOR Taldeko iraunkortasun ardura duna da Aritz Otxandiano Kanpo (Otxandio, 1979).

Zein egoeratan da gaur egun FAGOR Taldea?

Orokorrean egoera onean gaude; lan bolumen eta aurreikuspen onekin. Kooperatiba guztiak irabazietan daude, eta pandemia aurreko zifretan gaude salmentei, lanpostuei eta irabaziei dagokienez.

2022an, 1.819 milioi euroko salmentak izan genituen, eta irabaziak 46 milioi eurokoak izan ziren. FAGOR Taldeko kooperatibak erreferente dira jarduten duten sektoreetan, eta horrek eragina du emaitzetan. **Fagor 2030 izeneko iraunkortasun estrategia onartuta dauka FAGOR Taldeak. Azaldu iezaguzu zer den Fagor 2030?**

Bost konpromisoren bueltan ardaztuta dagoen FAGOR Taldearen iraunkortasun estrategia da. Testuinguru ekonomikoa zein den ikusita eta lehiakorrek izaten eta enplegua sortzen jarraitu nahi badugu, beharrezkoa izango da negozioko eraldatzea. Hori da, hain zuzen ere, Fagor 2030 iraunkortasun strategiaren lehen ardatza.

Adibidez, gure negozio batzuk oso lotuta daude erregai fosiletara –gas balbulak, konbustioko autoen bloke motorrak...-. Etor-kizunean, antzerako produktuen eskaera jaisten joango da, eta produktu horiek ordezkatzeko eta gure produkzioa egokitzen joateko erronkari helduko diogu. Hasita gaude.

Bigarren ardatzak gure bereizgarritasun garrantzitsuenetako den gobernantza eredu demokratikoa hobetzen jarraitzea du iparrorratz, eta hirugarrenak enpresa kultura aurreratu bat garatzea. Lehiakortasunaren ikuspegitik bi faktore dira funtsezkoak: puntako teknologia edukitzea eta pertsonen egiten duten ekarpenak duen balio erantsia. Testuinguru egokiak sortu behar ditugu pertsonak

gustura egon daitezen eta haien onena eman dezaten.

Gure produktuek ingurugiroan sortzen duten inpaktua murrizteari ere garrantzitsua deritzogu, eta hori da Fagor 2030 iraunkortasun strategiaren laugarren ardatza. Gaur-gaurkoz gure jardura industrial planetaren muga biosfiskoetatik kanpo dago. Inpakturik entzutetsuena CO2 isurketena da aldaketa klimatikoaren erantzulea delako, baina badaude beste batzuk ere, eta denak murriztu behar ditugu ahalik eta gehien.

Azkenik, eta bosgarren ardatzari dagokionez, kokatuta gauden lurraldeak ditu jomuga. Eragin nahi dugu lurralde horiek iraunkoragoak izateko. Gu, batez ere, Debagoiengan gaude kokatuta, eta gure ekarpena,

bereziki, eskualde honetan da. Askotariko eragileen arteko lankidetzan sinisten dugu, eta komunitatearen autoeraketan. **Eta zergatik erabaki duzue iraunkortasuna zuen enpresa estrategiaren erdigunean jartzea?**

Gure proiektu kooperatiboa gaurkotzeko aukera moduan ikusten dugu iraunkortasuna. Aurreko fase historikoetan nagusitutako enpresa ereduetan ulertzen zen akziodunen irabazi ekonomikoak maximizatzea zela inporta zuen gauza bakarra. Hori aldatzen ari da, orokorrean munduan eta bereziki Europan, eta iraunkortasuna enpresan aldaketa horren baitan kokatzen da. Akziodunena interes talde garrantzitsua da, baina ez da bakarra. Badaude beste batzuk; gizartea, ingurugiroa, hurbileko komunitatea... Askotariko interes talde horien ikuspegia ere kontuan hartu behar da enpresaren estrategia eta jarduna definitzeko orduan. Enpresa ez dago bakarrik balio ekonomikoa sortzeko; balio soziala ere sortu behar du kokatuta dagoen lurraldean, eta ingurugiroan ahalik eta kalte gutxien eragin.

Enpresa ulertzeko modu berri hau askoz ere hurbilago dago kooperatibismoaren printzipio eta balioengandik. Aukera berriak eskaintzen ditu gure enpresa ereduaren balioan jartzeko eta eguneratzeko. Horretan ari gara.

Beraz, esangura handiko helburutzat duzue planetaren zaintzarena. Ingurugiroarekin lotutako erronka oso potoloak ditugu; esaterako, larrialdi klimatikoa. Enpresak problema horren parte gara kutsatzaileak garelako, eta tokatzen zaigu soluzioaren parte izatea. Horregatik, Fagor 2030 iraunkortasun strategiaren

barruan planetaren zaintzak badu pisu espezifiko inportante bat. Ezin liteke bestela izan.

Nola egingo dio aurre FAGOR Taldeak bere jardura industrialaren deskarbonizazioari?

Jardura industrialaren eta ekoiztiko produktuen inpaktua produktuen bizitza zikloaren analisiaren bitartez neurtzen da, eta hartzen dira kontuan lehengaiak naturatik erauzten diren etik produktua hondakin bihurto arteko prozesu guztiak. Inpaktuaren neurketa egiteko, hamabost kategoria daude identifikatuta, eta horien artean garrantzitsuenetako bat CO2 isurketak dira. Zertan ari gara? Gure ardura zuzenekoak diren isurketak murriztu nahian ari gara. Horretarako, erregai fosilekin ditugun kontsumoak elektrifikatu behar ditugu, ondoren, elektrizitate hori iturri berriztagarriak erabiliz ekoizteko. Gaur-gaurkoz, gure energia kontsumo osoaren %70 da elektrikoa.

Horrekin batera, kontsumo energetikoa murrizten goaz ahalik eta gehien efizientzia energetikoaren bitartez. Hornitzaileei ere neurriak hartzeko eskatu beharko diegu, baina gaur-gaurkoz beste bi puntuetan zentratu gara. Erronka nagusia da ea zelan hornitzen garen energia elektriko berriztagarriekin. Industria elektrizitate kontsumitzaile handia da. Badakigu horrek gero ze gatazka sozial sortzen dituen. Oro har, ez da energia sortzeko azpiegitura handirik nahi inguruan, baina, aldi berean, ez da gura industriak ematen dituen lanpostuei eta ongizateari uko egitea. Hor dilema bat dago lurralde eta komunitate bezala. Norabide bat hartu beharra dago, eta horretan lagundu gura dugu.

Deskarbonizazioak negozio batzuk eraldatu beharra dakar?

Ezinbestean, eta hor ere adibili behar dugu. CO2 isurketarik gabe gas balbula bat ekoizteko dezakezu, baina erregai bezala gasa abandonatu behar bada produktu horrek ez du etorkizunik. Eraldaketa hori, gainera, modu progresiboan gertatuko da; izan ere, eritimo ezberdinetan egingo dute munduko zonalde ezberdinek. Nork bere deskarbonizazio prozesua egingo du, eta guk ere modu progresiboan joan beharko dugu egokitzen eraldaketa horretara. Esa-

"GURE PROIEKTU KOOPERATIBOA GAURKOTZEKO AUKERA DA IRAUNKORTASUNA"

"GOBERNANTZA EREDUA ORAIN 50 URTEKOA DA; KOOPERATIBAK ASKO HAZI DIRA ORDUTIK"

"IDENTIFIKATU BEHAR DIRA ETORKIZUNEN GIZARTE IRAUNKORRAK BEHAR DITUEN PRODUKTUAK"

"INGURUGIROKO ERRONKETAN, SOLUZIOAREN PARTE IZATEA TOKATZEN ZAIGU"

"BALIO EKONOMIKOA BAKARRIK EZ, ENPRESAK BALIO SOZIALA ERE SORTU BEHAR DU"

"FAGOR TALDEA LEKU EGOKIA DA GARAPEN PROFESIONALERAKO ZEIN GARAPEN PERTSONALERAKO"



terako, lortu ditugu auto elektrikoendako piezak ekoizteko eskaera berriak eta utzi behar diogu poliki-poliki konbustio motorren pieza batzuk ekoizteari, baina enplegua ez galtzeko, produktu batzuk beste batzuekin ordezkatzeko joan behar dugu.

Gobernantza ereduak sakondu beharra ere aipatu duzu. Zeintzuk dira erronka nagusiak?

Gure kasuan langileok jabe ere bagara, eta parte hartzen dugu kooperatiben gobernantzan eta administrazioan, langile bat boto bat premisan. Berdin dio zein lanpostu betetzen duzun kooperatiban, denen botoak berdin balio du. Hala, gobernanta demokratikoa bada gure be-reizgarri nagusienetako bat. Baina eredu horrek hobeto funtzionatzen du enpresa zenbat eta txikiagoa izanda. Dimentsio bat hartzen duzunean, zaildu egiten da langileek jabe sentimendua garatzea, eta jabe bati eskatzen zaizkion erantzukizun eta lankidetasunez jokatzeko.

Horrekin batera, FAGOR Etxes-trenak-en erorketatik irakasgai batzuk ere atera ditugu; gaur egun, merkatuaren baldintzak gero eta aldakorragoak dira, eta bizirauteko gakoetako bat da azkar moldatzea izaten diren aldaketa horietara. Horrek esan gura du, esaterako, lehen batzar nagusietan zeuden erabaki batzuk kontseilu errektoreen eskuetan utziak direla.

Gobernantzaren ikuspegitik erronka nagusia alor horietan eragitea da. Gure gobernanta eredu demokratikoari etsi behar diogu bazkideen jarrera erantzunkidea sendotuz, eta eragin-kortasun formulak bilatuz.

Eta nola lortzen da arlo horietan egoki eragitea?

Lehenengo, bazkideen formakuntzan eraginda; kooperatiban sartzen den edozein langile jakin behar du ez datorrela bakarrik lanpostu bat betetzera, baizik eta enpresa horren jabetzan partizipazio bat daukala eta horrek ardura batzuk ekartzen dituela; eskubideak eta betebeharrak. Eta horretarako ezagutza behar da, esaterako, alor finantzarioan edota kooperatibagintzan. Formakuntza horretan eragin behar dugu.

Aztertu behar dugun beste alor bat da dimentsioarena. Gure kooperatiben gobernanta eredu orain 50 urteko berdina



Aritz Otxandiano, FAGOR Taldeko iraunkortasun arduraduna, Arrasateko bulego orokorretan.

da, eta, ordutik, asko hazi dira kooperatibak. Ikusi behar dugu gure izaera demokratikoa galdu barik ea zelan sinplifika daitekeen gobernanta eraginkorrago izan dadin; esaterako, tarte-ordezkaritzak txertatuz eta abar.

Erronken artean duzue talentua erakartzea ere. Zein indargune ditu FAGOR Taldeak alor horretan?

Gure ereduak baditu ezaugarri batzuk erakargarriak izan daitezkeenak etorkizuneko belaunaldientzat; izaera kooperatiboa bera da, nire ustez, gure indargune nagusia. Gure enpresetan lan eginda profesionalki garatzeko aukera izateaz gain, langileak hainbat alorretan ekarpen diferentzial bat egiteko aukera du, tartean gizartearekiko egiten den ekarpen diferentziala.

Belaunaldi berriek xede bat duten enpresak bilatzen dituzte gero eta gehiago; gizarte justuago bat eraikitzeke xedeak dutenak, enpresaren parte izateko aukera ematen dutenak, krisi ekologikoari aurre egiteko ekarpena egiten dutenak...

Gero, enpresa handi bat gara, teknologikoki oso garatu eta garapen profesionalerako aukera handiak eskaintzen dituen. Zortzi kooperatiben barruan lekualdatzeak egin daitezke, hazkunde profesionalerako sistema propio bat dugu... Uste dugu FAGOR Taldea leku egokia

delako garapen profesionalerako zein pertsonalerako.

Zein alorretako talentua erakarri nahi duzue?

Nagusiki profil teknikoak bilatzen ditugu. Hala, lanean dihardugu Mondragon Unibertsitatearekin eta ikastetxe ezberdinekin STEM arloko ikasketak sustatzeko, hasi batxilergotik eta unibertsitatearaino, ikasleek horrelako ikasketak erakargarri ikusteko, eta, tartean, emakumeek. Gure kooperatibetan gutxiengoa dira gaur-gaurkoz. Historikoki industriaren munduan emakumeen presentzia ez da handia izan. Badihardugu alor horretan ere eragin nahian.

Gizarte konpromisoa eta komunitatea ere aipatu dituzue.

Fagor 2030 iraunkortasun estrategiak bost konpromiso ditu, eta

bosgarrenak eragiten die gu kokatuta gauden lurraldeari eta komunitateari. Gure helburua da laguntzea hiri eta komunitate iraunkorrak lortzeko bidean, eta horretarako palanka nagusiak dira, gure ustez, askotariko eragileen arteko lankidetzak eta komunitatearen autoeratzeko.

Gure kooperatiba guztien egoitza nagusiak Debagoiengan kokatuta egonik, Debagoiena 2030 ekimeneko sustatzaile nagusietako bat da FAGOR Taldea, eta horra bideratzen dugu gizarte-funtsaren zati esanguratsu bat.

Guretzat D2030 ekimena oso garrantzitsua da. Bailara honetan badaude beste bailara askotan ez dauden baldintzak benetako lankidetzak publiko, komunitario eta kooperatibo

baten bitartez hainbat erronkari benetako erantzun bat emateko; lankidetzan oinarritutako erantzun bat, komunitatearen autoeratzeko bultzatzen duen erantzun bat...

Ekimen konkretuetara etorrira, hori zertan islatzen da?

Debagoiena 2030 markoaren barruan energia berriztagarrien komunitateak ari dira sustatzen herri guztietan. Hor daude, esaterako, Leintz bailarako Ekiola, Berener Bergaran edo Ixotzen Elgetan. Trantsizio energetikoaren erronkari aurre egiteko logikaren barruan egituratzen diren proiektuak dira guztiak.

Debagoiena 2030 ekimenetik irten den beste prototipo bat Tantai Baso Jabe kooperatiba da. Basoen kudeaketa jasangarri baten alde lan egiteko elkartu dira hainbat baso jabe eta askotariko eragileak. Guretzat apustu estrategikoak dira bai bata zein bestea.

Aurrera begira, zein aurreikuspenekin dihardu lanean FAGOR Taldeak gaur egun?

Irabaziei dagokienez, espero dugu 2023. urtea iazkoarekin alderatuta zerbait gaitetik ixtea, eta horrek ahalbidetzen digu enplegu maila mantendu ahal izatea. Bizi dugun ziurgabetasun egoera orokor honen barruan gerra bat edo beste bat dela, inflazioa dela... FAGOR Taldearen eta bere kooperatiben egoera ona da. Gure erronkekin, baina etorkizunera begira ditugun perspektibak ez dira txarrak.

Bestetik, hurrengo urtean emango diogu amaiera 2021-2024 aldi estrategikoari, eta hori horrela marko estrategikoa berri-tzea tokatuko zaigu. Zalantzarik gabe, aldi estrategiko berrian, iraunkortasuna gure estrategia-erdigunean kokatuko da.

Mugikortasunaren lan lerroa ere abian

D2030 ekimenak lan lerro berri bati ekingo dio laster; mugikortasun iraunkorra. FAGOR Taldean hasita daude lanketa propioa egiten. "Debagoiengan desplazamenduen gehiengoa bailara barrukoa da, eta sortzaile handienetakoak enpresak gara; desplazamendu asko eragiten ditugu langileen eguneroko joan-etorriekin, eta desplazamendu horiek

iraunkorrago egin behar ditugu", azaldu du Otxandiano. FAGOR Taldeko kooperatiba bakoitzak eginda dauka bere Mugikortasun Plana. Horrekin batera, martxan dute FAGOR Mugi izeneko programa. "Aplikazio bat daukagu, eta auto partikularra ez den beste garraio mota bat erabiltzen duten langileek hainbat pizgarri lortzeko aukera izaten dute".

Erronka partekatua

FAGOR Taldean argi dute mugikortasunaren erronka partekatua dela, eta mugikortasun benetan iraunkorra lortzeko ezinbestekoa izango dela hainbat erakunderen inplikazioa –udalak, Mankomunitatea, Aldundia...–. Oso begi onez ikusten dute D2030 markoaren barruan gaia aztertzea. "Eskualdeko mugikortasunari buelta bat eman behar zaio".



ingeniaritzatik abiatuta, azpiegitura eta espazio hobeak sortzen ditu KREAN kooperatibak, pertsonengan, haien ingurunean eta partekatzen duten etorkizunean "eragin positiboa" izan dezaten. KREANek bost jarduera-arloren bitartez –Arkitektura, Industria, Hiria eta lurraldea, Eraikuntza eta Sustapena– sortu nahi du etorkizuna, bere bezeroen erronkei irtenbide integralak zein espezifikoko eskaintzen.

Hori posible da arrazoi hauen gatik: "Bezeroen talentuaren eta gure taldearen talentuaren –350 pertsona– eta gure bidaia-kideen –teknologoak eta ikerketa-zentroak, eskolak eta unibertsitateak– arteko batasunari esker. Badakigulako elkarlanean bakarrik sortzen dugula bidea".

Etorkizun horri forma ematen dio KREANek, "gauzak aldatzen, beste modu batera sortzen". Erronka bakoitzari sormenez eta konpromisoz erantzuten die KREANek, edozein ideia errealitate bihurtuz eta arduraz jotuz. KREANen ezaugarria da sormena; "ingeniaritza aurrera-tenetik, bezeroen erronkak konponbide erreal eta ukigarri bihurtzen ditugu".

"Izan zirelako gara"

MONDRAGON Korporazioko parte den KREAN Kooperatibaren ibilbidea 1975. urte inguruan sortu zen, Euskadiko Kutzaren barruan, Enpresa Dibisioan. Esparru horretan sortu zen LKS 1991n, eta, bost urte geroago, LKS Ingenieria.

"2020an, izena aldatu eta KREAN markarekin ibilbide berri bat hasi genuen, merkatura begira egin dugun eraldaketa sakonaren isla gisa, gure betiko ingeniaritzako eta arkitekturako zerbitzu profesionali produktu eta zerbitzu berriak gehituta, hala nola eraikuntza eta sustapena, eta horrek balio-proposamen berri batera eraman gaitu", adierazi dute. Sasoi berrietara egokituz, baina sorrerako izaerari eutsita; izan ere, "izan zirelako gara".

**LKS INGENIERIAK
IZENA ALDATU ETA
KREAN MARKAREKIN
IBILBIDE BERRIA HASI
ZUEN 2020AN**



KREAN Kooperatibako bi behargin, garatzen duten proiektu bat ikuskatzen.

Proiektuak errealitate bihurtzen dituen ingeniaritza sortzailea

MONDRAGONeko kide den KREAN Kooperatibaren ibilbidea 1975ean hasi zen, Euskadiko Kutzaren barruan, Enpresa Dibisioan. Ingeniaritzatik abiatuta, Arkitektura, Industria, Hiria eta lurraldea, Eraikuntza eta Sustapena arloetan dihardu

Industria, arkitektura, eraikuntza...

Gaur egun, hainbat sektoretan eta eremu geografikotan garatzen ditu proiektuak KREANek. Honakoak aipa daitezke: industria-eraikin eta instalazioak, zentro logistikoak, upel-tegiak, merkataritza-guneak, etxebizitzak, nagusientzako egoitzak, eskolak eta unibertsitateak, ekipamenduak, bulego eta ikerketa-eraikinak, hiri-plangintza eta diseinua, klima-aldaketari buruzko aholkularitza, ur eta garraio-azpiegiturak...

**"INGURUMENAREN
DIMENTSIOA
GEHITZEN DIOGU
GARAPEN SOZIAL ETA
EKONOMIKOARI"**

Egiten duen lanaren eraginaz jabetuta, KREANen jardueraren ardatz nagusi gisa egituratu da jasangarritasuna. "Ingurumenaren dimentsioa gehitzen diogu garapen sozial eta ekonomikoarekin dugun konpromiso kooperatibistari", diote. Eta zera gehitu: "Gure bezeroekin batera, elkarrekin, egiten dugu aurrera proiektuetan".

Ehun proiektu baino gehiago garatu ditu KREANek, Leed, Breeam edo Well ziurtagiriak lortzeko. Ziurtagiri horiek proiektuak eta eraikinak baloratzen dituzte oso zorrotzak

**AZKEN URTEOTAN,
KREAN ERREFERENTE
BIHURTU DA ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN
SEKTOREAN**

diren kategoria eta irizpide multzo batean oinarrituta. Proiektuek jasangarritasunean eta ongizatean onura handienak jasotzen dituztela egiaztatzen duen aitorpena adierazten dute.

Gizarte erantzukizuna

350 pertsona ari dira KREANen lanean. 2.500 proiektu baino gehiago gauzatu ditu, 10 jarduera-sektoretan baino gehiagotan. Proiektuak garatu eta bere presentzia bermatu du 4 kontinentetako 14 herrialdeetan. Datuetatik harago, egiteko moduak eta nortasuna garrantzitsuak dira KREAN Kooperatibarentzat. Izan ere, MONDRAGON Taldeko kide izaki, eta bere izaera kooperatiboari eta erantzukizun sozial korporatiboari erantzunez, KREANen jardueraren emaitzen zati bat Debagoieneko proiektu soziokulturalak eta solidarioak bultzatzera bideratzen da. "Badakigu gizartearen aurrean erantzukizuna dugula, eta, horregatik, gizarte-proiektzioa duten hainbat ekimen babesten ditugu".

Debagoienetik mundura

KREAN –aurretik, LKS Ingenieria– Arrasaten sortu zen, aurreko mendeko 70eko hamarkadan, eta Debagoienak XX. mendeko azken hamarkadetan eta XXI. mendeko lehenengoetan bizi izan duen garapenaren lekuko eta partaide izan da. "KREANen harro gaude bailarako ehun industrialak eta soziokulturalak izandako hazkundean bidelagun izan garelako, batez ere MONDRAGON kooperatiba-eremuari dagokionez", diote.

Ingurune honetan argia ikusi duten ekimen eta proiektu publiko zein pribatu askotan lan egin du, "eskualdea gure herrialdean berrikuntzaren eta ekin-tzailetzaren erreferentzia gisa kokatu duten bezero eta erakundeekin batera bidea eginez".

KREANek enpresa handiak eta txikiak sortzen eta garatzen aritu direnekin lan egin du; hala nola Fagor, Ulma, JMA, Copreci, Mondragon Unibertsitatea, Laboral Kutxa, Arizmendi, Cegasa, Ikerlan, Lazpiur, Soralue, Lagun Aro, Eroski...

Etxebizitzaren eraikuntzan ere parte hartu du inguruan, eta administrazio guztientzat lan egin duela esan daiteke: eskualdeko udalak, Debagoieneko Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: kiroldegia, musika-eskolak, urbanizazioak, tunelak...

Oinarri eta berme sendo horrek, bere lana garatzera bultzatu du KREAN, hemen eta nazioartean: Euskal Herrian, Espainiako estatuan eta munduko beste leku batzuetan. Hori horrela, Indian, Txinan, Kolonbian eta Mexikon, besteak beste, proiektu handiak lantzeko aukera eman dio KREANI.



Ander Etxeberria (Arrasate, 1971) Mondragon Korporazioko Hedapen Kooperatiboaren arduraduna da. Otolara jauregian egiten du lan, Aretxabaletan. **Tokatzen zaizu MONDRAGON eredu munduan barrena zabaltzea. Baina mundutik ere asko dira Debagoienara datozenak.**

Munduan pertsona asko dago Arrasateko Kooperatibagintza Esperientzia ezagutu nahi duena, eta MONDRAGONek beti ireki die atea. Otolara eta kooperatibetan jasotzen ditugu interesdunak: politikariak, kazetariak, ikasleak, ikerlariak, kanpoko kooperatibetako kideak, etab. Guztira, urtean 2.000 pertsona inguru dira. Batzuek ordubete eskas dute; beste batzuk egun batzuetan izango dira gure artean. Beste aldetik, munduan zehar azaltzen dugu MONDRAGONen Esperientzia erakunde diferentek gonbidatuta: organizazio kooperatiboak, unibertsitateak, merkataritza-ganberak...

Zein asmorekin etortzen dira?

Lehenik, bisitariak MONDRAGON *ukitu* nahi dute. Aurretik badakite zer bait sistema honetaz: ikusi edo irakurri dute dokumenturen bat ereduari buruz, azaldu diete eskolan edo unibertsitatean... Baina beraien begiz konprobatzera datoz. Kontuan izan MONDRAGON "ezinezkoa" dela; enpresa egiteko modu tradizionaleri desafia da. Nola da posible jabeak langile diren enpresak lehiakorak izatea? Nola da posible hainbeste kooperatiba diferente sortu izana (finantzak, ezagutza, industria, banaketa)? Bigarrenik, jakin nahi dute eredu kopiatu daitekeen. Politikari guztiek, adibidez, beraien herrialdeetan ezarri nahi dute.

Ezinezkoa da?

Esaten da Wright anaiek ez zekitela ezinezkoa zela hegaz egitea, eta hegazkina asmatu zuten. Arizmendiari eta lehen jarraitzaileentzat ere ez zegoen ezinezkorik, eta enpresa egiteko modu berri bat asmatu zuten, kooperatiba berezi bat: jabeak langile dira, eta bakoitzak boto bat dauka batzar nagusian; ordainsari diferentzia haien artean txikia da, beste enpresa batzuekin konparatuz; eta lana sortzea da helburu nagusia, horrela gizarteari ekarpena eginez. Gainera, kooperatibek beraien artean indarrak batuz, izugarri ahaltzua den sistema osatzen dute, bai

"Kontinente guztietatik datoz MONDRAGON eredu ezagutzera"

ANDER ETXEBERRIA MONDRAGON-EKO HEDAPEN KOOPERATIBOAREN ARDURADUNA Korporazioak Urkulun duen Otolara jauregian dihardu, mundutik –urtero 50 herrialdetatik– kooperatiben eredu ezagutzera datozenei azalpenak ematen



Ander Etxeberria, Otolara jauregian –Aretxabaleta–.

"NOLA DA POSIBLE JABEAK LANGILE DIREN ENPRESAK LEHIAKORAK IZATEA?"

"KOOPERATIBEK INDARRAK BATUZ, IZUGARRI AHALTZUA DEN SISTEMA OSATZEN DUTE"

garai oparoetan eta bai krisi garaian; mekanismo horiengatik ez balitz, desagertuta leudeke kooperatiba asko edo ez lirateke izango gaur egun direna.

Nongoak dira bisitariak?

Kontinente guztietatik datoz. Azkenaldian, asko dira Brasildik, Ameriketako Estatu Batuetatik edo Hego Koreatik datozenak. Mexikotik, Japoniatik, Herbehereetatik edota Finlandiatik ere etortzen dira. Berrogeita hamar herrialde baino gehiago zenbatzen ditugu urtero.

Eredua errepikagarria da beste lurralde batzuetan?

Ohikoa da entzutea MONDRAGONen oinarrian Euskal Herriko auzolan tradizioa dagoela eta nekez eraman daitekeela beste lurralde batzuetara. Hala ere, auzolana munduko leku askotan dago. Hego Amerikako hainbat lurraldetan, adibidez, *minga* deitzen zaio. Bestalde, hemengo kuadrilla bat hartuko bagenu, inor ez litzateke gai izango bereizteko lagunen artean nor den kooperatiba bateko bazkidea eta nork egiten duen lan beste mota bateko enpresa batean. Batzuk eta besteak antzerakoak dira.

Beraz, pertsona normalek lan egiten badute kooperatibetan –pertsona arruntak aparteko gauzak egiten–, pertsona normalek mundu guztian daudenez, zergatik ez erreplikarik? Arizmendiari eta jarraitzaileek barruan zutena arauetan txertatu zuten, estatutuetan; armazoi kooperatibo sendoa eraiki zuten, eta, aldi berean, pertsonen neurriera egindakoa. Horregatik, kanpoko bisitari horietako bat egunen batean kooperatiba bateko bazkide izango balitz, erraz moldatuko litzateke.

Berreskuratu duzue pandemia aurreko aktibitatea eta bisita kopurua?

Bai, eta aurretik baino lagun gehiago dator. Bidaiatzea posible ez zenean, lan berezia egin genuen MONDRAGONen Esperientzia Kooperatiboa mundura zabaltzeko; Interneten eskuragarri dagoen *Ezagutu MONDRAGON 22* kapituluko seriea grabatu genuen hiru hizkuntzatan. Jende gutxiago hurbilduko zela uste genuen; bai zera! Interesak gora egin du.

MONDRAGONen esperientzia azaltzeko beste modurik baduzue?

Otolara espazio bat ireki dugu teknologia berriekin MONDRAGONen esperientzia azaltzeko; mugimendu handia dago. Bestalde, Internet bidezko konferentziez gain, kanpotik gero eta gehiago eskatzen digute podcast-etan parte hartzeko.

Kooperatibak: etorkizuneko enpresa eredu?

Inork uste du biharko gazteek ez dutela estimatuko ordainsari ona jasotzea, erabaki garrantzitsuenak hartzerakoan boto bat izatea edota enplegu-segurtasuna? Edo zentzu gehiago aurkituko dutela akziodunentzat lana eginez, norberarentzat, lankideentzat eta gertuko gizartearentzat lana eginez baino?

Ezberdintasunari erantzuteko eredu

MONDRAGON eredu bertatik bertara ezagutzera munduko bazter askotatik datoz Debagoienara: "Asko harritzen dira kaleetan, komertzioetan edo soziedadeetan ikusten duten giro komunitarioaz eta bizitza kalitateaz. MONDRAGONeko kooperatiben ereduak eragina izango du horretan. Jeneralean, Debagoiengan dugu, eskualdeei dagokienez, EAEko errentarik altuenetarikoa, Espainiar estatuko langabeziarik baxuena, ikerketa eta garapenean inbertsio mailarik handiena, eta ezberdintasun ekonomiko txikiena. Bisitariak makina bat hobetzeko eta kontraesan identifikatzen badituzte ere, inspirazioa aurkitzen dute: desberdintasun ekonomiko gero eta gehiago areagotzen ari den munduari erantzuten dion eredu da".



Joseba Barandiaran LABORAL Kutxako Finantza Plangintza zuzendaria, erakundeak Arrasaten duen egoitzaren aurrean.

"Komunitate aberatsagoa, berdinzaleagoa eta jasangarria lortu nahi dugu"

JOSEBA BARANDIARAN

LABORAL KUTXAKO FINANTZA PLANGINTZA ZUZENDARIA,
JASANGARRITASUN ALORREKO ARDUREKIN

LABORAL Kutxak une gozoak bizi ditu. Baina irabaziez gain, beste helburu batzuk ere baditu erakundeak: langileak, bezeroak eta gizartea zaintzea

Joseba Barandiaran (Legazpi, 1973) ekonomialaria 2021etik ari da LABORAL Kutxan lanean. Finantza Plangintza zuzendaria da, eta jasangarritasun alorreko ardurak ere baditu Arrasateko kooperatiban.

LABORAL Kutxa kreditu kooperatiba bat da, bankua izateaz gain. Horixe da bere bereizgarria, beste finantza erakunde batzuekin alderatuta?

Hori, eta Mondragoneko esperientzia kooperatiboaren baitakoa izatea.

Hasieran, Aurrezki Kutxa edo Euskadiko Kutxa, Mondragoneko kooperatibentzat finantza erakunde izateko sortua. 2012az geroztik, oster, Ipar Kutxarekin bat egin eta LABORAL Kutxa da. Aldaketak aldaketa, hasierako helburuei heltzen die gaur egungo LABORAL Kutxak?

Bai, hain justu ere, komunitate aberatsago, berdinzaleago eta jasangarriak lortzea da gure helburua, kooperatiba kultura sustatuz.

Banka eta kapitalismoa eskutik doaz. Bi kontzeptu horiei kooperatiba batuz gero, zein da emaitza?

Banka egiteko beste modu bat, elkartasunetik abiatu eta arduratsagoa dena.

Kooperatiba bat izanda, erakunde lehiakorra ere bada. Zenbateraino da balioa kooperatiba izatea, lehiakorra izateko?

Egungo finantza erakundeekin lehiatu beharra akuilua da. Batetik, lan bazkideak inplikazio handiagoa sustatzen du; aldiz, kapitala handitzeko aukera zailtzen digu bankuekin alderatuta.

Merkatuko finantza erakunde fidagarrienetakoa da LABORAL Kutxa. Zergatik da hori?

Irauteko, sendoa izan beharra dago. Kaudimena zaindu behar da. Gu kooperatibaren behin-behineko jabeak gara. Etorkizunean ere LABORAL Kutxa hobe bat izan dadin ari gara lanean. Eta hori kaudimenean liderrak izanda bermatu nahi dugu.

Aurten, lehen seihilekoan, 109 milioi euroko irabaziak izan ditu, iaz epe berean lortutakoaren bikoitza ia. Urte ona izango da aurtengoa?

Guretzat urte oso ona izango da; 2008ko krisian hasi eta interes tasa negatiboak izan dituen aroaren amaiera. Baina gure nahia da gure bezeroen-



tzat ere urte ona izan dadin: aurreztaileei berriz ere euren aurrezkiak ordaintzeko garaia ere bada hau.

Azken urteetako urterik onena 2023a?

Etekin kontuaren arabera, bai. Baina ez diogu horri bakarrik erreparatu. Ez da gure helburu bakarra.

Ekonomian zaildua, analisi ekonomikoak egitera ohitua... Nola aurrekusten dituzu hurrengo urteak ekonomiarekin alorrean?

Egongaitasun eta zalantza giroan; aldakortasuna etxeko-tu zaigu: Europako gerraz harago, mundu multipolar batean gabilta. Hazkundera motelagoa izango da, baina demografiak langabeziaren kezka ere apaldu du. Prezioei tamaina hartu beharko diegu eta interes tasen normalizazioa barneratu.

Banku eta finantza erakunde guztiek izango dituzte irabazi handiak. Diruaren garestitzeak mesede egiten die bankuei eta finantza erakundeek?

Gure lehengaitza den aldetik, bai. Baina aurreztaileei ere egin die. Interes tasa negatiboek biziki zailtzen dute finantza bitartekaritza lana. Doako die-

selarekin gasolindegia mantentzea zaila litzateke.

Gertuko gerrek, inflazioak, diruaren garestitzeak... ekarri dute bizimoduaren garestitzea. Hainbatetan, herritarrak pobretzea. Kontrara, egoera horrek ekarri du bankuen eta finantza erakundearen irabaziak handitzea. Zergatik da hori? Paradoxikoa da? Ala logikoa da?

Inflazioak zorpetuei egin diezaieke mesede, bankuei edo ekonomiari ez. Interes tasak igotzeak mailegu eskaria txikitzen du, eta, hortaz, epe laburrean mesede dena, erdian kalte da. Gure komunitateak ongi badabilta, bankuak ere ibiliko gara. Gutxi-asko, egoeraren ispilu gara.

Bezeroak daude LABORAL Kutxaren erdigunean? Erakunde gardena da bezeroekiko, zentzu horretan?

Langileak, bezeroak eta gizarteak; hirurak zaintzea da gure erronka. Ingurukoen aldean erakunde txikia gara, eta gertutasunean egin nahi dugu azpimarra. Gure webgunean eta memorian gardentasuna nabaria da.

Asko aldatu dira bankuen eta finantza erakundearen bulegoak azkeneko urteotan, besteak beste, digitalizazioagatik. Nola egokitu da edo egokitzen ari da LABORAL Kutxa paradigma berri horretara?

Digitala eta aurrez aurrekoa konbinatu nahi ditugu, hibridatu. Gazte jendeak behar batzuk ditu, helduagoek beste batzuk. Bakoitzari berea ematen saiatzen gara.

Eraldaketa digitala nola egin du edo egiten ari da LABORAL Kutxa?

Internet bidezko banka, post-mail, bizumak... Kalitatezko zerbitzua eman nahi diogu eskakizun digitalak dituenari; ahal dela, besteak ahaztu gabe. Azken 15 urteetan, gainera, marjina estuek gastuak asko zaintzera behartu gaituzte.

Debagoiena eta kooperatibak lotuta doaz; baina berrikuntza ere. Eredugarria da, berrikuntzari dagokionez, LABORAL Kutxa, beste finantza erakunde batzuekin alderatuta?

Gizarte konpromisoan eta gobernantzan aspaldi berritu genuen, Mondragoneko esperientziaren baitan. Orain, ingurumenaren alorrean ere aurrerapausoak eman nahi ditugu, ESG deritzan alor horretan. Txikiak gara, baina ez eskasak.

Non eta nola banatzen ditu, bereziki, irabaziak LABORAL Kutxak? Hasieran aipatu dudana emaitzen banaketa zehaztuta dago,



Joseba Barandiaran.

zorrotz araututa gainera, eta horrek sinesgarritasuna ematen digu egitasmo gisa, jasangarritasunaren mesedetan, eta, era berean, erantzukizun handia da guretzat.

Gizarte erantzukizunari inportantzia handia ematen dio LABORAL Kutxak? Zein zentzutan?

Erantzukizun soziala gai zabal eta sakona da, gure finantza-jarduera eta barne antolaketa baitan daudela. Sinplifikatze aldera, laburbilduz eta soilik kanpo gizarte erantzukizunari dagokionez, LABORAL Kutxak bere irabazien %25 gizartera bideratzen du. Arrazoi argia bezain zuzena da; inguruko komunitatean eragin positiboa izan nahi duelako, bertan sortzen diren ekimentera lankidetzan jardunez. Eta ze irizpide erabiltzen dugun? Nagusiki, honako helburuak lortzen lagunduko duten ekimenak sustatzen ditugu: gure komunitatea jasangarriagoa izatea, aberatsagoa eta, aldi

berean, berdinzaleagoa, aniztasuna errespetatuz.

Hortik abiatuta, kultura eta euskara izan dira, betidanik, bultzatu izan ditugun lerro nagusi bi, nahita lehenetsiak, segur aski. Bestetik, komunitatearen kohesioarekin zerikusia duten proiektuak laguntzen ditugu, besteak beste, heziketarekin zerikusia duten ekimenak bultzatzen ditugu, bereziki ekonomia eta finantza arlokoak. Eta, azkenik, nola ez, Mondragon Korporazioaren esperientzia kooperatiboa bera ere laguntzea dugu xede.

Azken finean, taldeko kooperatibek dituzten helburuekin bat egiten dugunez, gure arteko elkarlanak biderkatu egiten du lortu nahi dugun eragin positibo hori.

Mondragoneko kooperatibentzat finantza erakunde izateko sortu zen LABORAL Kutxa –Aurrezki Kutxa–. Betetzen du funtzio hori?

Bete izan du, noski, eta orain ere betetzen du. Frankismo ga-

raitik gaur arte ikaragarri aldatu da finantza erakundeek eragiten dien testuinguru eta araudia. Baita txanpona ere, pezetatik eurora ez baikara alferrik pasa!

LABORAL Kutxak 65 urte egingo ditu datorren urtean, eta helburu zehatz batekin jaio zen: bere inguruan zeuden gabeziei erantzuna ematea, kooperazioaren bitartez, gizarte berdineko, aberatsago eta jasangarriago bat lortzeko. Kooperatiba mugimenduan hartan, LABORAL Kutxaren hasierako eginkizuna kooperatiba haiei finantzaketa ematea izan zen, baita kudeaketarako behar zituzten beste hainbat baliabide ere. Denborarekin hazten eta zabaltzen joan gara, eta gaur egun dugun bezeroen oinarria oso zabal eta anitza da.

Horregatik, kooperatibez harago kokatzen da gaur egun gure finantza jardunaren zati handi bat. Baina, zalantzarik gabe, kooperatibak eta kooperatibistak oso presente dauzkagu gure egunerokoan.

Jasangarritasunarekin bat egiten du. Nola kudeatzen du alor hori eta zein urrats ematen ari da erakunde moduan?

Ingurugiroan dugun eragin zuzena dago batetik; hor Leintz Bailarako Ekiolaren kide gara, berbarako. Produktu sorta oso eta berri bat eskaini nahian gabilta: aseguru jasangarriak edo erantzukizun sozialeko Konpromiso funtsa adibidez. Araudi aldetik, familia eta, batez ere, enpresen inguruko informazio eskakizunei erantzun nahian gabilta. Araudi zabala ari da Europa lantzen jasangarritasun alorrean eta guzti-guztioi eragingo digu. Gure negozioa bezala, planetak ere jasangarri behar du. Osterantzean, akabo.

LABORAL Kutxa, zifratan

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa 1959an sortu zen, sortzen hasi ziren Arrasateko enpresa kooperatiboen babes eta laguntza gisa. 2012an, Ipar Kutxarekin bat egin zuen, LABORAL Kutxa sortuz. Gaur egun, 1.993 langile ditu; horietatik, 1.825 lan bazkideak dira. 280 bulego ditu, guztira, Hego Euskal Herrian eta Espainiako 11 probintzietan –Madrildik iparraldera– banatuta. Iaz, 150,5 milioiko irabaziak izan zituen. Irabazi horiek honela banatu zituen: erdia, derrigorrezko erreserbetara; %15, Kooperatiben arteko Elkartasun Fondora; %10, Hezkuntza eta Sustapen Fondora; eta, gainerakoa, laurdena, bazkideen artean –kooperatiba zein langile–; hori ere erakundearen kaudimena sendotzeko gelditzen da.

"ETORKIZUNEAN ERE LABORAL KUTXA HOBE BAT IZAN DADIN ARI GARA ETENGABE LANEAN"

"URTE ONA IZANGO DA, BAINA GURE NAHIA DA GURE BEZEROENTZAT ERE URTE ONA IZATEA"

"GURE KOMUNITATEA ONGI BADABIL, BANKUAK ERE IBILIKO GARA. EGOERAREN ISPILU GARA"

"LANGILEAK, BEZEROAK ETA GIZARTEA; HIRURAK ZAINTEA DA GURE ERRONKA"

"GIZARTEAN BEZALA, INGURUMENAREN ALORREAN AURRERAPAUSSOAK EMAN NAHI DITUGU"

"LABORAL KUTXAK BERE IRABAZIEN %25 GIZARTERA BIDERATZEN DU; KOMUNITATERA"



Itsaso Larrauri pertsonen arduraduna eta Mirari Zilaurren lehendakaria.

Kooperatiba izaeratik, lankidetzaz sustatzen duen enpresa da LANA

Egurrezko kofratuen alorrean liderrak izatea da LANA Kooperatibaren helburua, baina, era berean, gizartearekiko duten erantzukizun sozialean gogor jarduten dute, bailarako, Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat eragile lagunduz eta lankidetzaz sustatuz

Baseritarrek 1960. urtean sortutako nekazaritza kooperatiba izan zen LANA 90eko hamarkada arte. Orduan bihurtu zen kooperatiba industrial, eta, gaur egunera bitartean, erreferente

bilakatu da egurraren sektorean, batez ere, iberiar penintsulan. Oñatin dute fabrika nagusia, baina Txekian ere badute beste bat, non kooperatibismoaren izaera zabaltzen saiatzen diren. Egurraren sektorean liderrak

izaten jarraitzea dute helburu, baina erantzukizun sozialari garrantzia berezia ematen diotela azpimarratzen dute Mirari Zilaurren lehendakariak eta Itsaso Larrauri pertsonen arduradunak.

Eragileekin lankidetzaz

LANA Kooperatibaren identitatean barneratuta dago beste eragile batzuekin lankidetzaz sustatzea eta haiei laguntza ematea. Bide horretan, etengabe parte hartzen dute bailarako zein inguruetako gizarte, kultura, hezkuntza eta kirol proiektuetan. "Azken urteetan horren aldeko apustua egin dugu, batez ere kirol arloan, inguruko eragileak ikusarazten laguntzeko eta hainbat herritako elkartei lagundu ahal izateko", dio Mirari Zilaurren LANAko lehendakariak.

Formakuntza landuz

LANAren beste erronketako bat da etorkizunean kooperatibaren parte izango diren profesionalak hezte eta haiei kooperatibismoa sentiaraztea. Horretarako, hezkuntzako hainbat alorrean ere jarduten dute, formakuntza espezializatuko pertsonak hezteko eta enpresara erakartzeko. Lan horretan, lankidetzaz aktiboa dute unibertsitateekin, prestakuntza-eskolekin eta institutuekin; zenbait dirulaguntza banatzen dituzte. "Gure harrobia eskoletan dago, baita gure kooperatibaren etorkizuna ere. Laguntza horiekin, prestakuntza horretan inbertitzen dugu, geroz eta profesional prestatuagoak beharko ditugulako etorkizunean", dio Itsaso Larrauri LANAko pertsonen arduradunak.

Kooperatibismoa zabalduz

LANAren historian bi mugarri daude kooperatiba izaeraren garrantzia nabarmentzeko. 1990eko hamarkadako eta 2007ko krisialdietan enpresa egoera larrian egon zen, baina bai kanpotik jasotako laguntzari eta baita barruan enpresak eginda-

ko lanari esker, gaur egun dagoen egoerara iristeko aukera izan dute. "Egoera horietan, egoera zail guztietan, oro har, kooperatiba izatea oso garrantzitsua da guretzat", dio Zilaurrenek.

Hori dela eta, LANAren parte direnek ere kooperatibista izaera sentitzeko lanean jarduten dute. "Bazkide egiten direnei LANAren parte izatera pasatzen direla sentiarazten saiatzen gara, enpresa barrutik biziko dutela ikusarazten", aitortu du Larraurik. Lanketa bera egiten saiatzen dira Txekian duten fabrikan, nahiz eta han ezinezkoa den kooperatiba sortzea. Edonola ere, erronka, partekatzen duten proiektu bateko kide direla sinetsaraztea dela azpimarratu dute biek.

Berdintasunera bidean

LANA kooperatibatik uste dute jendearen pertzepzioa dela gizonen zuzeneko soilik egin dezaketen lana dela. Horretarako berdintasun programa bat jarri zuten martxan duela hiru urte. "Etorrizunera begira emakume gehiago izatea nahiko genuke", dio Larraurik.

"GURE HARROBIA HEZKUNTZAN DAGO, ETA KOOPERATIBAREN ETORKIZUNA ERE BAI"

ITSASO LARRAURI

"KOOPERATIBA IZANGO EZ BAGINA, LANA ITXITA LEGOKE GAUR EGUN"

MIRARI ZILAURREN

LANA 60 years
Innovation from nature

Talde Lana Munduan Zehar

www.lana.eu



"Errealitatetik gertu ikertu, eta horrek eragina izatea gustatzen zaigu"

AINARA UDAONDO LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIKO ZUZENDARIA Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean dihardu lanean, kooperatibismoaren gainean ikertzen eta hezkuntza-ikastaroak ematen

Mondragon Unibertsitateko kooperatibismoaren ikertegia da LANKI, eta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean dago. Hamabost ikertzaile-irakaslek osatzen dute lantaldea; bertako kide da Ainara Udaondo (Bilbo, 1979). LANKIren aztergaia kooperatibismoa da, eta begirada bikoitz batetik egiten dute lan: ikerketa eta aholkularitza, eta hezkuntza eskaintzatik.

Kooperatibismoa duzue aztergai, eta, bereziki, MONDRAGONen esperientzia kooperatiboa jorratzen du LANKik. Zein dira "esperientzia" horren berezitasunak?

Kooperatibismoak tokian toki berezitasun ezberdinak hartzen ditu. Euskal Kooperatibismoak baditu bereizgarri propioak, beste mugimendu kooperatibo batzuekiko ezberdin egiten dutenak. Kanpotik begiratuta, hiru ideia azpimarratzen dituzte: aniztasun kooperatiboa, lan elkartuko kooperatiba kopurua, eta interkooperazioaren praktika. Gainera, gure kooperatibak erakunde sustraituak dira, eta gizarte eraldaketarako bokazio argia dute.

Garrantzi handia ematen diozue eskaintza formatiboari. Zergatik?

Alde batetik, ikertzen dugun hori gizartera eta erakunde kooperatiboetara bueltatzeko erantzukizuna dugula uste dugu; eta, unibertsitate garen neurrian, hezkuntzaren bidez eta hezkuntza-eskaintza berriak martxan jarriz egin dezakegu. Bestetik, etengabe elikatu behar da kooperatibaren identitatea, norabidea... Gure ustez, erakunde sendoagoak egiteko, hezkuntza eta hausnarketa kooperatibaren palanka ezinbestekoak dira.

Zein programa formatibo dituzue indarrean? Nori zuzenduta?

Sorta zabala dugu; hala nola nazioartera bideratutako master ofizial bat, eta hezkuntza-ikastaro laburragoak. Bi publiko nagusi ditugu: hemen inguruko kooperatibak, eta

"IKERTZEN DUGUNA GIZARTERA ETA KOOPERATIBETARA ITZULTZEKO ARDURA DUGULA USTE DUT"

hemendik kanpoko erakunde kooperatiboak, eragile sozialak edo ikerlariak.

Ikerketa eta aholkularitza dira LANKiren beste ezaugarri nagusietako bat. Zein proiektu dituzue esku artean?

Errealitatetik gertu dagoen ikerketa egitea gustatzen zaigu, ondoren, ikertutakoak eragina izan dezan. Gure begirada gure kooperatibismoaren ulermenean eta zailtasunei aurre egiteko aukerak aztertzean dago nagusiki. Azken urteetan, gobernantza kooperatiboaren gaia lantzen ari gara, baita erantzukizunaren gaia eta interkooperazioarena ere.

Argitalpen ugari kaleratzen ditu LANKik. Zer gai lantzen dituzue?

Gure kooperatibismoarekin zerikusia duten gaiak izaten dira normalean. Argitalpenen kasuan, bi foku ditugu: zirkuitu akademikoetan argitaratu beharreko artikuluak, eta dibulgaziorako egiten ditugun argitalpenak.

Laster, 23 urte beteko ditu LANKik. Zein da ibilbide horri buruzko balorazioa?

Talde sendoa dago, eta hari komun bat ere bai LANKI osatzen



Ainara Udaondo LANKiko zuzendaria.

dugunon artean: kooperatibismoa eta autoeraketa gizartea eta erakundeak antzartzeko praktika interesgarria dela ulertzea. Sinistu egiten dugu horretan. Urte hauetan guztietan egindako ibilbideak sendotu egiten du gure begirada, eta hezkuntza-es-

"ETORKIZUNERAKO IDENTITATE KOOPERATIBOAK ERAIKITZEN JARRAITU BEHARRA DAGO"

kaintzan ere asko hazi gara azken urteetan.

Etorkizunera begira, zein dira kooperatibismoaren erronkak? Eta LANKirenak?

Kooperatibismoan, enpresa estrategia eraginkorrak behar dira, eta identitate kooperatiboak ere elikatzen jarraitu beharra dago. LANKIren kasuan, gure ikerketak baliagarri izatea, gure kooperatibismoak dituen erronkei aurre egiteko, eta, gure hezkuntza-estrategiarekin, kooperatiba sendoagoak lortzeko erronka dugu.



Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia

XXI. MENDEKO KOOPERATIBISMOA ERAIKI.

- **Ikertu**, euskal kooperatibismoa eta Mondragoneko Esperientzia Kooperatiboa.
- **Eragin**, hezkuntza kooperatiboaren bidez.
- **Sakondu**, aholkularitza kooperatiben proiektu sozio-enpresariala garatzeko.

lanki.mondragon.edu



KOOPERATIBEN KONTSEILUA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



40 URTE

KOOPERATIBISMOTIK
ERALDATZEN ETA ILUSIOA PIZTEN



kooperatibenkontseilua.eus



Harixa ekimenaren lehen batzar orokorra Miguel Altunaren eguztenez, proiektua abiatu eta urtebetera. IÑIGO BARRENA

Harixa: orain artekoa bide emankorra izan dela diote

Euskara lan munduan hedatzea helburu duen Harixa egitasmoak urtebete egin du, eta asteon egindako batzar orokorrean modu positiboan baloratu dute egindako lana; oraingoz 37 enpresa eta eragile daude eta asmoa da 2024an bailara osora zabaltzea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Euskara enpresa munduan hedatzeko asmoz, Udalak Harixa egitasmoa jarri zuen martxan 2022. urte amaieran. Orain, egitasmoa sortu eta urtebetera, ekimenaren lehen batzar orokorra egin zuten eguztenez Miguel Altuna Lanbide Heziketan 24 enpresak eta bestelako eragileek. Orain arte emandako

urratsen balorazio positiboa egin zuten parte hartzaileek, enpresa ezberdinetan egindako diagnostikoa entzun eta ekintza planen aipamena egin ostean.

Orain arteko bidea, "positiboa" Eguazteneko batzar orokorrean datu batzuk eman zituzten: 14.739 biztanle dituen herria izanik, %67,8 euskaldunak dira Berga-

ran, eta Harixa ekimenari dagokionez, Bergaran 1.472 langilerengan du eragina.

Ainhua Lete alkateordeak azpimarratu zuen orain arte egindako bidea "positiboa" izan dela: "Duela urtebete jarri genuen martxan Harixa zer emango zuen jakin barik. Talde eragile bat sortu dugu Miguel Altunarekin, Emunekin, Udalarekin

Adinekoen beharrei erantzuteko kontseilua martxan jarri dute

Lau bergararretik bat gutxienez 65 urtetik gorakoa dela aintzat hartuta, askotariko helburuak zehaztu dituzte

J.B.L. BERGARA

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa ia bete egin zen martitzenean Adinekoen Kontseiluaren lehen bilerarako; ezin da ahaztu Bergarako biztanleriaren laurdena 65 urtetik gorakoa dela. Gorka


Artola alkateak sarrera bat egin ostean, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Zihortza Marzanekek gidatu zuen saioa, besteak beste, kontseiluak aurrerantzean izango duen funtzionamendua zehazteko. Honako helburu hauek

zehaztu dituzte: adineko pertsonen alde lan egin nahi duten pertsonen eta eragile sozialen sarea sortzea; adinekoen partaidetza, ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea; haiekin lotutako gaien inguruan hausnarketa egitea, elkarlanerako adostasun-puntuak biltzea eta adineko pertsonen ongizatea bultzatzeko ideia berriak sustatzea; adinekoen egoerak identifikatzea eta horiei erantzutea; eta, oro har, adineko pertsonen eskubideak eta interesak defendatzea.




Adinekoen kontseiluaren lehen bilera udaletxean, martitzen iluntzean. J.B.L.

Zer egin duzue Harixa-rekin batera?



GORKA LAZKANO
ARRIZUBIETA MIGUEL ALTUNA

"Enpresetatik jasotako kezka bat da lanbide heziketatik datozen ikasle kualifikatu euskaldunak falta zaizkiela. Aztertu dugu zergatik ditugun ikasleak A eremuan, eta diagnosi bat eginda ondorioak atera ditugu; horregatik hasi gara, besteak beste, atzerrikik etorritako talde batekin euskaraz lan egiten".



GARBIÑE SARASKETA
ARANZETA ROYDE ENPRESA

"Ez da erraza, baina pixkanaka ari gara, adibidez, enpresa barruko mezu batzuk bakarrik euskaraz jartzen eta beste batzuk elebitan. Gainera, uler saio batzuekin ikerketa txiki bat ere egin dugu, eta emankorra izan da. Urratsak ez dira handiak izan, baina bidea egiten ari gara, Harixa bidelagun dugula".

eta enpresa batzuetako langile batzuekin. Egitasmoa martxan jartzeko gutxienezko batzuk adosten zituen hitzarmen bat sinatu genuen enpresekin, eta hortik diagnostiko bat egin dugu urtebete honetan. Gutxienezko konpromiso batzuk baditugu oinarri sendo bat ematen ditugutenak, eta uste dugu enpresa berrietara heltzeko bidea ere ireki beharko genukeela".

Bailarara zabaltzea, 2024an

Letek nabarmendu zuen beste helburuetako bat dela Harixa Debagoien osora zabaltzearena: "Eusko Jaurlaritzarekin egin ditugu zenbait bilera, eta proiektua oso interesgarri ikusi dute. Orain bertan Mankomunitatearekin eta bailarako beste herriekin ari gara lanean, eta uste dugu hedapen hori 2024an gauzatzeko moduan egongo garela".

Elkarlan barik, etekinik ez

Harixa ekimenaren bidez, Udalak eta herriko 37 enpresa, talde eta eragilek euskara sustatzeko konpromisoa hartu zuten. Aurrerantzean emango dituzten urratsek, Leteren arabera, elkarlana izango dute oinarri: "Udalarena izan zen Harixa abiatzeko ideia, baina ez dago egitasmoa ulertzerik elkarlan barik. Udala badago talde eragilean, baina ezinbestekoa izango da bereziki Miguel Altunaren eta gainerako enpresen parte-hartze zuzena bermatzea helburuak bete daitezen".

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAREN ARABERA, 1.472 LANGILERENGAN DU ERAGINA HARIXA-K

"Kontziente izan edo ez, arrazistak gara oro har"

MOHA GEREHOU KAZETARIA, IDAZLEA ETA AKTIBISTA ANTIRRAZISTA

Ndank Ndank elkarteak gonbidatuta Irizar jauregiko Euskalduna aretoan hitzaldia eman zuen Gerehouk, 'Qué hace un negro como tú en un sitio como este' liburuaren egileak

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Ndank Ndank elkarteak gonbidatuta Irizar jauregian egon zen hilaren 16an Moha Gerehou, Huescan [Aragoi, Espainia] jaio-tako kazetari, idazle eta aktibista antirrazista. Ndank Ndank elkartearen ikasturte honetako elkarbizitza eta elkartasun programaren barruan etorri da Gerehou Bergarara, arrazismoa gaur egun egiturazkoa dela salatzen; *Qué hace un negro como tú en un sitio como este* liburuaren egilea da. Bestalde, ekimen beraren barruan, Ndank Ndank elkarteak *Atzoko eta gaurko migrazioak* izeneko beste hitzaldi bat antolatu du Jon Maiarekin eta elkarteko kide Mamadou Sarr-ekin; Seminarixoan izango da, abenduaren 14an.

Ze asmorekin etorri zara? Zer lortu nahi izan duzu hitzaldiarekin?

Bi helburu nagusirekin etorri naiz. Batetik, nire liburua aurkeztu nahi nuen; duela bi urte argitaratu nuen *Qué hace un negro como tú en un sitio como este* liburua, pertsona beltza izanda nire bizipenetan oinarritua dagoena. Huescan jaiotakoa izanda, nire bizipen eta esperientzia pertsonalek balio didate esateko Espainian egiturazko arrazismoa egon badagoela eta oso hedatua dagoela. Arrazismoa dago komunikabideetan, harreman pertsonaletan, hezkuntzan eta gizarteko edozein arlotan. Bigarren helburu bat ere bada hitzaldi hauek balio izatea bertaraten diren horiek ikus dezaten arrazismoa ze presente dagoen euren egunerokoan. Horrez gain, borroka antirrazista eguneroko eginbeharra dela ulertarazi nahi dut; hau da, manifestazio jendetsuetara joateaz harago, gure eguneroko askotariko arloetan ekintza txikiak eginez aldaketa handi bat eragin dezakegula.

Esan nahi duzu ez gaudela nahikoa ondo hezita antirrazistak izateko?



Moha Gerehou liburua eskuan duela, Irizar jauregian. J.B.L.

"ARRAZISMOAREN AURKAKO BORROKA EGUNEROKO EGINBEHARRA IZAN BEHAR DA"

Uste dut arrazismoan hezita gaudela. Arrazismoa modu askotara ikasten dugu, askotan modu ez-kontziente batean. Arrazismoa ikasten dugu komunikabideetan pertsona beltzak etengabe modu jakin batean erakusten dizkigutenean; gaizkile moduan, borrero gisa edo paperik gabeko etorkin moduan aurkezten dizkigutenean. Aldiz, ez ditugu pertsona beltzak euren eguneroko lanean ikusten edo, adibide simple batean azalduta, hegazkin batetik turista moduan jaisten. Lengoiak, pelikulek, telesailek... horiek guztiek ideia bat sortzen digute, eta uste dugu hori dela errealitatea. Kontinente afrikarra, adibidez; askok uste dute oraindik Afrika oiha eta jende txiroa dela bakkarririk. Afrikaren gainean ere oso estereotipatutako irudia dugu. Hitzaldi edo saio hauek baliatu

tu behar ditugu irudi hori guztia aldatzeko eta benetan antirrazista izango den heziketa jasotzeko. Hori gutxika barneratzen joan behar gara; luzea izango da bidea.

Ikasi baino gehiago desikasi egin beharko genukeela uste duzu?

Bai, esango nuke ariketa bikotza dela gizarte moduan egin beharko genukeena. Denok ikasi dugu arrazismoa, berau pairatu edo ez. Hain zuzen ere, galdera gakoetako bat hor dago: sistema arrazista honek nori egiten dio mesede eta nori kalte? Horren gainean hausnartu egin beharko genuke. Nik neuk joera arrazista nabarmena izan dezaket, esate baterako, ijitoekiko. **Ijitoekiko arrazismoa ere oso hedatua dago gure inguruan, edo?**

Zalantza barik. Oso errotua eta hedatua dago; izan ere, denok ikasi dugu arrazistak izaten ijitoekin. Hori bai, garrantzitsuena da ikastea nola egin diezaioketun aurre horri, batetik, arrazistak garenok ez gaitezen izan eta, bestetik, gizarte mailako eraldaketa eragin eta gure arteko harremanak arrazakeriaren kontrakoak izan daitezten.

Martxan dago Danobatgroup-en Euskararen Eguneko lehiaketa

Kooperatiba taldearen webgunean har daiteke parte, otarre baten zozketan sartzeko; azken eguna da abenduaren 3a

J.B.L. BERGARA

Euskaraz izango gara leloa mantenduz, aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari zuzenduta dago. Abenduaren 3ra arteko epea dago lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena eman dutenen artean produktu ekologikoz betetako otarre bat zozkatuko da; honako lotura honetan sartuta har daiteke parte:

[Info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html](https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html).

Konpromisoa euskararekin

Danobatgroup taldeak euskararekin duen konpromisoa berretsi nahi izan du gizarte osoari bideratutako lehiaketa honekin: "*Euskaraz izango gara* da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan...".

Adimen artifizialari euskaraz irakasteko saioa, hilaren 3an

Gaitu proiektuaren *Batu ditugun gure ahotsak* ekimenarekin bat eginez, Udalak eta Jardun euskara elkarteak teknologiarri eta adimen artifizialari euskaraz irakasteko saioa antolatu dute abenduaren 3rako, Seminarixoan, 10:00etatik 14:00etara. 20 urtetik gorako herritarrei dago zuzenduta, eta ordu erdiko txandak izango dira; honako

lotura honetan eman daiteke izena: [Euskara.bergara.eus/eu/gaituauzolana](https://euskara.bergara.eus/eu/gaituauzolana). Umeendako zaintza zerbitzua egongo da, eta ekimenari laguntzea erabakitzen duten partaideentzat salda eta txorizoa egongo dira.

Antolatzaileek dei egin diete herritarrei ekitaldian parte har dezaten: "Teknologiarri eta adimen artifizialari euskaraz irakatsi behar diogu mundu digitalean euskaraz aritu ahal izateko. Milaka ahots behar ditugu; zurea ere bai, zatoz!".

OHARRAK

Azaroak 25: autodefentsa feminista tailerra

Emagin elkarteak eta Udalak antolatuta, bihar egingo dute ikastaroa, Agorrosinen. Sei orduko tailerra izango da, 09:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara; aurrez eman behar da izena: berdintasuna@bergara.eus edo 943 77 91 00.

November Gara ekimenaren azken ekintzak

Gaur txistepoteoa izango dute Iralan (19:00), eta bihar Martxanterek deitutako manifestazioarekin (Munibe plazatik, 12:30ean) bat egingo dute; ondoren, biboteen enkantea Iralan.

'El caso Freytter' dokumentalaren aurkezpena

Dokumentala aurkeztuko dute hilaren 28an Seminarixoan egingo den ekitaldi pribatu batean. 2001eko abuztuaren 29an hilda aurkitu zuten Freytter, tortura zantzuekin, eta dokumentalaren egileen arabera Kolonbiako historiaren "alde ilunenaren" pasarte bat da. Informazio gehiago nahi dutenek [Freytter.eus](https://freytter.eus) webgunea bisitatu dezakete.

Odola emateko hurrengo hitzordua

Azaroaren 29an odola emateko aukera egongo da, San Joxepe elkartearen dagoen Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.

Burua hotz, bihotza bero eta hanka finak bizi-bizi

Karakateko Igoera irabazi du Aritz Unamuno bergararrak, mendiko tartean hegan egin ostean: "Nire ezaugarriekin bat dator aldapan gora ondo moldatzea". Inguru kuttuna du Karakate, bertan egin zuen-eta lehen lasterketa: "Osagai bereziak ditu niretzat"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkartek antolatutako Karakateko Igoera irabazi zuen hilaren 18an Aritz Unamunok (Bergara, 2000). Ingeniaritza Biomedikoa Arrasaten hasi zen ikasten, Alemanian jarraitu zuen ikasketekin eta gaur egun masterraren bigarren ikasturtea egiten ari da Alacanteko Alcoi herrian. "Hiriburu baten jarraitu nezakeen, baina nahiago izan nuen herri batera etorri eta lasaiago bizi".

Aldapan gora dabil gusturen

Joan den zapatuan 27 minutu eta 51 segundo behar izan zituen Elgoibarko plazatik Karakate-rainoko 700 metroko desnibel positiboa gainditzeko; "sasoi oso onean" heldu zela dio Unamunok: "Argi nuen Karakatera sasoirik onenean heldu nahi nuela, aurretik egindako probetan arantzatxo bat geratu zitzaidan-eta. Gainera, ia hiru hilabete daroztat Ander Armendia entrenatzaile berriarekin, eta uste dut oso lan ona egiten ari garela. Hor daude emaitzak, Karakaten izandako sentsazio ederrak dira horren adierazgarri garbia".

Lasterketaz gozatu egin zuela dio: "Oso gustura lehiatu nintzen. Hasierako kilometro eta erdia izan zen deserosoena niretzat, asfaltoan egin beharrekoa zelako. Mendian eta aldapa gora gozatzen dut gehien eta Karakaten ere hala izan zen; San Roken gora mendia hasi zenean makilak hartu eta berehala jarri nintzen lasterketa buruan. Oso ondo eta gustura sentitu nintzen lasterketa osoan".

Asfaltoan hobetzeko bidean

Mendian eta aldapan dabil gusturen, baina asfaltora ohitzeko lanean ere banabil: "Entrenatzaile berriarekin nabilenetik esango nuke banabilela asfaltoko tartek ere hobetzen; Karakaten bertan igarri nuen. Hori bai, betidanik mendian ibili izan naiz eta ohituago nago; gainera, nire gorputzaren ezau-

KARAKATETIK ERE PASATZEN DEN IÑAKI RUIZ PROBA IZAN ZEN LEHENA, IA PRESTATU BARIK EGIN ZUENA

garriengatik aldapan gora moldatzen naiz ondoen".

Bihotzean darama Karakate

Proba berezia da Karakateko Igoera korrikalari bergararrentzat: "Itzela izan zen lehen postuan helmugaratzea. Baziren lau urte etxe ondoko lasterketa hau egin gabe, eta ez nituen oso oroitzapen onak gordetzen. Eurria, elurra eta hotza egin zuen duela lau urte, eta aurtten kontrakoa izan da, sekulako giroa. Horrek eragin zuen mendian askoz jende gehiago egotea animatzen eta, beraz, nik neuk ere askoz gehiago disfrutatzea".

Garaipena nori eskaini nahi dion galdetuta, honako hau adierazi du Unamunok: "Gurasoei eta neskalagunari eskaini nahi diet txapela, eguneroko babesa dira-eta". Ezin da ahaztu, gainera, Karakate eta Irukurutzeta inguruetan hasi zela mendiko lasterketetara zaletzen: "Ez dakit 2015ean edo 2016an izan zen, baina orduan hartu nuen lehen aldiz parte Soralezeko San Andres auzoko Iñaki Ruiz mendi lasterketan; 21 kilometroko proba bat egin nuen apenas prestatu barik; hori izan zen nire lehen esperientzia. Lasterketa hori ere Karakate pasatu zen, nire aita Soralezeko San Andres auzoan jaio zen... Osagai bereziak dira niretzat, Karakate eta ingurua berezi egiten dituztenak".

Zegamako kilometro bertikalera

Aurrera begira, "nahiko argi" dauka Unamunok 2024ko udaberrian Alcoi ondoko Puig Campanako proban eta Zegamako kilometro bertikalean parte hartuko duela; iaz lortu zuen-eta azken proba horretarako dortsala: "Lau urtez saiatzen ibili ostean, azken aldian tokatu egin zitzaidan itxaron zerrendan egonda, eta denbora txukuna egin nuenez bermatuta daukat hurrengo parte hartzea".



Goizper BKE taldeko jokalaria aldagelan, azken garaipena ospatzen. BKE

Bederatztik bederatzi irabazita, onenen arteko liga hastera doa

Maila probintzialeko bi multzotako hiru onenen artean lehiatuko dira hurrengo fasean Goizper BKEko neskek

J.B.L. BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko Eskubaloi Saileko gazte mailako nesken taldeak nekez ahaztuko du denboraldiaren hasiera hau. Maila probintzialeko bigarren multzoaren barruan jokatu dituzten bederatzi partiduak irabazi dituzte Goizper BKE taldeko neskek. Joan den asteburuan jokatu zuten multzoko azken partidua Astigarragako Mundarro taldearen aurka, eta bergararrak 35-12 nagusitu ziren; hasietarik amaierara kontrolatu zuten partidua, inongo aukerarik eman gabe Astigarragako taldeari. Azpimarratzekoa da Nahia Lopez jokalaria hamaik gol sartu zituela.

Datorren asteburutik aurrera bi ligaxketako hiru onenen arteko liga hasiko du Goizper BKE taldeak. Helburua izango da orain arte erakutsitako maila onari eustea eta lehen hiruren

artean amaitzea, hurrengo fasea sailkatu ahal izateko.

Soraluce BKEk, liderraren bisita

Bestalde, senior mailako gizonzkoen taldeak denboraldiko bigarren porrota jasan zuen joan den asteburuan. Zumarragan jokatu zuen Soraluce BKE taldeak Urola Laztimendi eskubaloi taldearen aurka eta 31-24 galdu zuten bergararrek; defentsan zein erasoan egindako akatsek eraginda galdu zuten. Galdu arren, Soraluce BKEk laugarren postuan jarraitzen du; hori bai, atzeko taldeak gerturatu eta goikoak urrunditu egin zaizkie azken jardunaldi honen ostean.

Bihar, zapatua, liderraren bisita izango dute, Legazpiko Laubide Jatetxea taldearen kontra jokatu dute-eta -Labegaraietan, 18:00etan-. Liderra mendean hartu eta goiko postuei begira jarraitu nahi dute mahoneroek.



Aritz Unamuno esfortzu betean, hilaren 18ko Karakateko Igoeran. A.U.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurri
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Enpresa Registrada N°90/025



Urretxindorrek taldea 1969an Bergarako pilotalekuan eskainitako emanaldi batean. ROMAN LARRAÑAGA, BERGARAKO ARTXIBOA

Musika jarriko die Bergarako Bandak Urretxindorranken txioei

Santa Zeziliako kontzertua emango du Bergarako Musika Bandak domekan, Udal Pilotalekuan, 12:30ean hasita, eta lehen aldiz joko dute Enrike Txurruka zuzendariak egin duen Urretxindorrek talde bergararraren abestien moldaketa

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Bergarako Musika Bandak domekan eskainiko du Santa Zeziliako kontzertua eta lehen aldiz joko dute Enrike Txurruka zuzendariak eginiko Urretxindorrek talde bergararraren abestien moldaketa. Julio Unamunok, Gotzon Bikuñak, Juan Mari Narbaezek eta 2005ean zendutako Raul Calvo bergararrak osatzen zuten taldea, eta martitzenean izan zuten "sorpresa itzelaren" berri: "Guretzat ohore handia da horrelako gauza bat herriko bandak egitea. Eskerrak eman besterik ez. Duela 57 urte hasi ginen kantuan eta gurekin gogoratzea banda, konkretuki Enrike Txurruka, guretzat pozgarria eta polita da", dio Gotzon Bikuñak.

Txurrukaren esanetan, ez dira euskal kanta edo taldeen moldaketa asko bandarako es-

kuragarri, eta "aspaldian" euren ekarpena egin nahian dabilta: "Alfredok ere egiten zituen, eta ni ere saiatzen naiz alor hori indartzen. Moldatu izan ditugu Su Ta Gar, Berri Txarrak, Itoiz, Ruper, ZETAK... Urretxindorrek egiteke genuen. Ez zuten meritu makala izan, sasoi zail hartan euskaraz abestea erabakitzean. Lan handia egin zuten eta hainbat abesti euskal kantutegi herrikoian geratu dira. Egin zaizkie omenaldiak eta guk ere gurea egingo diegu. Beraien herrigintza lana eredu da guretzat, eta gu ere horretan saiatzen gara". Bikuñari Txurrukak dioena helarazita, hauxe esan du: "Potentea da hori e..." .

Dozena bat abesti

Oraindik ez du Txurrukarekin egoteko nahiz moldaketa entzu-

teko aukerarik izan. "Popurri bat" dela daki soilik eta Txurrukak ez du aurreratu ze aukeraketa egin duen. Hala ere, asmoa hiruzpalau abestiren moldaketa egitea bazuen ere, dozena bat sartu ditu: "Antzeko erritmodunak bata bestearen ondoren jarri ditut jarraipen musikala egon dadin. Baina, gero, oso moldaketa libre egin ditut, bai erritmoan, bai harmonian. Espero dut eurak ez beldurtzea".

Urretxindorreak kideari moldaketa zein abestik osatu

"GURETZAT OHOREA DA HORRELAKE GAUZA BAT EGITEA HERRIKO BANDAK"

GOTZON BIKUÑA, URRETXINDORRAK



Begarako Musika Banda frontoian emandako kontzertu batean. GOIENA

Domekako kontzertuko egitaraua

Hilaren 26an, domeka, izango da Bergarako Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertua Udal Pilotalekuan, 12:30ean; baina eguraldiak laguntzen badu, aurrez, 11:00etan hasita, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Behin frontoian, bost pieza interpretatuko dituzte. Honakoa da prestatu duten egitaraua: Oscar Navaroren *Andrés Contrabandista*, gaur egungo pasodoble bat "ukitu oso berritzaileekin"; Jose Maria Usandizaga donostiarraren *Las Golondrinas* zarzuelako *Pantomima*; Ed Huckleby estatubatuararen *By the rivers of Babylon* obra erritmikoa; Hans van der Heidenek egindako *Indiana Jones selection*, film horretarako John Williamsen soinu bandaren moldaketa; eta, azkenik, Enrike Txurruka bandako zuzendariak egindako Urretxindorrek Bergarako taldearen abestien moldaketa.

nahiko lukeen galdetuta azaldu du kontu bat dela berak zeintzuk nahiko lituzkeen, eta beste bat dela bandarako zeintzuk egokitu daitezkeen: "Niri, adibidez, oso abesti melodikoak gustatzen zaizkit, baina iruditzen zait horiek ez direla banda batek jotzeko modukoak. Bandako zuzendariak berak topatu behar ditu bandara moldatzeko kantuak. Enrike ezagututa, ziur ondo egin duela; artista bat da". Ia beti joan ohi da bandaren kontzertuetara, eta oraingo honetan ez du hutsik egingo, ezta bere taldekideek ere.

Domekan ikusiko da

Talde batek baino gehiagok egin ditu Urretxindorranken abestien bertsio eta moldaketak. Horren adibide da 2016an, taldearen 50. urteurrenean, esaterako, Bergarako talde ezberdinek egin zieten omenaldia. Domekarako kontzertura begira, "poza eta

"URRETXINDORRAK TALDEAREN HERRIGINTZA LANA EREDU DA GURETZAT"

ENRIKE TXURRUKA, BERGARAKO MUSIKA BANDA ZUZENDARIA

urduritasuna" sentitzen ditu Bikuñak, ordura arte ez baitu jakingo nola entzungo diren euren abestiak bandako instrumentuen erritmora: "Momentuz, nire buruan ez dut imajinatzen nahasketa horiek nolakoak izango diren".

Atzera begira

1966an egin zuen lehen kantaldia talde bergararrak, eta euskal kulturaren eta folkloreaken lorradiaren sasoi paper garrantzitsua izan zuten, Frankismoaren garaiko zentsurari aurre egin nahian: "Gu garai gogorretakoak gara, zentsura zegoenekoak". Adierazi du jaialdien aurretik antolatzaileek esaten zieten zer abestu eta zer ez, eta *Aitorren hizkuntz zaharra* kantarekin izandako anekdota bat ere kontatu du: "*Grabable, pero no radiable* zela esan ziguten. Grabatu genezakeen, baina ezin genuen irratietan jarri. Horrelakoak gaur egun ezin dira burutik pasa ere egin".

Duela 50 urte desegin zen Urretxindorrek, eta euskal kantagintzaren bilakaeraz galdetuta, Bikuñak dio kalitatea beti topatu izan dela, baina orduan oinarritzakoak zirela abestiek helarazten zituzten mezuak.

UNED

UNED-BERGARA IKASTETXEAREN 2023/24 IKASTURTEKO IREKIERA-EKITALDIA ETA DIPLOMEN BANAKETA

UNED-Bergara ikastetxeak aukera ematen du ikasketak hasi edo jarraitzeko, prestakuntza areagotzeko edo hizkuntzak ikasteko, betiere bizitza pertsonalarekin eta profesionalarekin uztartuz.

UNED-Bergara ikastetxearen 2023/24 Ikasturte Akademikoaren irekiera-ekitaldia Bergarako udaletxeko Osoko Bilkura aretoan egin zen. Ekitaldi horretan, halaber, diplomak banatu zitzaizkien iaz ikasketak amaitu zituztenei.

Oraingoan, Historiako doktore, UNED-Bergarako irakasle tutore eta nazioarteko politikan aditu **Carlos Larrinaga Rodríguez** eman zuen ohikoa den hasierako irakasgaia, **Munduko ordena berria ulertzeko zenbait giltzarri** izenburupean.

Ekitaldian izan dira **Gorka Artola** Bergarako alkatea, **Iru**

Berasaluze Gobernantzako foru-

diputatu eta Gipuzkoako Foru

Aldundiaren bozeramailea, **Miren**

Artaraz Eusko Jaurlaritzako

Unibertsitate Politika eta

Koordinazioko zuzendaria, eta

Iñaki Esparza UNED-Bergarako

zuzendaria. **Iñigo Tejera** Urrutiko

Hezkuntzarako Unibertsitate

Nazionalaren (UNED) Ikastetxe

Elkartuetako errektoreorde

albokoak ofizial egin du ikasturte

berriaren hasiera, eta erakundeek

UNED-Bergara Proiektuari

emandako babesa ez ezik,

Bergarako ikastetxeko

zuzendaritza-kudeaketa ere

eskertu ditu.

Irekiera-ekitaldia bat etorri da

UNIBERTSITATE-GRADUAK

eta **UNIBERTSITATE-MASTER**



Irekiera-ekitaldia Bergarako udaletxeko Osoko Bilkura aretoan egin zen azaroaren 17an.

ESKAERA HANDIA DU URRUTIKO UNIBERTSITATE-PRESTAKUNTZAREN MODALITATE HONEK

PERTSONA BAKOITZAK NAHI DUEN KREDITU KOPURUA AUKERATU DEZAKE

BEREN PRESTAKUNTZA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA PROFESIONALA BATERATU DEZAKETE

ikasketak egiteko aukera ez ezik, Bergarako ikastetxera joateko aukera ere ematen baitie. Horri esker, ikasle berriek ikastetxea eta bertako langileak ezagutu eta balia ditzakete, eta, aldi berean, ikaskideekin eta tutoreekin laguntza-sareak osa ditzakete. UNED-Bergara ikastetxeari esker, gipuzkoar askok hasi zuten karrera amaitu dezakete, beste bat hasi edo beren prestakuntza berezko ikastaroekin osa dezakete. UNED-Bergarako jakintza-arlo guztietako unibertsitate-ikasketa ofizialak eskaintzen ditu. 2023/24 ikasturte honetarako, **unibertsitate ikasketak eskaintzen ditu 30 gradutan, 11 gradu konbinatutan, 80 masterretan, 11 mikrogradutan, mikromaster batean eta 20 doktoretza-programatan.**

Ikasketa horiez gain, **UNED-Bergararen Berezko Ikastaroek** eta Etengabeko Prestakuntzaren esparruan ematen diren ikastaroek osatzen dute eskaintza. Ikastaro horiek oso finkatuta daude, eta horien artean daude **Psikomotrizitate Eskola, Liburutegiko Laguntzaile Ikastaroa, Idazle Eskola, Osteopatia eta Gobernantza, besteak beste. Bestalde, Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate Zentroaren** bidez ingelesa, frantsesa, alemana eta



San Martin Agirre plaza, 4,
20570 Bergara, Gipuzkoa
943 76 90 33
www.uned.es/ca-bergara

euskara ikas daitezke. Eta **25 eta 45 urtetik gorakoentzako unibertsitate sartzeko** probarako prestakuntza ere egin daiteke.

IREKIERA-HITZALDIA
Inaugurazio-hitzaldia **Carlos Larrinaga** eman du. Hitzaldi horretan, bere ustez nazioarteko eremuko jarraibide berrien giltzarrien berri eman du. Horien artean daude nazioarteko beste eragile batzuen sorrera -hala nola BRICS herrialdeak- eta kontrol hegemonikoaren borrokan Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren arteko egungo norgehiagoka. **Carlos Larrinaga** Historia Garaikideko doktorea da, irakasle bisitaria Europako eta Latinoamerikako unibertsitateetan eta aditua nazioarteko harremanetan. Gainera, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioi lau bikaintasun-proiekturen ikertzaile nagusia da, eta Estatuko Ikerketa Agentziako ebaluatzailea.

UNED-BERGARA IKASTETXEA 50 URTE BETETZEAR DA
UNEDek eskaintzen duen ikasketa-metodologiak ikasleen denborara eta inguruabarretara egokitzeko aukera ematen du. Online prestakuntza, erdi-presentziala eta tutoretzapekoa, eskaintzen du. Dena dela, prestakuntza hori osa daiteke UNED-Bergara ikastetxeko eskola presentzialekin. Pertsona bakoitzak nahi duen kreditu kopurua aukeratu dezake, eta ez da zertan kurtso osoan matrikulatu. Hartara, nor bere eritmoan ikasi ahal izateaz gain, onura ekonomikoa ere bada, ez baitu kurtso osoa ordaindu behar. Ikasleen profila askotarikoa da: gazteak, adinekoak, familia-kargak dituzten gizonak eta emakumeak, erretiratuak, birziklatu nahi dutenak edo beren prestakuntza zabaltzeko nahi dutenak.

goiena[“]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Antzuolako txarangaren entsegua martitzenean, hilaren 21ean, Olan kultur etxean. A.R.K.

Lehenengo urratsak egiten hasia da txaranga

Bergarako Musika Eskolak eta Antzuolako Udalak abiatu dute proiektua, "oinarrizko" txaranga bat sortzeko asmoz herritarrekin. Haize- eta perkusio-instrumentuak dituzte, eta lehen kankak ikasten dabilta; batez ere, kalejirak. Klean jo nahi dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Bittor Giral Bergarako Musika Eskolako tronboi eta solfeo irakaslearen gidaritzapean, lehenengo urratsak egiten hasia da Antzuolako txaranga. Hirugarren entsegua egin dute asteon, eta 11 lagun batu dira.

Bergarako Musika Eskolaren eta Antzuolako Udalaren arteko hitzarmen bat da proiektuaren abiapuntua, Giralek azaldu duenez. Haren arabera, aurreko aldi batzuetan ere musika eskola saiatu izan da txaranga martxan jartzen, baina gaur arte ez da posible izan. "Animatu dira, eta lortu dugu esperimendu antzeko bat, behintzat, egitea. Probatu egingo dugu. Ea nola doazen lehen entsegua, zenbat jende agertzen den...". Udalak deialdi ireki bat egin baitzuen txaranga parte hartzeko, baina batik batik haize- eta perkusio-instrumentuak jotzen dituztenentzat.

Izan ere, txarangaren formatua eta instrumentuak "oinarrizkoak"

izango direla adierazi du zuzendariak: "Dunbala, kaxa, txindatak, tronpetak, tronboiak, saxofoiak... baita tuba ere, momentu honetan ez dugun arren". Hain justu, azken bizpahiru entseguetan lauzpabost saxofoi, tronboi bat, tronpeta bat eta dunbal-jole bat batu dira, eta Giral ere txarangaren parte izango da, tronboiarekin.

Lehenbizi, kalejirak

Lehen entseguetan kalejirak jotzen hasi dira, oinarrizkoak baitira era honetako taldeetan. "Kaleetik zehar ibiltzeko, atril txikiarekin partitura jarrita, leku batetik bestera joateko...", kontatu du Giralek. Eta, hain justu, hori bera dute helburu

BIDEAN URRATSAK EGINDA, HERRIKO JAIETAN TXARANGA "SENDU" BAT IZAN NAHIKO LUKETE

parte hartzaileetako batzuek ere. Aratz Aranburu eta Paul Garitano, esate baterako, duela bi urtez geroztik, saxofoi joleak dira, eta kantuak ikasi ostean, txarangarekin kaleak alaitu nahiko lituzkete jaietan. Are gehiago, baita Beñat Legorburu saxofonistak ere. "Sei urte daramatzat instrumentu honekin, eta pixkanaka praktikatu iritsi nahiz honaino. Entsegu batera etorri naiz, eta oso ondo pasatu dut. Gozatu egin dugu".

Egin nahiak

Txaranga ez du helbururik jarri, lehen asmoa egunerokoan nola funtzionatzen duen ikustea baita, Giralen arabera. Hala ere, nabarmendu du "bide onean" joanez gero, herriko jaietan "txaranga sendu bat izatea perfektua" litzatekeela. Alabaina, oraindik bidea dute egiteko, eta bada parte hartzeko aukera ere. "Jotzeko gogo duenak probatu dezala; ez bada gustukoa, libre da joateko".

Mairuaren Alardearen inguruko batzordea osatu nahi du Udalak

Mairuaren Alardea Kultur Elkarteak, Udala eta herritarrak bildu nahi ditu batzordearen lehen bileran, hilaren 28an

A.R.K. ANTZUOLA

Mairuaren Alardearen inguruko batzorde bat osatu nahian dabil Antzuolako Udala, Olatz Lezeta alkateak jakinarazi duenez. "Kontuan izanda Mairuaren Alardea Kultur Elkarteak alardearen inguruan egiten duen lana eta alardeak berak herrian duen balioa, Udaletik alardeari bultzada bat emateko gogoz gatz". Haren arabera, helburu dute batzorde horren parte izatea Mairuaren Alardea Kultur Elkarteko kideak, herritarrak eta Udaleko ordezkariak.

Horretarako, ordea, herritarren "laguntza" behar dutela ohartarazi du. "Zuk inork baino hobeto ezagutzen duzu alardea barrutik. Zer hobetu daitekeen denon artean erabaki eta beste urte askoan alardeak aurrera egingo duela sinesten dugulako gogotsu, lanean jarraitu nahi dugu".

Bada, erantsi du horretarako aukera izango dela osatu nahi duten batzordean. Martitzenean, hilaren 28an, izango da lehen batzarra, 18:30ean, udaletxeko bilera gelan.

Camposek trantsizio energetiko korporatiboa izango du hizpide

EHUko ikerlari eta irakasleak eguaztenean emango du hitzaldia, gazteleraz, ikerketa eta aktibismoa uztartuta

A.R.K. ANTZUOLA

Meaka-Irimo herri plataformak aurrerapausoak ematen jarraitzen du, eta Alvaro Campos Celador EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea eta irakasle laguntzailea gonbidatu du *Análisis de la transición energética corporativa* (Trantsizio energetiko korporatiboaren analisia) hitzaldia ematera. Eguaztenean, azaroaren 29an, izango da solasaldia, Torresorako aretoan, 18:30ean.

2012az geroztik ingeniariaritzaren terminoan da doktore Campos,

eta askotariko gaietan egin ditu ikerketak: tartean daude, besteak beste, eraginkortasun energetikoa, biltegitarte termikoa eta energia berriztagarriak. Egun, Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduan dihardu lanean, baina nazioartean ere aritzen da; esate baterako, Hasselt-eko (Belgika) PXL unibertsitatean. Are gehiago, "bidezko trantsizio energetikoarekin, sistema deszentralizatuen eta kooperatiba energetikoen arloko aktibismoarekin" uztartzen du bere ikerketa jarduna.

Hiru futbol partida, asteburu honetako kirol hitzorduak

AKE Antzuolako Kirol Elkarteak antolatuta, hiru hitzordu ditu futbolak. 2010eko eta 2011ko nesken infantilen partiduak izango dira bihar, azaroak 25, 10:00etan, Eztalan, eta gizonezkoen erregional mailako txanda izango da arratsaldean. Aretxabaletako UDA taldea izango dute aurkari 15:30ean hasiko den partiduan.

Landatxoeko tabernakoan afarian izena eman daiteke

Beste urte batez, Landatxoeko jubilatuen elkarteko tabernan aritzen diren boluntarioen afaria egingo dute. Abenduaren 1ean, egubakoitza, izango da, 19:30ean, elkartean. Batzordeko kideek adierazi dutenez, ordea, lehenago eman behar da izena; horretarako, barran dagoen orrian apuntatu behar dela ohartarazi dute.

"Bizipen oso polita izan da OTn parte hartzea"

UNAI CANTABRANA AMESTI MUSIKARIA ETA ABESLARIA

Emozio handiko asteak izan dira elgetarrarendako. Operacion Triunfo lehiaketako azken txanparaino heldu da eta sartzera lortu ez badu ere ikasitakoak asko izan dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Musika du zaletasun, eta hainbat lehiaketatara aurkeztu du bere burua Unai Cantabrana Amestik (Elgeta, 2004). Azkena, Operacion Triunfo izan da.

Bizipen polita izan da orduan?

Bai, sekulako esperientzia da. Castingak egin behar dituzu, oso-oso urduri zaude, dena da berria... Eta jende oso jatorra duzu inguruan; zure zaletasun berdinak dituen eta zure egoera berean dagoena... Nire kasuan oso lo gutxi egin nuen castingaren aurreko gauean -ezin izan nuen ia lorik egin- eta oso-oso urduri abestu nuen. Onartu behar dut ez zirela nire aktuazio oneak izan.

Jarraitzen duzu lehiaketa orain?

Bartzelonako probetarako hoteleko logela berean egon ginen Paul, Martin, Cris eta ni. Hirurek egin dute aurrera lehiaketan. Lehiaketa batean geunden; hala ere, ez dut batere lehiakortasunik sumatu. Orain, lehiaketaren jarraipena egiten dut eta lagunak ikusten ditut pantailaren beste aldean. Haiekin harremanetan nago eta kontatzen didate barrutik nola bizi duten kontua. Oso berezia da. Gainera, berriki izan da Elgetan Martin. Kantu bat grabatu dugu. Laster goko dut sare sozialetara.



Unai Cantabrana etxeko egongelan. L.Z.L.

"ZALANTZARIK GABE MARTIN DA OT IRABAZTEKO NIRE LEHIAKIDE FAVORITOA"

Hain zuzen ere, sare sozialetan jarraitzaile berri asko lortu dituzu. Bai. Hainbat lehiaketatan hartu dut parte, baina hau beste maila bat da. Ez dut pentsatu ere egin nahi barruan egoteak zer suposa dezakeen.

Ze asmo duzu hemendik aurrera?

Esperientzia honetatik ere asko ikasi dut; nerbioak kontrolatzen ikasi behar dut. Gainerakoan, ikus-entzunezko ikasketak egiten ari naiz Aretxabaletan, eta denbora librean musika sortzen jarraituko dut. Sortuta dauzkat hamalau bat kantu, eta gustatuko litzaidake disko bat grabatzea, baina dirua behar da horretarako. Ikusiko dugu. Eta baliteke lehiaketa gehiagotara aurkeztea. Ez dut baztertzen hurrengo urteko OTra aurkeztea, adibidez.

Familien herenak ez du gailu digitalen erabileraz hitz egiten

Heziketa Digitalaren inguruan sortutako lantaldeak egingandako inkestak emaitza esanguratsuak eman ditu

L.Z.L. ELGETA

Ikasturte hasieran zortzi galderaz osatutako galdetegi banatu zuten Heziketa Digitala lantaldeko kideek eskolako familien artean, eta berriki eman dute emaitzen berri. Galdetegi hori bete duten familien %31,3k ez du gailu eta aplikazio digitalen arriskuez eta erabilera egokiaz hitz egiten seme-alabekin. Gainera, soilik %43,8tan adostu dituzte erabilera arauak umeek.

Ezinak ere azaleratu dira. Familien %62,5ek onartzen du ez dakiela gaiaren inguruan nola hitz egin seme-alabekin, eta %93,8k azaltzen du gehiago jakitea gustatuko litzaiokeela. Ondorio nagusiak hiru dira: "Gaztetxo askok inongo muga edo araurik gabeko erabilera egiten dute, eta oso esanguratsua da seme-alabekin nola hitz egin ez dakiten familien portzentajea.

Gaiaren inguruan gehiago jakin nahi duten familien portzentajeak argi erakusten du lanketa baten beharra".

Taldeak lanean jarraituko du

Udaberrian sortu zuten Heziketa Digitala lan dinamika Elgetako liburutegiak eta Maala Guraso Elkarteak elkarlanean. Orduetik, bi hitzaldi ere egin dituzte. Eneritz Orobengoak seme-alaben zibersegurtasunaren inguruko hitzaldia egin zuen maiatzean, eta Enaitz Ezpeleta Interneteko arriskuei buruz aritu zen orain hilabete.

Lantaldean kezka berezia sortzen du uneotan telefono mugikorren erabilerak eta gailu horiek umei lehenengo aldiz emateko adinak. Beste hainbat herritan moduan adin hori atzeratzeko herri mailako adostasun baten lanketan dihardute.

OHARRAK

Hitzaldia eta elkarretaratzea

Azaroaren 25arekin lotuta, Ane Lekanda kriminologoaren hitzaldia, gaur, 18:00etan, eta elkarretaratzea bihar, 12:00etan.

Ozkarbi elkartearen bolo txapelketa, gaur

6 urtetik gorakoendako saioa, 19:00etan, Bolatoki tabernan.

Astrotopaketa, eguaztenean, 18:30ean

Astro-jolasei buruzkoa izango da, eta 16 urtetik gorakoendako.

Neguko elikagai bilketa handia

Gaur eta bihar Ugari dendan egongo dira kutzak ekarpenak egiteko. Antolatzailea: Gipuzkoako Elikagai Bankua.

ZUZENKETA

Aurreko asteko zenbakian Pintxo Domekaren inguruko albiste batean akatsa zegoen. Bertan adierazten zen Udalak herriko merkatariekin elkarlanean antolatutako ekintza horretan Elgetako tabernetan erabiltzeko 50 euroko bonu-txartelak zozketatuko zirela pintxoaren osagaiak asmatzen zituzten herritarren artean. Bada, bonu-txartelak 20 eurokoak dira, ez 50 eurokoak. Barkatu eragozpenak.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuuki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Harreman estua lehiakide askorekin

Bartzelonan jokatu zen lehiaketaren azken fasea urri hasieran. 105 lagun deitu zituzten azken probetarako; tartean, elgetar gaztea. Asteotan guztietan isilik gorde behar izan du ez zela hautatutako hemezortzi lagunetakoa bat. "Banekien ez zela erraza izango, baina ezezkoa ematen dizutenean atsekabea handia da. Eman diot buelta!".



Unai Cantabrana OTko beste hainbat lehiakiderekin batera Bartzelonan. O.T.



Xabier Igartua Ogasun batzordeburua eta Izaro Elorza alkatea, martitzeneko aurkezpenean. ENEKO AZURMENDI

Lau miloi eurotik gora inbertsioetarako, 2024an

Datorren urteko aurrekontuaren proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak astean: 23.119.920 euro guztira. Azkenarekin alderatuta, %10eko igoera izango luke, eta inbertsioen partidak, %47koa. Abenduko osoko bilkuran onartu beharko dute

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

2024rako aurrekontu proposamena aurkeztu du Oñatiko Udal Gobernuak astean, 23 milioi euro izango lituzkeena eta, betiere, aurrera egiteko, abenduko osoko bilkuran onartu beharko dutena. 2023koaren alderatuta, %10eko igoera izango luke aurrekontuak, eta aipatzekoa da bi milioi euro jasoko dituela Udalak Next Generation funtsetatik, bederatzi proiektutarako. Horrez gain, 753.000 euroko igoera izan du Foru Funtzak eta, beraz, inbertsioen partidak %47ko igoera izango luke. "Guztira 4,3 milioi eurotik gora izango genituzke inbertsio ezberdinak gauzatzeko", adierazi du Izaro Elorza alkateak.

Ongizateak %20ko igoera

Aurrekontuaren banaketa azaltzerakoan, berdintasunean oinarritutako eredia berretsiko dutela esan du Elorzak, eta, arlo horretan, nabarmentzekoa da Emakumion Etxiaren proiektuarekin jarraituko duela Go-

bernuak, lan horietara 600.000 euro bideratuz. Partaidetza eta garapen komunitarioari dagokionez, 136.000 euroko partida proposatu du Gobernuak garapen-bideko kanpo lankidetzarako dirulaguntzekin jarraitzeko. Halaber, sozioekonomia ere funtsezkotzat jo du Xabier Igartua Ogasun Saileko batzordeburuak. "Proposamenak erdigunean ditu tokiko merkataritza, enpresa berrien sustapena, langabetuen kontratazioa eta integrazioa". Bestetik, 300.000 euro leudeke, udaletxe eta plaza inguruko esku-hartze integralerako; 300.000 euro irisgarritasun lanetarako eta 200.000 euro, disuasio apartakalekua egiteko.

300.000 EURO LEUDEKE UDALETXE ETA PLAZA INGURUAN ESKU-HARTZE INTEGRALA EGITEKO

Ongizatearen alorraren aurrekontua %20 igoetza da proposamena, 2.200.000 euroko partidarekin. Kirol arloan, era berean, aipatzekoa da Zubikoa Kiroldagiko kantxa urdineko teiltatua konpontzeko 278.000 euro bideratuko lituzketela. Turismoari erreparatuz, bi partida berri aurreikusten dituzte, Next Generation funtsei esker. Turismoarekin lotutako komunikazio digitala sustatzeko eta produktu eta euskarri turistikoak eguneratzeko lirateke egitasmo horiek.

Bidegorria Zañartura

Auzoak eta Landa Garapena Sailetik, udalerriko hamasei auzoei zuzendutako dirulaguntza eta inbertsioak mantentzea da Gobernu taldearen asmoa, eta bi inbertsio dira nabarmentzekoak: 200.000 euro bideratuko lituzkete Usakoko aisialdi eremuko paisaia lehengoratzeko, eta 569.000 euro, berriz, Torreautotik Zañarturako bidegorrirako.

Landa eremuko lurzatiak topografikoki mugatuko dituzte

27 poligonotan dago banatuta katastroa; lehen hiruretako landa-lurren mugaketak egingo dituzte aurtan

O.E.G. OÑATI

Landa eremuetako lur zatiak topografikoki mugatu gura ditu Udalak, eta hasi dira lan hori egiten. Landa lur eremu zabalako herria da Oñati, eta zatika egingo du lan hori, urte bakoitzean eremu bateko mugak identifikatu eta jasoz. Lan hori egiteko, baina, lur jabeen laguntza behar du Udalak, mugakideekin adostu ditzaten lursailak. Jabeen partaidetza borondatezkoa da, eta ez die inolako gastu ekonomikorik eragingo, baina alde aurretik mugak garbitu eta mu-

garriak aurkitu beharko dituzte jasotze topografikoa egiteko. Mugetan egon daitezkeen akatsak argitzea eta zuzentzea, eta mugei eta mugarriei GPS koordenatuak ematea da helburua. Jabeek edo haien ondorengoek mugarri eta lursail mugei kokapenak ez badakizkitez, horrek denborarekin partzelen ezagutzaren galera dakarrela dio Udalak, eta, ondorioz, mendia ez dela zaintzen eta horrek ondorio larriak dituela landa eremuan.

Astean bildu dira aurtan mugatuko dituzten zatien jabeekin.



O.E.G.

Piktogramak 24 zebra-bidetan

Piktogramak marraztu dituzte herriko 24 zebra-bidetan, autismoa duten haurren autonomia eta bide segurtasuna indartzeko. Udalaren eta ikastetxeen Bagabiltz-Eskolako Bidea proiektuan sartzen da egitasmoa, eta zirkulazio handiko guneeetakoak, eta ikastetxeetara eta espazio edo ekipamendu publikoetara doazen zebra-bideak lehenetsi dituzte.

Parrokiaren omenaldia jasoko du Ibarrendok etzi

Iñaxio Ibarrendo da San Migel parrokiako abesbatzen zuzendari azken 55 urte hauetan, eta abesbatzek zein parrokiak omenaldia prestatu diote domekarako, egiten duen lana aitortzeko eta eskerrak emateko. Meza nagusiaren ostean izango da

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

San Migel parrokiako abesbatzen zuzendari da Iñaxio Ibarrendo (Oñati, 1942) azken 55 urte hauetan, eta lan hori eskertzeko omenaldia prestatu diote datorren domekarako, hilak 26.

Oroigarriak eta kantua

Parrokiako elizkizunetan, hileta guztietan barne, hartzen dute parte parrokiako abesbatzek, eta beraiek, abesbatzako kideek eta parrokiaren bueltan lanean ari direnek antolatuta dute omenaldia, Iñaxio Irizar eta Karlos Agirrebengoa buru izanda. "Musu truk egindako lana da. Horrelako lanak apenas dira eskertzen; askotan, ikusi ere ez dira egiten, eta guk gurako genuke berak egiten duen lan hori errekonozitzea. Horregatik prestatu dugu omenalditxo hau", azaldu du Irizarrek.

Eguerdiko 12:00etako meza nagusiaren ostean izango da ekitaldia. Hiru oroigarri emango dizkiote: Horazio Argarate parrokoak bat parrokiaren ize-nean, eta emakumezko eta gizonezko koruen ordezkariak, bana. Ostean, luntxa egongo da mezara joango direnendako.

Omenaldiko ekitaldian, baina, pieza ezagun bat ere abestuko dute; letra moldatu diote: *Eske-*



Iñaxio Ibarrendo, San Migel parrokiako koruan. M.G.

rrik asko, Jauna kantua Eskerrik asko, Iñaxio bihurtuko da etzi. "Kantua oso ezaguna da jendearendako; denek jarraitzen dute doinu hori. Eta asmoa da letrak aldare alboetako pantaila erraldioetan proiektatzea, jendeak kantuan egin dezan. Uste dut une polita izango dela hori", dio Irizarrek.

Santa Zeziliaren babespean

Txikitatik entzun du Iñaxio Ibarrendok musika etxean. Sei urte zituela sartu zen bandan, klarinetea jo izan du beti, eta 1979an

zuzendu zuen lehendabiziko aldiz; Corpus bezperan, oraindik ospakizuna eguenean zenean, etxafuego baten makila batuta moduan hartuta. Duela bi urteko Errosario Egunean eman zion erreleboa Aitor Biaini. Parrokiako abesbatzak zuzentzen jarraitzeko asmoa du oraindik. Musika, beraz, ez du oraindik baztertuko Ibarrendok eta bera ezagututa, omenaldia prestatzen ibili direnek argi zuten musikarien zaindaria Santa Zeziliaren egunaren (hilak 22) bueltan izan behar zela. Bada, domekan da.

Aspanogiren aldeko kontzertua du bihar Ganbara Faktoriak

Ganbara Faktoriak *Musika koloretan* elkartasun kontzertua egingo du zapatuan, 19:00etan, Agustinoetako elizan, Faktoria Soziala egitasmoaren barruan.

Bideo, argazki eta sorpresa ezberdinak izango ditu emanaldiak, denak elkartasunean oinarritutakoak. "Kontzertu solidarioa eta musika onaz gozatzea izatea nahi dugu", adierazi

du Biainek. Emanaldian parte hartuko dute Ganbara Txikik, Hots eta Ganbara abesbatzek, Amaia Zipitria piano-joleak, Cristina Larrañaga baxu-joleak eta Iñaki Letamendia perkusio-joleak.

Sarrerak zortzi eurotan daude salgai Txokolateixan eta udal webgunean. Baina beste bi modu daude Aspanogi diruz laguntzeko: kontzertuan jarriko dituzten itsulapikoetan borondatea emanaz, edo '0 aukia' izeneko sarrerera erosiz.

Txondorra egiteko lehen irteera domekan egingo dute

Ikazkin lanbidea eta ikatza ateratzeko modua, txondorgintza, erakutsi guran, txondorra egiteko proiektua jarri du abian herritar talde batek, Gure Bazterrak taldearen eta Udalaren laguntzarekin batera.

Txondorra egitea eta hortik ikatza ateratzea da proiektuaren amaieran ikusiko eta egingo dena, eta hori egiteko prozesu

guztia auzolanean, herritarrekin batera egitea da asmoa, garai bateko langintza horrek herrian izan zuen garrantzia eta pisua ulertzeko eta ezagutzeko.

Ekainaren hasieran piztu gura dute txondorra, eta asteburu honetan bertan egingo dute lehen irteera hori horrela izateko. 09:00etan Eroskiko aparkalekutik aterata, basora joango dira orbela batzera, *orbeletia* eta estai-batzea egitera. Erakusketa, hitzaldia eta beste irteera bat ere egingo dituzte.

Etxea berotzeko modurik egokienaz arituko dira

Etxeko berokuntza sistemarik egokiena zein den ikusteko tailerra egingo dute datorren eguaztenean, hilak 29, 18:30ean, kultura etxean. Aldundiaren Energia Argitu programaren barruan sartzen da ikastaroa, eta herritar guztiendako da. Interesa duenak aurretik eman behar du izena, ordea: 605 75 76 87 edo argitu@gipuzkoa.eus.

Urtarrilean jarraituko dute Emakumion Etxiaren saioekin

Emakumion Etxia eraikitzeke parte-hartze prozesuak ikasturte honetako lehen saioa egin zuen zapatuan. Aise kooperatibaren dinamizazioarekin, proiektuaren oinarriak eta balioak definitu zituzten ariketa ezberdinak eginez. Urtarriletik aurrera egingo dituzte hurrengo saioak, beste erabaki batzuk hartu eta eraikitzen jarraitzeko.



"Teknikoa baino, joko fisikoa da hemengoa"

IRENE MURUA DETROIT MERCY-KO JOKALARIA

SASKIBALOIA Ointxe!-ko harrobiko jokalaria lau urte daramatza AEBetako unibertsitate ligan saskibaloian jokatzen. Matx-eko 'Harrobitik' saioan egin diote elkarrizketa

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Detroiten (AEB) ikasten –goi mailako matematika ikasketak– eta saskibaloian jokatzen dabilen Irene Muruak (Arrasate, 2002) aste barruan tartetxo hartu du Matx egitasmo berriko *Harrobitik* saioan Aratz Losadaren galderei erantzuteko. Ointxe!-ko harrobiko jokalaria Detroiteko egunerokoaren berri eman du, eta hango eta hemengo saskibaloiak alderatu ditu, besteak beste. Gabonetako oporraldi laburra etxera etortzeko baliatuko du.

Harrobitik saioaren helburua bada goi mailara iritsi zareten kirolariek zuen hastapenen gainean berba egitea. Eta zure ibilbidean Ointxe! klub garrantzitsua izan da.

Sarritan esaten dut klub horretan lanean dabilen jendearengatik izan ez balitz seguruenik ez nintzatekeela honaino iritsiko. Oso jende jatorra dago bertan, profesional onak, eta lagun onenak ere bertan egin nituen. Hala, entrenatzaileen ekarpena oso garrantzitsua izan zen AEBetara etortzea erabakitzeke. Ni oso gaztetatik hasi nintzen Ointxe!-n, eta ondoren Araskirekin egin genuen hitzarmenari esker goi mailara iristeko aukera izan genuen. Ointxe!-ko urte haietan izugarri gozatzen nuen saskibaloiarekin, seguruenik, orain baino gehiago.

Aldatu egin da hori?

Tira, urteak aurrera egin ahala presioa gehitzen joaten da, eta profesionalizatu egiten da dena. **Espainiako Txapelketa on bat egin eta gero, AEBetako talde mordoak izan zenituen atzetik...**

Halako torneoetan begirale asko izaten dira, eta bai, hasiera batean nire asmoa ez zen AEBetara joatea, baina agentzia ezberdinetatik harremanetan jarri ziren gurekin, eta hiru unibertsitate ikusi eta gero Louisiana aukeratu nuen. Lehenengo urtean egin ostean, baina, aldatzea



Irene Murua, Detroiteko taldekideekin berbetan. @DETROITMERCYWBB

"IKASKETEN ONDOREN SASKIBALOIAN JOKATZEN JARRAITU NAHIKO NUKE, BAINA EZ AEB-ETAN"

erabaki nuen, eta azken hiru urteak Detroiten egin ditut; gus-turago nago hemen.

Zein da zure egunerokoa hor?

Aurten oso denbora libre gutxiarekin nabil. Goizeko lehen orduan eskolak izaten ditut bi orduz, eta 12:00etan entrenatze-ra joaten naiz. Guztira bost ordu inguru egiten ditut kantxan, entrenatzen, gimnasioko lanak egiten, entrenamendu pertsonalekin... Eta, arratsaldean, eskolak izaten ditut ostera ere. Bada, iluntzean etxeko lan batzuk egin, eta egunak ez du gehiagorako ematen.

Unibertsitate liga amaitzen denean ikusten duzu goiko ligetara salto egiteko aukera?

Egia esan, ez. Oraindik ez dut erabaki zer egin: beste urtebetez hemen geratu eta masterra egin, edo etxera itzuli. Garbi daukadana da etorkizunean ez

naizela AEBetan geratuko, baina, hala ere, saskibaloia maila gorenera salto egitea ez dut posible ikusten. Hemen ez daude tarteko ligak; zuzenean WNBARa pasatu beharko nintzateke, eta jauzia handia da.

Eta hona etorrita, saskibaloian jarraituko zenuke?

Bai, Euskal Herrira bueltatuko banintz, ez dakit ze mailatan, baina urte batzuetan gustura jokatuko nuke saskibaloian.

AEBetan egin dituzun urteetan asko aldatu zara jokalarri moduan?

Esango nuke fisikoki lan handia egin behar izan dudala, eta fisikoki indartsuagoa naizela. Eta aitortu behar dut, hemengo janaria oso osasuntsua ez denez, lehenengo hilabeteetan kilo batzuk ere hartu nituela [Barre]. **Gizonezkoetan, NBAko jokoa oso indibidualista da; zuen ligan?**

Entrenatzailearen arabera dela esango nuke. Badira oso modu indibidualen jokatzen duten taldeak, baina baita talde moduan jokatzen dutenak ere. Hemen segituan konturatu nintzen joko fisikoa nabarmentzen dela; indartsu egon behar duzu. Eta teknika, berriz, ez dute guk moduan lantzen.



Nahia Irazola, Uxue Azkue eta Maria Martiarena. N.I.

"Gakoa elkarren artean izan dugun konfiantzan egon da"

GIMNASIA AEROBIKOA Europako Txapelketatik brontzeko domina irabazita bueltatu dira Dragoiko neskek

X.U. ARRASATE

Gimnasia Aerobikoko Europako Txapelketan nabarmendu eta gero –brontzeko domina irabazi dute– eta itzulerako bidaia luze baten ondoren, Nahia Irazola, Uxue Azkue eta Maria Martiarena bueltatu dira egunerokotasunera. Eta dagoeneko hasi dira asteburuan egindakoa barneratzen, astelehenean *Harrobitik* saioan aitortu moduan oraindik sinistu ezinda zeudelako. "Egun batzuk beharko ditugu lortutakoari balioa emateko. Izan ere, bagenekien oso maila handia egon behar zela txapelketan, eta hirugarren postuan sailkatzea gauza handia izan da. Egia esan, ez daukagu askorik esateko, oso pozik gaudela", adierazi zuen orduan Nahia Irazolak.

Uxue Azkueren esanetan, brontzea eskuratzeko gakoa euren artean izan duten konfiantzan

egon da. "Nahiz eta urduritasunak jota egon, gure artean promesa bat egin genuen, txapelketaz gozatzen saiatuko ginela, eta lortu dugula esango nuke". Eta Maria Martiarenak egindako lana jarri du balioan: "Esfortzu handia egin du gutako bakoitzak, baina merezi izan du; oparia izan da guztiondako".

Amaitu dute denboraldia

Europako Txapelketan bizi izandakoarekin gimnasta arrasatearrak amaitu dute denboraldia. "Gasteiztarrekin osatutako taldea txapelketa honetarako izan da; ez dugu zortziok elkarrekin jarraituko. Datorren denboraldian bakoitza bere taldera bueltatuko gara, eta bestelako modalitateetan lehiatuko gara. Guk Dragoian jarraituko dugu, eta gogoz helduko diogu hurrengo denboraldiari, nahiz eta ez dugun oraindik ezer finkatuta".

SASKIBALOIA Afilados Gasteizen bisita, zapatuan Iturripen

Mondragon Unibertsitateko neskek sailkapenean atzealdean dagoen talde arabarraren bisita izango dute zapatuan Iturripen (18:00). Lehenago maila nazionalako mutilen partidua izango da (16:00) –Valle de Eguesen kontra– eta ondoren etorriko da nesken txanda. Moreek joan den astean 55-62 irabazi zuten Indautxuren kantxan.



Gernikarren kontrako partiduan. I.S.

Kategoriako oilar bihurtu direnen arteko derbia

FUTBOLA Ligako hamairugarren jardunaldira iritsita, UDA kategoriako liderra da une honetan, baina Bergarak gertutik jarraitzen dio, hirugarrena baita sailkapenean. Etzi (16:30), goialdean egonkortzeko garaipenaren bila zelairatuko dira Ibarren

Iñigo Barrena DEBAGOIENA Denboraldi bikaina burutzen ari dira, momentuz, UDA eta Bergara Ohorezko Erregional Mailan. Aretxabaletarrak liderak dira, 29 punturekin, hamabi jardunaldi jokatu direnean. Etxean ez du galdu partidurik Unai Calzonek zuzentzen duen taldeak, eta porrot bakarra etxetik kanpo jaso du. Une ezin hobean iristen dira Calzonek denboraldiko lehen derbira, baina ez dute aurkari erraza izango aurrean.

Izan ere, liderraren itzalean da Bergara ere, hirugarrena baita sailkapenean, UDA baino hiru puntu gutxiagorekin. Iker Ruiz de Larramendiren gidaritzapean, mahoneroak ere kategoriako oilar bilakatu dira aurtan, hamabi partiduetatik zortitan hiru puntuak eskuratu dituzte-eta. Halaber, mahoneroek ere, etxean zein etxetik kanpo, talde sendoa direla erakutsi dute.

Goian egoteko bi modu

Iazkoarekin alderatuz guztiz egoera ezberdinean daude UDA eta Bergara; behealdean egotetik goiko postuen borrokan izatera igaro dira, baina batak zein besteak bi modu ezberdin dituzte sailkapenaren puntan egoteko. UDAREN kasuan, iaz ate aurrean barkatzen zituenak aurtan barrura joaten dira. Calzonek taldea, 30 golekin, kategorian gol gehien sartu dituen taldea da, eta, bereziki, etxean jokatuak neurtetean lortzen du gehien asmatzea; horri, gainera, defentsan egindako lan ona batu behar zaio.

Mahoneroen kasuan, aldiz, gol gutxien sartu dituzten taldeen artean da (13), baita gutxien jaso dituzten artean ere (9). Bergarak atzealdean talde sendoa dela erakutsi du, eta sartutako golei berebiziko zukua ateratzen die Ruiz de Larramendiren taldeak. Konbinazio

on horrek merezitako puntuak lortzea eta sailkapeneko hirugarren postuan egotea eragin die bergararrei. Zalantzarik gabe, bataren zein bestearen indarguneak zeintzuk diren ikusita, domekakoa derbi go-

KATEGORIAKO TALDE GOLEATZAILEENA, DEFENTSAN SENDOENETARIKO DENAREN AURKA



Diaz de Guereñu (UDA) eta Azpiazu (Bergara) baloiaren lehian. IMANOL SORIANO



UNAI CALZON
UDAKO ENTRENATZAILEA

"Derbi gogorra izango da, non gure jokoa gailentzen saiatu behar garen. Bergara oso ondo lehiatzen duen taldea da, eta aurtan oso ondo ikusten ditut".



IKER RUIZ DE LARRAMENDI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Defentsan sendoak izan, talde bezala sufritu eta ditugun aukerak asmatu beharra dugu. UDA ederki ari da, batez ere etxean, baina irabaztera goaz".

gorra bezain bizia izango dela pentsa daiteke.

Gorengo maila

Kategoria bat beherago, Mondrak lidertzan sendo jarraitzeko, Ilin-txa izango du bisitari zapatuan (16:30), Mojategin. Aloña Mendik Danena taldea hartuko du Azkoagainen, domekan (16:30). Gainontzean, UDA B eta Antzuolak derbia jokatu dute Ibarren zapatuan (15:30), eta Bergara B Billabonaren zelaietan arituko da egun berean, 16:00etan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA		GIPUZKOAKO 2. MAILA		Arrasate Ingou-Elgoibar	
OHOR. ERREGIONALA		Mondrate-Makax		Dom. 13:00. Iturripe.	
UDA-Bergara		Zap. 16:00. Musakola.		EMAK. EUSKADIKO LIGA	
Dom. 16:30. Ibarra.		Eskoriatza-Ostiko		San Adrian-Aloña Mendi	
OHOR. ERREGIO. EMAK.		Zap. 16:15. M. Muñoz.		Dom. 12:30. Bilbo	
Debagoiena-Ostadar		GAZTEAK		SASKIBALOA	
Dom. 12:30. Ibarra.		Eskoriatza-Laskorain		EBA	
GAZTEAK, MAILA NAZ.		Zap. 11:30. M. Muñoz.		Santiago-MU	
Bergara-Leioa B		KADETEAK		Dom. 18:00. Burgos.	
Zap. 16:30. Agorrosin.		Coimbra-Erain		Dom. 18:00. Burgos.	
GORENGO MAILA		Dom. 12:00. Zubikoa.		EUSKAD. LEHEN EMAK.	
UDA B-Antzuola		Eskoriatza-Eguzki		MU-Afilados Gasteiz	
Zap. 15:30. Ibarra.		Zap. 09:45. Ibarra.		Zap. 18:00. Iturripe.	
Mondra-Ilin-txa		Mondrate-Antiguoko		EUSKAD. LEHEN GIZON.	
Zap. 16:00. Mojategi.		Dom. 10:00. Iturripe.		MU-Valle de Egues	
Billabona-Bergara B		ESKUBALOA		Zap. 16:00. Iturripe.	
Zap. 16:00. Villabona.		EUSKADIKO TXAP.		EUSKADI. BIG. GIZON	
Aloña Mendi-Danena		Fagor Profes-Usurbil.		EASO-Biotz Aloña	
Dom. 16:30. Azkoagain.		Zap. 18:00. Zubikoa.		Zap. 16:00. Donostia.	
GAZTEAK EUSKAL LIGA		GIZ. GIPUZ. SENIOR.		Amurrio-Soraluce BKE	
Olarizu-Aretxabaleta		Soraluce BKE-Laubide		Zap. 19:00. Amurrio.	
Zap. 16:00. Gasteiz.		Zap. 18:00. Labeg.		ERRUGBIA	
ARETO FUTBOLA		Mugarri I.-Urola		SENIOR GIZONEZKOAK	
HIRUGARREN MAILA		Zap. 20:00. Iturripe.		Eibar-Kanpanzar ART	
Gora-Eskoriatza		EMAK. GIP. SENIOR.		Zap. 15:00. Unbe.	
Dom. 12:30. Bilbo.		Egia-Aloña Mendi		SENIOR EMAKUMEZK.	
Goierri-Mondrate		Dom. 10:45. Donostia.		AGT/ERT-Gaztedi	
Dom. 18:00. Urretxu.		GAZTEAK. GIZONEZK.		Zap. 12:00. San Miguel.	
GIPUZKOAKO TXAP.		Pulpo-Aloña Mendi			
Antiguoko-Coinbroker AI.		Zap. 18:00. Zumaia.			
Zap. 20:15. Donostia.					

Fernando Cobos eta 'Luko' munduko lau onenen artean


MUSHING Bergararra eta bere txakurra laugarren izan dira Sorian jokatuako Munduko Mushing Txapelketan

I.B.K. BERGARA

Presiorik gabe, baina gauzak ondo egiteko asmoarekin abiatu ziren Fernando Cobos eta *Luko* txakurra asteen Sorian jokatu den Munduko Mushing Txapelketara. Gainera, oraingoan gazteagoekin lehiatu behar izan du, bere kategoria -59 urtetik gorakoena- kendu egin zutelako. Hala eta guztiz ere, lan bikaina egin du bikoteak, eta laugarren postuan amaitzea lortu dute. "Ez zen nire kategoria, eta bi txandatan laugarrena izan naiz. Ez nuen inondik inora espero, eta oso pozik nago egindako lanarekin", dio Cobosek.

Munduko Txapelketa begiz jota

Bat amaituta, hurrengo urtean Italian jokatu den Munduko Txapelketan izatea du helburu berriz ere bergararrak, baina, horretarako, hasi berri den



Fernando Cobos eta *Luko*. F. COBOS

mushing denboraldian emaitza onak lortu behar ditu. "Denboraldian zehar lau Espainiako Kopa eta Espainiako Txapelketa ditugu. Horietan emaitza onak lortu behar ditut, datorren urteko Munduko Txapelketan izateko", adierazi du Cobosek.

Kolektiboan sortutako opera postdramatikoa

AEK-k eta Korrikak antolatutako iazko kultur sorkuntzarako bekaren irabazle 'Badon' opera estreinatuko dute abenduaren 1ean Gasteizko Principal antzokian; martxoaren 3an Arrasaten eskainiko dute Ines Osinagak parte hartzen duen ikuskizun berritzailea

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

Ines Osinaga Arrasateko musikaria kide den Mauriziak Ez Du Inor Hil kooperatibak eskuratu zuen iaz AEK-k eta Korrikak bultzatutako sormen beka. "*Badon* proiektua gauzatzeko lehengo gasolina txutea izan zen beka hori, bai diru aldetik, bai aitortza aldetik; guk buruan genuen zorakeria hori, hau da, euskal kulturaren plaza-genealogiaren inguruko kritika feminista bat, *hackeo* bat etorkizun desiragarriekin espekulatuz eta euskal kulturaren asteriskoak, hau da, nor gara, zer gara gu... mahai gainean jarrita, plaza ez delako neutroa eta kultur transmisioan ere botere harremanak islatzen direlako. Bada, horren guztiaren inguruko hausnarketa bat planteatu genuen", kontatu du Ines Osinagak.

Mauriziak Ez Du Inor Hil-ek ekoiztu du obra sorkuntza bidean askotariko emakumeak* batuta. Atzo, eguena, Azpeitiko Soreasu antzokian egin zuten aurrestrenaldia, eta abenduaren 1ean abiatuko dute Gasteizko Principal antzokian, Korrikaren baitan Euskal Herriko txoko ezberdinetan zehar egingo duten bira. Debagoiengan, oraingoz, emanaldi bakarria iragarri dute:

martxoaren 3an, Amaia antzokian eskainiko dutena.

Sorkuntza, bi zatitan

Orain dela bi urte hasi ziren lanean, Espekulazio fasearekin. "Emakume* euskaldunen artean euskal kultura deritzogun horren inguruko hausnarketa kolektibizatu genuen Euskal Kulturaren Ikerketarako Fikziozko Ikerketa Taldea sortuta. Lau erresidentzia egin genituen Tipi kooperatibak dinamizatuta, eta 30 lagunetik gora saretu ginen hor. Saio horietan ateratako ondorioekin abiatu genuen, orain dela urtebete, Prototipazio fasea, hausnarketa edo ondorio horiek agertoki gainera nola eraman lantzeko. Marina Suarezek eta biok hartu genuen proiektua lideratzeko ardura, rola banatuta: Marinak alderdi artistikoa; aldiz, produkzio tekniko-exekutiboan aritu naiz ni, musika departamentuko zuzendaritza taldean ere banago, eta taularen gainean ere izango naiz".

"KULTURAREN PLAZA-GENEALOGIARI BURUZKO KRITIKA FEMINISTA DA"

INES OSINAGA

Osinagak kontatu moduan, lantaldeak argi zuen hasieratik diziiplina arteko ikuskizuna izan behar zuela. "Hau da, ez zela izango antzezlan bat, baina dramaturgia egongo zela; ez zela izango kontzertu bat, baina musikak izan behar zuela lekua, eta baita irudiek, arte plastikoek eta dantzak ere. Kultura erreferentzia ezberdinak egon behar zirela ikusten genuen, eta *opera* hitzak eman zigun argia".

Opera postdramatikoa

Genealogiaren eta kultura transmisioaren gaineko begirada kritiko bat eskaintzeko gogoz sortu dute opera postdramatiko moduan definitu duten ikuskizuna. Bost koadrotan edo aktotan banatuta dago: Unibertsoaren sorrera eta kosmosa, Landareen erreinua, Animalien erreinua, Gizakien mundua eta Mundu espirituala izenekoak. "Koloreen inguruan eratu dugu dramaturgia guztia. Kolore bakoitza mundu bat da, eta kolore batek beste batera zaramatza; hortaz, *Badon*-en proposatzen duguna bidaia bat da, ikusleekin partekatu nahi duguna; izan ere, publikoa ikusle soila baino gehiago izatea da gure nahia; bakoitzak erabakiko du zer egin *Badon*-en parte izateko".



Badon opera garaikidearen irudi bat. IKER GOZATEGI



Badon-eko lantaleko kideak lanean, horien artean, Osinaga. IKER GOZATEGI

30 lagunetik gorako lantaldea

Profil ezberdineko emakume* asko batu dira *Badon* proiektura. "Fantasia bat iruditzen zait konpainia eszeniko munstro bat izan barik gai izan garea sortzaile lantalde potente bat artikulatzeko; hori da, niretzako, *Badon*-en altxorra", dio Ines Osinagak.

'BIXI IBILI!', ARAMAION

GOIENA TELEBISTAN

AZAROAREN 28AN, MARTITZENEAN, 19:30, 21:20 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Iban Idigoras, Julen Agirre, Unai Lete eta Mikel Aginagalde, Letagin taldeko kideak. LETAGIN

'Zurrunbiloan', zuzen eta indartsu, Letagin taldea

Plataforma digitaletan daude Oñatiko taldearen kantu berriak entzungai, eta formatu fisikoan, Durangoko Azokan –Musikazuzenean *stand*-ean– eta kontzertuetan izango da eskuratzeko aukera; besteak beste, abenduaren 2an, herriko gaztelekuan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Aurrez musika talde ezberdinetan ibilitako lau lagunek abiatu zuen Letagin, 2018an, eta, gaur egun, Unai Lete (baxu-jolea), Julen Agirrek (ahotsa eta gitarra), Mikel Aginagaldek (gitarra) eta Iban Idigorasak (bateria-jolea) osatzen dute laukotea.

2020an argitaratu zuten lehenengo diskoa; bada, "lan-prozesu luze baten" ostean, kalean dute sei kanturekin osatutako bigarren bilduma, *Zurrunbiloan*.

Zuzenak eta gogorrak

Ekainean buru-belarri sartu ziren sorkuntzan, eta urri bukaeran hasi ziren grabatzen. "Mungiako Gaua estudioan izan ginen, Jon Asier Zubelzu, Iker Aginaga eta Iker Villaren gidaritzapean; oso gustura ibili ginen, eta pozik gaude emaitzarekin", dio abeslariak.

Disko motza bezain anitza dela kontatu du baxu-joleak: "Kantuek euren artean ezberdinak dira, taldekideok dugun musika era-

gin ezberdinengatik, batetik, eta, denbora luzean idatzi ditugulako, bestetik. Orokorrean, aurreko abestiekin alderatuz, gogorragoak eta zuzenagoak dira. Kantu azkarren artean, balada bat sartu dugu, hitz gordinekin hori ere. Maddi Arlanzonon ahotsa eta Miren Fernandezek teklatuak ere entzungo dituzue hor".



ZURRUNBILOAN

- **Taldea** Letagin.
- **Non grabatua** Gaua estudioa.
- **Estiloa** Rock indartsua.
- **Autoekoiztua.**

'Barne sua', bideokliparekin

Aurreko astean argitaratu zuten bilduma berria aurkezteko erakutsi duten lehen kantua, irudiekin. "Aretxabaletako Daniel Sanchez Skst Design-ekin grabatu dugu, eta oso harrera ona izan du. Kantuaren istorioa kontatu genionean, protagonista margolari bat izatea proposatu zigun, eta aktore moduan Jon Zubiaga *Osoron* oso aproposa iruditu zitzaigun".

Bildumaren diseinuari dago-kionez, Xanti Ugartek egindakoa da. "Une baxuak izan ditugu taldean, eta hori islatu nahi genuen azalean; zulo beltz bat, baina, orain gauden egoerari begiratuta, aura koloretsu batekin inguratuta".

Dozena bat kontzertu

Donapaleun izango dira bihar, eta "irrikaz" daude datorren astean herriko gaztelekuan jotzeko; Niña Coyote eta Chico Tornadorekin batera izango dira, 22:30ean hasita.

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO DABA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [baxkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Inbentario dagoen LPID 15/1996 legearen arabera jakinarazten dugu zuei datu pertsonalari Gaiena Foruaren bitartez automatikoki baten sartuko direla. Datu bilaketaren helburu bakarra da inbentario dagoen sustapena gaitzestea. Eskubide zuzenak: izuz datuak ezartzea, baki zuzentzea eta ezabatzea, helbide berria idatzea goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Tartean Teatroari esker

"Bake lehorra" antzezlanerako sarrerak ditugu. Oñati | Santa Ana Udal Antzokia | Abenduak 1 | 19:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "bake" [baxkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Inbentario dagoen LPID 15/1996 legearen arabera jakinarazten dugu zuei datu pertsonalari Gaiena Foruaren bitartez automatikoki baten sartuko direla. Datu bilaketaren helburu bakarra da inbentario dagoen sustapena gaitzestea. Eskubide zuzenak: izuz datuak ezartzea, baki zuzentzea eta ezabatzea, helbide berria idatzea goienakide@goiena.eus

Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05
goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN
Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Gehie-nez bi logela dituen etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. Lan egon-gokorra eta kontratu mugagabea duen mutila naiz. 642 98 98 06

104. ERRENTAN HARTU
Arrasate. Hiru kideko familia gara eta etxea errentan hartuko genuke Arrasaten. Lan-kontratu daukagu, erreferentzia onak, eta oso arduratsuak gara. 680 87 38 66

Debagoiena. Etxe berri bat aurkitzeko urgutzia dugu, lanetik urrutu bizi baikara. Etxe edo logela bat hartuko genuke errentan. Oñatin lanean ari den bikote lasaia gara. 602 42 71 27 edo 602 60 03 50

2. GARAJEAK

201. SALDU
Antzuola. Garaje itxia salgai Antzuolako Ondarre plazan. 699 80 26 55

203. ERRENTAN EMAN
Garajea Bergaran. Bergarako lbargarai auzoan garaje itxia errentan ematen da. Sarrera zabala eta erraza du. 608 82 91 97

204. ERRENTAN HARTU
Arrasaten garajea errentan hartu. Urbarri hiribidean edo Larrean, garajea hartuko nuke errentan. Kotxea handia da. 617 43 61 47

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Bergara. Soziosanitario ikasketak dituen pertsona bat behar dugu gizon nagusia zaintzeko. Kotxea beharrezkoa da. Telefonoa: 665 73 37 42

402. ESKAERA
Arrasate edo Bergara. Zaintza lanetan arituko nintzateke arratsalde edo aste bukaeratan. Telefonoa: 631 90 15 92

Arrasate eta Aretxabaleta. Garbiketa lanetan

edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 688 84 10 63

Arrasate. Etxeak, atariak, elkarteak eta abar garbitzen lan egingo nuke. Horrez gain, asteburuetan eta gauetan nagusiak zaindu edo laguntza emateko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua dut. 632 83 32 44

Arrasate. Nagusiak laguntzen, ostalaritzan edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen mutila. Ostalaritzako ikasketak ditut. 722 51 53 75

Arrasate. Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna goizetan, egurditan edo gauetan orduka lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 672 78 04 30

Bergara. Neska euskalduna prest pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia izateaz gain, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko titulua dut. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Telefonoa: 673 35 95 98

Debagoiena. Arratsaldetan zein asteburuetan lan egingo nuke. Umeak eta nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Telefonoa: 627 99 71 73

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 658 95 79 51

Debagoiena. Emakume arduratsua naiz eta lanean hasteko gertu nago pertsona nagusiak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan. 611 84 05 82

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nagusiak zein haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 642 05 31 91

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu 613 77 18 56 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu 631 64 25 54 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak eta nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Garbiketa ikasketak ditut. Goizez, gauz edo asteburuetan lan egingo nuke. Deitu 613 11 92 98 zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu 611 24 18 98 zenbakira.

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaindu, garbiketak edo bestelako lanak egiteko. Interesatuok deitu 682 40 53 38 telefonora.

Debagoiena. Goizez pertsona nagusiak eta garbiketa lanak egingo nituzke. Gauetan pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest. Deitu 642 37 01 92 telefono zenbakira.

Korosti
inmobiliaria

Bergara:
Bidekurutzeta,
55m², erabilgarri,
logela 1, igogailua
eta garaje itxia
aukeran. 187.000€



Bergara: San Antonio,
69m², erabilgarri, 2
logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
210.000€



Antzuola: Kalegoi,
126,5m², erabilgarri,
4 logela eta garaje
itxia barne eraikin
berean.
250.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com



ORTULAGUNTZA ZERBITZURAKO LAN-DEIALDIA

Debagoiena eskualdean martxan jarriko den ORTULAGUNTZA zerbitzurako lan-deialdia.

Baratzegintza profesionala gauzatzen duten proiektu txikiak mantendu, lagundu eta sostengatzeko proiektu pilotua jarriko da martxan.

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Baratzegintzan lan-esperientzia izatea*
- B motako gidabaimena eta ibilgailuaren disponibilitatea*

HONAKO HAUEK BALORATUKO DIRA:

- Nekazaritza arloko formakuntza.
- Euskal hiztuna izatea.
- Harremanetarako gaitasuna, eta proiektu kolektiboen kudeaketan eta talde-dinamizazioan esperientzia izatea.

*Esperientzia eta formazioa agiriaren bidez egiaztatuko dira.

ESKAINTZEN DA:

LANALDI OSOKO KONTRATUA.
LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK ETA EGINKIZUNAK.

- Eskualdeko baratzegintza proiektuetan ortuko lanetan aritzea: eskuzko lanak; otarreak eta eskariak prestatzea, mantentze lanak, makineriaren erabilera...
- Bailarako nekazarien arteko saretzea bultzatzea, erosketa kolektiboen koordinazioan, adibidez.
- Onuradunen beharrak identifikatzea, eta zerbitzuaren koordinazio eta dinamizazio lantaldean parte hartzea.

CURRICULUMA BIDALTZEKO EPEA: **abenduak 15erarte.**
DEBA GARAIA Elkarte, Urteaga kalea, 21, 20570 BERGARA
debagaraia@debagaraia.eus



OROIGARRIA

Jose Miguel Inunciaga Ubillos

Jone Inuntziaga lankidearen aita

2023ko azaroaren 21ean hil zen, 73 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Aramaion, 2023ko azaroaren 24an.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



PENNY FLECK TALDEA

Talde bizkaitarrak Kooltur Ostegunetan eskainitako zuzeneko osorik entzuteko aukera.


'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



MU-AFILADOS GASTEIZ PARTIDUAREN LABURPENA

Emakumezkoen Euskadiko lehen mailan jokatzen duen saskibalo taldearen irudiak.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30



'DEBAGOIENEAN EGINA' TARTEA

Debagoieneko enpresak barrutik ezagutuko ditugu Iñigo Barrena kazetariaren eskutik.

'Debagoienean egina' Eguztzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



ARAMAIORA, ERANTZUNEN BILA

Galde-erantzunen jokoaren hurrengo geldialdia Aramaion egingo du Aitor Agirianok.

'Bixi ibili!' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguztzeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- ORDAINTEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO.

OROIGARRIA

Jose Miguel Inunciaga Ubillos

Aramaioko bake epaile ohia

2023ko azaroaren 21ean hil zen, 73 urte zituela.



Aramaioko herriaren alde egin duzun lana bihotzez eskertuz



Aramaioko Udala.
Aramaion, 2023ko azaroaren 24an.

OROIGARRIA

Jose Miguel Inunciaga Ubillos

2023ko azaroaren 21ean hil zen, 73 urte zituela.



Gantzako haizten azpian elkartuko gara




Izpizte elkarte.
Aramaion, 2023ko azaroaren 24an.

ESKER ONA

Jose Miguel Inunciaga Ubillos

2023ko azaroaren 21ean hil zen, 73 urte zituela.




Eskerrik asko gure ondoan egon zareten guztioi, azken agurra hain polita egitearren. Handia izan da jaso dugun maitasuna eta babesa. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2023ko azaroaren 24an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Aramburu Perez

2023ko azaroaren 19an hil zen, 68 urte zituela.



Erreza izan da zu maitatzea, eziñezkoa ordea zu ahaztea, beti gurekin izango zara.

Aldai senideak.
Arrasaten, 2023ko azaroaren 24an.

OROIGARRIA



Marcial Lukas Iturri

2023ko azaroaren 16an hil zen, 85 urte zituela.



Zure hutsuneak utzi digu mina denborak bakarrik gozatuko digu samina. Eskerrik asko izan zarelaiko senar, aita eta aittaita bikaina.

Senideak.
Oñatin, 2023ko azaroaren 24an.

OROIGARRIA



Jabier Herrarte Garai

2023ko azaroaren 16an hil zen, 74 urte zituela.



*Aitteitte,
Asko ikasi, maitatu eta gozatu dou zurekin.
Zenbat kontu, irrifar eta abentura!
Izarretan elkartuko gare!
Betidanik eta betirako*

Amaiur, Aintzira, Ekain, Jule eta Luka.
Arrasaten, 2023ko azaroaren 24an.

ESKER ONA



Anastasio Herran Izarra

Araceli Alarciaeren alarguna


2023ko azaroaren 15ean hil zen, 95 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.


Familiaren partetik.
Bergaran, 2023ko azaroaren 24an.

ESKER ONA



Ignacio Alberdi Telleria

2023ko azaroaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana. Familiaren partetik.

Bergaran, 2023ko azaroaren 24an.

ESKER ONA



Jabier Herrarte Garai

2023ko azaroaren 16an hil zen, 74 urte zituela.



Jabierren etxeko danok, bihotz-bihotzez, eskerrak helarazten dizkizuegu egun hauetan zuen babesa eskaini diguzuen denei: familiari, lagunei, Portaloiko kideei, Goienagusikoei, kintoei... eta banan-banan zuen beroa ekarri diguzuen bakoitzari.

Mila esker!

Familiaren partetik.
Arrasaten, 2023ko azaroaren 24an.

MEZA



Marcial Lukas Iturri

2023ko azaroaren 16an hil zen, 85 urte zituela.



Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 25ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrrik asko.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko azaroaren 24an.

MEZA

Maria Arana Elcorobarrutia

Luis Iturberen alarguna

2023ko azaroaren 19an hil zen, 90 urte zituela.



Amatxo eta amama maitia, betirako gure bihotzetan.

Haren aldeko Olata Meza, igandean, azaroak 26, goizeko 11:00etan, Uribarriko Itxaropenaren Andra Mariaren elizan izango da.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko azaroaren 24an.

BADESLEA

Oroilore

**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu**

Gari deitu zuenean ez, nahingo baduzue, jakinarazi zuen asaguru-kospainari gurekin nahi duzuela agurtu nahi duzuen.

Mariozen, Ibanen, Maribiren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatzeko balo dituen horietakoak. Guk badingu gordin zuzentzeko, gure beharra duzuenentzako.

Marie, Iban, Maribi eta Cristian



**Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37**

ZORION AGURRAK



OÑATI
Urdax Erostarbe eta Martin Lazkanoiturburu
Azaroaren 28an. Zorionak, bikote, 6 ta 18 urte!
Nola pasau dan denbora. Elkarrekin ospatuko dogu txokolatzeko pastel goxo batekin! Ondo-ondo pasau eguna familixa danan partetik, batez be Unax eta Ganixen partetik!



OÑATI
Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 11 urte. Zorionak, Hodei!
Ondo-ondo pasa zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu. Familiakoan partetik!



ARRASATE
Liher Gallastegui Yarza
Azaroaren 27an, 7 urte. Zorionak, Lihertxo!
Patxo handi bat amatxo, aitatxo, amama, aitata, Iratxe, Pita, Luka eta, bereziki, Nileren partetik.



ARRASATE
Malen Etxeberria Agirreurreta
26an, 7 urte. Zorionak, Malen!
Ondo pasau eta ederto ospatu zure eguna. Muxu haundi bat denon partetik, bereziki aitona eta amamaren partetik.



OÑATI
Oihan Odrizola Larrañaga
Azaroaren 26an, 4 urte. Zorionak, Oihan!
Ondo pasau zure egunian! Patxo pila bat etxeko danon partetik!




ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Aimar!
Ondo-ondo ospatu zure bederatzigarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Nora Axpe Pacios
Azaroaren 23an, 7 urte. Zorionak, maitia!
Ondo pasau zure urtebetetzean! Jarraritu indar horrekin, asko maite zaitugu! Patxo potoloak! Muakki!



BERGARA
Julen Burgaña Ernabide
22an, 6 urte. Zorionak, Julen!
Asko maitte zaitugu. Muxu haundi bat familia osoaren partetik. Besarkada eta patxo potolo bat guztien partetik.



ARETXABALETA
Xixili Olabe eta Garikoitz Blanco
Azaroaren 21ean, urtebetetzea. 80 eta 8 urte. Zorionak, bikote!
Oso ondo pasa zuen eguna! Milaka muxu etxekoan partetik!



OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 14 urte. Zorionak, txapel-dun!
Ondo pasau zure eguna.



BERGARA
Izar Akemi Etxeberria Ramirez
Azaroaren 21ean, 14 urte. Zorionak, Izar!!
Etxeko guztien partetik. Urtekit urtera ederrago. Maite zaitugu!

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Goiena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

ARRASATE Banda gaztearen eta gaiteroen kalejirak

Santa Zezilia zaindaria gogoan.
Banda, 17:30ean; eta gaiteroak, 19:30ean.
Arrasaten.

ESKORIATZA 'Ez gara jaitsiko' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lan berria.
Manuel Muñoz kiroldegian, 18:00etan.

ARETXABALETA A-30: asanblada eta gazte argazkia

Atxabaltako Gazte Mugimenduak deituta.
Udaletxe zaharrear, 18:00etan.

ARRASATE 'Maiteder' ikuskizuna

5 urtetik gorakoendako, Kiribil konpainiaren eskutik.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA 'Genero indarkeriaren biktimarioa eta biktima ezagutzen' hitzaldia

Ane Lekandak egingo du berba.
Udaletxean, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Akelarre' ikuskizuna

Oihulari Klown-en azken lana.
Torresoroan, 18:30ean.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloi Elkartearen eskutik.
Kulturolan, 18:30ean.

OÑATI Herrixa Kantuan

Jose de Azpiazu musika eskolako kideen eskutik.
Kontzejupean, 18:30ean.

ELGETA Bolo txapelketa

Hiru kategoria: 6-12 urte, 13-16 urte, eta 17 urtetik gora.
Bolatoki tabernan, 19:00etan.

ESKORIATZA Itzartu gazte asanbladaren urteurrena

Gazte afaria egingo dute.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Txiste-poteoa

Movembergara elkartearen eskutik.
Irala kalean, 19:00etan.

ARRASATE 'Tabuen kutxatik oholtzara' ikuskizuna

Ane Labaka, Ane Zuazubiskar, Maialen Akizu eta Uxue Alberdi bertsolariak, eta Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikariak. Debalde.
Amaia antzokian, 19:00etan.

BERGARA Kantu poteoa

Azaroa Gaztainatan ekimena.
Osintxun, 19:30ean.

BERGARA Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberio

Udazken Musikalaren baitan.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE 'All in da house' freestyle txapelketa

Jaio, Papaya, Muxker, Aissa, Markel eta Izar, oholtzza gainean.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 25

ARRASATE Mondravember Eguna

09:00etan, mendi irteera; 14:30ean, talde argazkia; eta 14:30ean, bazkaria.
Arrasaten.

ARRASATE Adrian Zelaiari elkarriketa

Askatasuna eta Giza Eskubideen aldeko Plataformak gonbidatuta.
Kulturaten, 10:30ean.

ARETXABALETA Azaroak 25

11:00etan, emakume sortzaileen azoka; 14:30ean, bazkari feminista; 16:00etan, *Ez da kasualitatea* bertso-saioa; eta 18:30ean, elkarretaratzea Herriko Plazan.
Iturrigorri frontoian.

ARRASATE A-25: elkarretaratzea

Deba Bailarako Itaiak deitua.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI A-25: elkarretaratzeak

12:00etan, Olakuako urmaelaren ondoan, eta 13:00etan plazan.
Oñatin.

BERGARA A-25: elkarretaratzea

Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak! Ieloarekin.
Munibe plazan, 12:30ean.

ARRASATE A-25: mobilizazioa

Mugimendu feministaren mobilizazioa.
Seber Altuben, 13:00etan.

BERGARA 'Kalean otso, etxean uso' antzezlan

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

ARAMAIO A-25: elkarretaratzea

Herritar guztiendako.
Bizente Goikoetxea plazan, 18:00etan.

ANTZUOLA A-25: elkarretaratzea

Andramanuelak emakume taldeak eta Antzuolako Udalak antolatuta.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ESKORIATZA A-25: elkarretaratzea

Eskoriatzako emakume feministek antolatuta.
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

OÑATI Ganbararen elkartasun kontzertua

Aspanogi elkartearendako izango da batutako dirua. Sarrerak, Txokolateixan eta Udalaren webgunean.
Agustindarren elizan, 19:00etan.

OÑATI 'Erraiak' dokumentala

Ekain Martinez de Lizarduy egilea bertan egongo da.
Araotz auzoko ostatuan, 19:30ean.

DOMEKA 26

ELGETA Mendi irteera eta baba-jana

Kantsatzeke taldearen eskutik.
Mendizaleen plazan, 08:00etan

OÑATI Orbel eta estai-batzea

Gure Bazterrak taldearen eskutik.
Arantzazuko Ama kaleko Eroskiko apartakalekuan, 09:00etan.

ELGETA Bisita gidatua

Intxortako frontea ezagutzeko Izena: 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.



KATXIPORRETA

ARRASATE Galarrako kobara irteera
Mondravember taldearen eskutik, Arantza Otaduyekin.
Galarrako koban, 10:30etan.

ARRASATE Arizmendiarietaren omenezko meza
Haren heriotzaren 47. urteurrenean.
Parrokian, 12:00etan.

ARAMAIO Bizente Goikoetxea abesbatzaren emanaldia
Santa Zeziliaren omenezkoa.
Ibarrako elizan, 12:00etan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua
Santa Zeziliaren omenezkoa.
Pilotalekuan, 12:30etan.

BERGARA Erretiratuaren bazkaria
Txuringo jatetxean.
Osintxun, 14:30etan.

ESKORIATZA 'Sex sua' musikala
Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Arima Soul taldea
Burrunda Faktoriak gonbidatuta.
Gaztetxean, 19:00etan.

ARRASATE Gala lirikoa
Una noche en el teatro de la comedia ekoizpena, Ozenki elkartearen eskutik.
Amaia antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertua
The Beatles taldearen eta Nino Bravoren kantuak interpretatuko dituzte, besteak beste.
Parrokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 27

ARRASATE 'Seis modelos para el futuro de Europa' hitzaldia
Adrian Zelaia egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio publiko duinak eskatzeko. Antzuolan, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten egingo dituzte.
Herri horietan.

ESKORIATZA 'Ez gara jaitsiko' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek azken ikuskizuna estreinatuko dute Eskoriatzan. Marimotots zuhaitz baten adarburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote.
Gaur, egubakoitza, kiroldegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Euskarazko jostailuen erakusketa

Mahai-jolasak eta jostailuak batzen dituen erakusketa da batez ere.
Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Idazketa tailerra
Jose Mari Iturralde gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

BERGARA Heriotza duinaren tailerra
Duintasunez Hiltzeko Eskubidea sustatzen duen elkartearen eskutik, ele bitan. San Joxepe elkartearen, 18:30etan.

MARTITZENA 28

ARRASATE Bailara Elkartearen aurkezpena
Enpresa txiki eta ertainak batzen dituen elkarte da Bailara.
Garaian, 16:00etan.

ESKORIATZA Euskarazko jostailuen erakusketa
Mahai-jolasak eta jostailuak batzen dituen erakusketa da batez ere.
Kultura etxean, 17:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Un amor
Zapatua eta astelehena: 19:30.
Vampiro al rescate
Zapatua: 17:00.

BERGARA
SEMINARIXOA
O corno
Domeka eta astelehena: 19:30.
Bill Kwuay eta museoaren lapurreta
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
La contadora de películas
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA
ARKUPE
Campeonex
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 16:00.

GASTEIZ
FLORIDA
Doraemon: Nobitaren dinosauro berria
Zapatua eta domeka: 12:00.

El chico y la garza
Zapatua eta domeka: 12:00.
El favor
Egubakoitzetik domeka: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

El maestro que prometió el mar
Egubakoitzetik domeka: 17:15, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.
The Marvels
Egubakoitza: 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:30.
Astelehena eta eguaztana: 19:30.

Vidas pasadas
Egubakoitza: 21:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

El amor de Andrea
Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:00.

Heroico
Egubakoitzetik domeka: 16:45, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Teresa
Egubakoitzetik domeka: 16:45, 18:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

ESKORIATZA 'Maneras de combatir la soledad' hitzaldia
Bakardadearen gainekoak landuko ditu Hugo Agirrezabalek.
Zaldibarren, 18:00etan.

ARETXABALETA Gaztaina saltzailea
Aretxartek gonbidatuta.
Mitarte kalean, 18:00etan.

OÑATI A-30: batzarra
Ireki.
Gaztetxean, 18:30etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Angel Erroren *Poema liburu bat* liburuaren gaineko saioa, Itziar Ugartek gidatuta.
Liburutegian, 18:30etan.

ARRASATE 'Arizmendiarietaren aurkezpen espirituala' hitzaldia
Gasteizko Teologia Fakultateko dekan ohi Saturnino Gamarrak eta Mondragoneko zuzendari ohi Jose Ignacio Garatek egingo dute berba Arizmendiarietaren gainean.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUAZTENA 29

OÑATI 'Biologia eta medikuntzako zenbait aplikazio matematiko' hitzaldia
Elisabete Alberdik egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Santa Anan, 10:00etan.

ESKORIATZA Euskarazko jostailuen erakusketa
Mahai-jolasak eta jostailuak.
Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Gaztaina jana Erretiratuendako.
Pake Lekun, 18:00etan.

OÑATI 'Poltsikorako poemak' poesia kontaketa
5-7 urte artekoendako, Amaia Egidazu eta Saroa Bikandirekin.
Haurren liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Hitzak josten' ipuin kontaketa
4 urtetik gorakoendako, Mireia Delgado pedagogoaren eskutik.
Bibliotekan, 18:00etan.

ELGETA Astropaketa
Ilatargi elkartearekin.
Liburutegian, 18:30etan.

ANTZUOLA 'Trantsizio energetiko korporatiboaren analisia' hitzaldia
EHUko ikertzaile Alvaro Camposek egingo du berba.
Torresoroan, 18:30etan.

ARRASATE Izeba proiektuaren gaineko hitzaldia
Boluntario bila dabilta.
Kulturaten, 18:30etan.

ARRASATE 'Irulegi, bidaia arkeologiko bat baskoien lurraldera' hitzaldia
Mattin Aiestaranek egingo du berba, Arrasate Zientzia Elkarteak gonbidatuta.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Telesforo Monzonen kulturagintza' hitzaldia
Pako Sudupe idazleak egingo du berba
Olaso dorrean, 19:00etan.

BERGARA Pol-Polen 2024ko denboraldi aurkezpena
Ondoren, txistorra mokadutxo.
Pol-Poleko lokalean, 19:00etan.

BERGARA 'Falcon lake' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 30

ARRASATE Sasoibide
Eibarrera joango dira. Zalduspen hartuko dute autobusa, 09:50etan.
Zalduspe geralekuan.

BERGARA Bergara oinez
Agorrosinen elkartuko dira herrian zehar paseoa egiteko.
Agorrosinen, 10:00etan.

DEBAGOIENA A-30: askotariko ekintzak
Mugimendu feministak deitutako grebaren harira bailarako herri guztietan egongo dira ekintzak eta manifestazioa.
Herrietan.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIUZOLA

Zeziaren plazeboa

Azaroaren 22an da Santa Zezilia, musikarien eguna. Aitak erakutsi zizkidan SESBeko ereserkia eta *Enola Gay*; amak, berriz, Duhalde eta Jurado. Nik ikasi nituen *Ran rober ran* eta *Uso zuria*.

Gaur egun ere musika gertutik bizi dut, bere historiaren 200. urteurrenara gerturatzen ari den Bergarako Musika Bandari esker. Astean bitan, musikari taldeak eguneroko kaosaren gurgiletik ihes egin eta arreta osoa *staccato*, *D.S. al Coda*, eta bemol kopuruan jartzeko zorrea du. Entsegu gelatik ahapeka *tarareoan* irten eta auzokoak esna ditzakete batzuek. Etxera heldu eta *El hombre y la tierra* zein telesail zen jakin nahiko dute besteek. Norberaren hiletarako *Forrest Gump* edo *Cinema Paradiso* ren soinu bandaren artean aukeratzeko dilema dute ezagutzen ditudan zenbaitek.

Musika multifuntzionala da: tristuraren erasoaldietarako plazeboak amorruta ateratzeko, gozatzeko, zerbait aldarrikatzeko edo jaiak xaxatzeko balio dezake. Ezagutu gabeko mundu berrietara bidaiatzeko espazio-ontzia. Pentagrama eta batutarena da *pobre* izanagatik ere, arima elikatu eta *alegre* jartzeko gaituen territorio pribilegiatuetako bat.

BUKATZEKO

'Gure katona': herrikoa, batua eta gaztelania lotzen

Gaur eguerdiko 12:00etan aurkeztuko du Roberto Altuna oñatiarrak herriko euskara, euskara batua eta gaztelania lantzen dituen liburua Euskaldun Berria gelan. Dagoeneko salgai dago Oñatiko hainbat dendatan, bi euroren truke

Julen Murua Mesonero OÑATI

"Oñatin euskaraz bizitzeko oinarriko hiztegia eta gramatika" jasotzen du, Roberto Altuna oñatiarraren hitzetan, berak argitaratu duen *Gure katona* liburuak. Herrikoak, batuak eta gaztelania bat egiten dute liburuan, eta hainbat atal daude: "Hiztegia sailka banatuta dago, eta, bakoitzean, eguneroko gaien inguruko berbak agertzen dira (unibertsoa, inguruko herriak, denbora, kirola eta abar). Gramatikaren atala ere badu –bertan azaltzen dira ezaugarri fonetikoak, aditz izenak, atzizkiak edota sintaxiarekin loturiko egitura eta lokailuak–, eta, horrez gain, esamolde eta esapideen atalak eta haur kanten atalak osatzen dute liburua".

Denbora luzez lanean jardun behar izan da Altuna liburuko eduki guztiak jaso eta batzeko. Ez da hutsetik hasi duen lan bat izan, aurretik eginiko beste lan batzuen sintesia baizik. Duela hamar bat urte atera zuten *Oñatiko euskeria* liburua, baina Altunak ikusi zuen bazegoela "behar bat liburu hori modu didaktikoago, sinpleago edo laburrago batean azaltzeko, eta konparaketa bat egiteko herriko euskararen, euskara batuaren eta



Roberto Altuna, *Gure katona* liburuarekin. J.M.M.

gazelaniaren artean", eta horregatik erabaki zuen oñatiarrak *Gure katona* lana argitaratzea.

Altunak dio arrazoi asko daukela liburuan agertzen diren konparaketak egiteko, baina horiek guztietatik bat nabar-

mentzen du: "Badirudi herriko euskara erabiltzen dugunok soilik herritarrontzat hitz egiten dugula. Euskara hori ez da inon zabaltzen, ez da inon ikusten, ez ikastetxeetan, ez euskalgetietan, ezta komunikabideetan ere.

Bakarrik laguneren artean edo etxean erabiltzen da. Era berean, gertatzen dena da batua ikasten duenak herrikoa ulertzeko arazoak izaten dituela; ez duelako sarbiderik. Milaka mesfidantza eta milaka gaizki-ulertu daude, eta horiekin guztiekin amaitzeko iruditu zitzaidan gai horiek lantzeko beharra zegoela".

"Guztioi" zuzendutako liburu bat dela ere badio Altunak: "Bai herriko euskaldun zahar eta berrientzat, bai erdaldun hutsak direnentzat; izan ere, oinarrikoa da, eta ez da ezagutza berezirik behar azalduzkoa ulertzeko". Horrez gain, ikastetxeetako irakasleek ere haien ikasleekin erabili beharreko zerbait dela aitortu du oñatiarrak, gazteenak ere ondo molda daitezkeen euskaraz nahiz eldaraz, bi hizkuntzek dituzten aldaera eta erregistro guztietan.

Dagoeneko eskuragarri

Gure katona liburua eduki gura duenak eskuragarri du dagoeneko herriko hainbat lekutan: "Liburua egongo da eskuragarri Oñatiko liburu-denda guztietan, Txokolateixan, turismo bulegoan, euskaltegian eta udalaren web orrialdean; bi euroren truke, merke-merke. Horrez gain, liburu kaxa bat ere bidaliko dugu Durangoko Azokara, eta eskuragarri egongo da Badihardugu Euskara Elkartearen postuan".

Gaur, aurkezpena

Liburuaren aurkezpena gaur izango da, 12:00etan, Euskaldun Berria gelan. Ekitaldiko partaideak izango dira Juan Martin Elexpuru idazlea, Arantzazu Sagarzazu kantaria eta Roberto Altuna bera, liburuaren egilea.

'DEBAGOIENEAN EGINA'

GOIENA TELEBISTAN, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN
EGUAZTENERO
DEBAGOIENEN ENPRESAK BARRUTIK EZAGUTUKO DITUGU
IÑIGO BARRENAREN ESKUTIK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

